# Goienkaria

2009ko azaroaren 20a > Egubakoitza > IX. urtea > 398. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


**"Gaur egungo umeek duela 25 urtekoek baino okerrago jaten dute"**



**Iñaki Peña** Debagoieneko Eskualde Ospitaleko medikua > 09


**G2a** 'La corte de Faraón' zarzuela Arrasaten > 37

**ARRASATE** Ortu ekologikoen jabeei bihar entregatuko dizkiete giltzak > 12

**OÑATI** Azken 30 urteotako udal hautagaiak omenduko ditu EAJk bihar > 27

**ESKORIATZA** Eraikuntza iraunkorraren 2. azoka egingo dute aste bukaeran > 28


**EKONOMIA** > ENPRESA

# Berrikuntza Agenda programa daukate ibarreko 89 enpresak

**JAURLARITZATIK** Industria Sailaren Euskadi+Innova programaren barruan dago Berrikuntza Agenda tresna

**BI MODUTARA** Produktua, batetik, eta antolakuntza, bestetik, berritzera animatzen dituzte enpresak

**KRISIA** Bereziki krisi garai honetan, derrigorrezko tresna da berrikuntza, baina baita ohiko egoeretan ere > 02-03

**JENDARTEA** > EMAKUMEA

## Indarkeria salatzeko ekitaldiak

Datorren eguaztenean, hilak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da. Hala, genero biolentzia salatzeko hainbat ekitaldi eta bilkura egingo dira bailaran. > 04

## Beira birziklatzeko kanpaina hasiko da gaur bailaran

Debagoieneko Mankomunitatearen kanpaina da eta bi helburu ditu: alde batetik, birziklatzen dugun beira kopurua handitzea; eta beste aldetik, gogora ekartzea herritarrei, edukiontzi berdera bota beharreko elementuak zein diren. Hori horrela, gaur, egubakoitza, kontzientziazio kanpaina abiaraziko du Antzuolan. Karpa bat jarriko dute Zurrategi plazan eta han egongo dira bi aditu beiraren birziklatzeari buruzko azalpenak ematen ikus-entzunezkoen laguntzarekin. Kanpaina ibiltaria izango da, eta herriz herri bailara osoa zeharkatuko du. Abenduaren 19an amaituko da, Bergaran. > 04



**EDUKIONTZIRA** Kanpainan, besteak beste, gogora ekarriko dute edukiontzi berdera bota behar direla beirazko pote, botila eta flaskoak. XABIER URTZELAI

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-06
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 11-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47


**KIROLA** > TXAPELKETA

## Eskalatzaile onenak Arrasaten

Euskadiko txapelketa bailaran jokatuko da lehen aldiz; Arrasaten, hain zuzen, abenduan > 34

## 'Ondo bizi' gehigarria

GOIENKARIArekin batera osasun, edertze eta umeen gaineko orrialde bereziak barrualdean.





**Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak**



IKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

**EKONOMIA** > EUSKADI+INNOVA PROGRAMA

# "Krisi garaia izan edo ez, beti berritu behar du enpresak"

**ARRAKASTA** Industria eta Berrikuntza Sailak antolatutako Euskadi+Innova programan parte hartzen dabiltza Debagoieneko 89 enpresa

**FILOSOFIA** Produktu eta zerbitzuez gain, enpresek euren antolakuntzan eta lan egiteko moduan berritzeko borondatea eta ekimena agertu dituzte

**KRISIA** Bi modutan eragin du krisi egoerak berrikuntzan: proiektu batzuk gerarazi egin ditu, baina, era berean, berritzeko premia areagotu du



Alecop-en instalazio bat.

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

*Berrikuntza* hondar-hitz bihurtu da ekonomian eta enpresan. Esanahi zehatza hartu du, arlo horietara estu lotuta; eta krisi garaian, are garrantzitsuago eta errepikatuago bihurtu da. Oraingo hilera arte Innobasque-ko, Berrikuntzaren Euskal Agentziako presidente izan den Pedro Luis Uriartek honela esan zuen joan den astean: "Innobasque sortu zenean, 2007an, ohartarazi nuen, goraldian geunden arren, Euskadiren etorkizuna zalantzan zegoela; izua pizten nengoela leporatu zidaten, baina denborak arrazoia eman digu. Euskadi berriz pentsatzera behartuta gaude, krisiak behartuta; gure historiako transformazio sakonena bizi izatera, eta hor, berritzeko, ez da bata zuria soinean behar; edozeinek egin dezake". Hitzok ez zituen edonolako ekitaldi baten esan: *berrikuntzaren guru* deitzen dioten John Kao aditu estatubatuarrak egindako bisita baten esan zituen. Erakunde publikoetako eta enpresetako ordezkari nagusiak ere bazeuden bisitaldi hartan, Lopez lehendakaria eta Unda Industria sailburua buru zituztela: berrikuntza kapritxo hutsa ez, betebehar baizik den adierazle. Eta krisi garai hau, mehatxu barik, aukera izan daiteke nork bere burua garatzeko; adituek esaten duten moduan, ongizatearen kulturak ez duelako ekimena garatzen; alderantziz, erosotasunean erortzera bultzatzen duelako.

#### IA 16.000 PROIEKTU AURKEZTU

Horretaz konturatuta, Debagoieneko enpresek ere helburutzat daukate euren burua berritzea, eta Industria eta Berrikuntza Sailak antolatutako Euskadi+Innova ekimenean parte hartzen dabiltza bailarako 89 enpresa txiki edo ertain. Euskadin, hiru eta 250 langile artean dituzten enpresa txiki eta ertainen %45ek eskatu dute programa horren laguntza. Hainbat tresna eskaintzen zaizkie enpresoi, eta arrakasta handien izan du Berrikuntza Agendak izenekoak: aurten, 10,5 milioi euro ipini ditu horretarako Industria eta Berrikuntza Sailak (2008an, 8,4 milioi izan ziren), eta 15.988 proiektu aurkeztu dituzte enpresek, berrikuntza eta gaitasun proiektuen artean.

Euskadi+Innova 2006an sortu zen, eta Eusko Jaurlaritzako oraingo gobernu taldeak +Euskadi 09 planarekin osatu du hura; izan ere, arduradunek dioten moduan, "krisia bakarrik berrikuntzaren bidez gaindi daiteke". Berrikuntza horrek ez du zertan produktura mugatu; enpresak bere burua antolatzeko modua aldatzea ere berrikuntza da. Aukera asko daude: taldean lan egiten ikastea, delegatzen ikastea, enpresako kide guztien ekarpenak entzutea, euren sormena aska dezaten uztea… Eta, hortik aurrera, helburua da berrikuntzaren kulturan bizi izatea. Adituen esanetan, Euskadi berrikuntzaren erdibidean dago, baina bide onean dago.

#### KRISIAK BEHARTUTA, ALBORATU

Euskadi+Innovako Berrikuntza Agenda programan dauden Debagoieneko 89 enpresetan, denetarik dago: batzuek Agenda bukatu dute, beste batzuek estrategiak zehazten dihardute, beste batzuek proiektuak egiten jarraitzen dute, eta beste batzuek, euren burua formatzen. Badago, ere, krisiak eraginda, Agenda *aparkatuta* utzi behar izan duenik ere (dirulaguntzak Jaurlaritzatik datoz, baina ez Euskadi+Innovaren barruan): hori da Bergarako Tornilleria Deba enpresaren kasua, haren gerente Pedro Muñozek dioen moduan: "Dirulaguntzak ezinbestekoak ditugu enpresa txiki eta ertainok horrelako proiektuak aurrera eramateko. Jaurla-



Ulma Agricolaren negutegiak.

DATUA

**10,5**

**MILIOI EURO**

Industria Sailak 10,5 milioi euro zituen aurten Berrikuntza Agendetarako; eskaera kopuruak aurrekontua gainditu du.

ESANAK

**"Berritzeko, ez da bata zuria soinean izan behar; edozeinek egin dezake"**

**Pedro Luis Uriarte** > Innobasque

Gizarte laguntzarako Prestakuntza

GERIATRIA LAGUNTZAILE DIPLOMA

kutxa

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA
Bergarako UNED.
Gizarte Laguntzan Trebatzeko Eskola
San Martin Agirre plaza 4 20570 Bergara
Tel.: 943 76 90 33 • Faxa: 943 76 27 21
Matrikula internet bidez egiteko:
www.uned.es/ca-bergara

Idazkaritzako ordutegia:
Asteartetik ostiralera:
10:30-13:00 eta 17:00-20:00
Zapatuetan: 09:00-13:00

Iraupena: 252 ordu (urtarriletik ekainera).

Hizkuntza: Gaztelania.

Datak eta ordutegiak: Kurtso hasiera urtarrilaren 15ean.

MATRIKULA EPEA:
Idazkaritzan: 2009ko abenduaren 1etik 23ra arte.
Interneten: 2009ko abenduaren 31 arte.

ASISTENTZIA TOTALA
Eskolak asteazkenetan, ostegunetan eta ostiraletan izango dira 17:00etatik 21:00etara
Prezioa: 168 €.
Matrikulan %25eko deskontua (ezin izango da metatu) izango dute:
- Langabezian dauden eta INEMen izena emanda duten pertsonek (egiaztagiria aurkeztu beharko dute).
- Kutxako bezeroak direnak.

MODALITATE ERDI-PRESENTZIALA
Derrigorrezkoa da elkarrizketara eta ebaluazioko 6 saiotara joatea.
Prezioa: 250 €
Matrikulan %25eko deskontua (ezin izango da metatu) izango dute:
- Langabezian dauden eta INEMen izena emanda duten pertsonek (egiaztagiria aurkeztu beharko dute).
- Kutxako bezeroak direnak.

UNED BERGARA

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa



GOIENKARIA



Tornilleria Deba enpresaren lantegia. LEIRE KORTABARRIA



GOIENKARIA

ritzak aurrekontu berria aurkeztu zuen egunean, eskaera egiten saiatu ginen, baina eguerdirako bukatuta zegoen aurrekontua. Berrikuntza proiektuetako batzuk gure kabuz aurrera eraman ditugu, ahal izan dugun neurrian".

GOIENKARIAk elkarrizketatu dituen hiru enpresetatik, bakoitzaren esperientzia berezia da, baina antzekotasunak dituzte: hirurek onartu digute berrikuntza "ezinbestekoa" dela eta horrelako programetan parte hartzea "oso interesgarria" dela; bestetik, igartzen da produktuan eta zerbitzuan pisu osoa ipintzetik, enpresak beste balio batzuk gakotzat hartzera pasa direla: talde lana, parte-hartzea eta beste erakunde batzuekin elkarlana, esate baterako.

Bestalde, nahiz eta guztiak kontziente ziren lehendik ere berrikuntzak duen garrantziaz, Eusko Jaurlaritzaren tutoretzapean lan egin izanak lagundu egin diela esan digute. Alecop-eko Berrikuntza eta Garapen arduradun Andoni Aregitak hauxe dio: "Gure aurreko gogoeta estrategikoan erabaki genuen berrikuntzari bultzada bat ematea. Berrikuntza Agendak behartu gintuen gure burua antolatzera kanpoko eragile batek berritzen lagundu ziezagun".

Neurri baten edo bestean, berrikuntzak beti aurrera dihardu, Ulma Agricola kooperatibako Alberto Galdos gerenteak dioen moduan: "Berrikuntza ez da bukatu beharreko zerbait, eta adierazgarri txarra izango litzateke hala balitz".

ULMA AGRICOLA

## "Esperientzia aberasgarria izan da, guztiz"

Mondragon Korporazioko Ulma Agricola Oñatiko kooperatibak 2009ko otsailetik ekainera arte egin zituen Agendako batzarrak, Jaurlaritzak ipinitako aholkulari batekin. "Esperientzia aberasgarria izan da, guztiz. Bidean geralditxo bat egin, nondik gatozen eta nora joan nahi dugun hausnartzeko balio izan digu", baloratzen du Alberto Galdos gerenteak.

**HELBURUAK**

Berrikuntza modu zabalean lantzen dute Ulma Agricolan ere: "Epe motzera landu nahi ditugun ekintza gehienak bi arlo handitan batera ditzakegu: Berrikuntza proiektuak eta Berrikuntza Enpresa Antolakuntzan. Badugu Berrikuntza Kultura lantzen duen proiekturen bat edo beste, baina hori epe ertainera ikusten dugu", dio Galdosek.

**NORBERA BEREIZTU**

Gaur egungo egoeraren eraginez, hauxe dio gerenteak: "Luzaroan, enpresa askoren helburu nagusia kostu edo produkzio abantaila lehiakorrak izatea izan da, baina hori lortzea gero eta zailagoa da gaur egun. Horren aurrean, berrikuntzan bereizteko jokaera behar dugu moldatu gure enpresan".

TORNILLERIA DEBA

## "Pena da dirulaguntzak eten izana"

Prozesu emankorra izan da Berrikuntza Agenda Tornilleria Debarendako ere; dirulaguntzak eten badizkiete ere, berritzearen harra berpiztu zaie. Hala, gerora, hausnarketa prozesuan pentsatutako proiektu batzuk, neurri apalagoan, euren kabuz egin dituzte. Hori bai, dirulaguntzak "ezinbestekoak" direla esaten du Pedro Muñoz arduradunak.

**LANTALDE OSOA**

"Positiboena da eguneroko lanetik momentu bat hartu eta, taldeka, nora goazen gogoeta egiteko balio izan digula; eta, bestetik, lantalde osoa inplikatu izana. Hala, egubakoitz arratsaldeak bakarrik hartu genituen Agendarako", azaltzen du gerenteak.

**EKINTZA ZEHATZAK**

Bi aholkulari izan zituzten laguntzen, eta bost ekintza-lerro finkatu zituzten. "Kostuak murriztea eta balio erantsia handitzea ziren gure helburuak arlo komertzialean; bestetik, gure produktua hobeto ezagutzea. 16 ekintza diseinatu genituen. Urtarril edo otsail inguruan aurkeztu genuen gure proiektua, baina orduan eten ziren dirulaguntzak, eta pena handia hartu genuen", dio Pedro Muñozek.

ALECOP

## "Erabakia hartzen laguntzen du kanpokoak"

Aurretik zituen asmoak gorpuzten lagundu zion hezkuntza eta irakaskuntza baliabideen arloko Alecop kooperatibari Berrikuntza Agendak, eta 2008 erdialdean bukatu zuten hausnarketa prozesua.

**BI ARLOTAN**

Alecop-eko Berrikuntza eta Garapen arduradun Andoni Aregitak honela dio: "Bi arlotan berritu gura izan dugu: antolakuntza eta negozio-ereduetan, eta Ikerketa + Garapen + Berrikuntza arloan; hau da, produktu eta zerbitzuetan".

**ENPRESAREN EKIMENEZ**

Hauxe dio Aregitak: "Kanpoko programa hori barik ere, berrikuntza landu izango genukeen, baina Agendak behartu gintuen gure burua beste modu batera antolatzera. Horrez gain, argitalpen batzuetan aipatu gaitutze, eta gure burua ezagutaraztekо balio izan digu". Aregitaren esanetan, "beti berritu behar da, krisi garaian edo ez; aldaketak gero eta bizkorragoak dira". Bere iritziz, "enpresaren ekimena izan behar du berritzeak, baina zalantzak planteatzen dituenez, kanpoko laguntzak ondo datoz, erabakia hartzeko".

Japoniako teknologia aurreratuena
ECHO



• Motozerra katalizatzailearekin
• CDI piztea
• Pizte erraza

Informazio gehiagorako:
943 76 31 52

comercial BRUNET



• Motozerra elektrikoa

Telleria 2, Altos Hornos BERGARA Tel.: 943 76 31 52 - Faxa: 943 76 70 12
brunett@telefonica.net • www.comercialbrunet.com

**INGURUMENA** > DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

# Beira birziklatzeko kanpaina jarriko dute martxan gaur

## Edukiontzi berdean jasotzen den kantitatea handitzea eta horretara bota daitezkeen elementuak ezagutaraztea da kanpainaren helburua

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak beiraren birziklatzearen gaineko kontzienziazio kanpaina jarriko du gaur martxan, egubakoitza. Horren bidez, jasotzen den kantitatea handitu egin nahi da. Horretarako, birziklatzeko prozesua nolakoa den eta horrekin lortzen diren onurak azaldu nahi dizkiete herritarrei.

Mankomunitatearen datuen arabera, gaikako bilketen artean debagoiendarren artean harrera onena duena beirarena da. Eskualdean %66 birziklatzen da; hain justu ere, 2.000 tona urtero. Nabarmendu dute, horren harira, azken urteotan edukiontzi gehiago eta ostalaritzako edukiontzi berriak jarri direla. Dena dela, oraindik asko dagoela egiteke gogorarazi du Mankomunitateak; izan ere, gaur egun, eskualdean urtean 1.000 tona geratzen dira birziklatu gabe.

**POTEAK, BOTILAK ETA FLASKOAK**

Kanpaina horretan, edukiontzi berdeetara beirazko poteak, botilak eta flaskoak bakarrik bota behar direla erakutsiko dute. Era berean, portzelanak, zeramikak, tapak, tapoiak, txapak, bonbillak, fluoreszenteak, ispiluak, leihoetako kristalak, edalontziak, kopak eta kristalezko platerak ez direla esandako edukiontzietan bota behar azpimarratuko dute, gero jarraitu beharreko prozesuan arazo larriak sor ditzakete-eta.

Ecovidriok diruz lagundutako kanpaina Debagoieneko herri guztietara iritsiko da datozen asteotan. Gaur, esaterako, Antzuolako Zurrategi plazan izango da, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Horretan, karpa jarriko dute eta gaian adituak diren bi dinamizatzailek beiraren birziklapenaren gaineko informazioa emango diete hara joaten direnei. Horretarako, pantaila batean lau bideo ikusi ahalko dira, jarraitzen duten prozesua ikusteko eta edukiontzi berdeetara bota behar dena modu errazean ikasteko.

Horretaz aparte, dinamizatzaileek prestatuko mahai gaineko hiru jolasetan parte hartzeko gonbita egingo diete. Horren harira, Debagoieneko Mankomunitateak jakinarazi du oparitxoa emango zaiela parte hartzen dutenei.

### Karpa, herriz herri

**ANTZUOLA**
Azaroaren 20a. 17:00etatik 20:00etara. Zurrategi plazan.

**ARRASATE**
Azaroaren 27a. 17:00etatik 20:00etara. Seber Altube plazan.

**ARETXABALETA**
Azaroaren 28a. 11:30etik 14:30era. Durana kalean..

**OÑATI**
Abenduaren 11. 17:00etatik 20:00etara. Herriko plazan.

**ESKORIATZA**
Abenduaren 12a. 11:30etik 14:30era. Herriko plazan.

**ELGETA**
Abenduaren 18a. 17:00etatik 20:00etara. Herriko plazan.

**BERGARA**
Abenduaren 19a. 11:30etik 14:30era. Domingo Irala kalean.



Edukiontzietan beirazko poteak, botilak eta flaskoak bakarrik bota daitezke. GOIENKARIA

Arizmendi
ikastola

Arizmendi Kooperatiba Elkartearen
Batzar Nagusirako deialdia

Arizmendi Koop.E-ko Estatutu Sozialetako 30.artikuluak dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak, 2009ko urriaren 29an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Koop.E.ko bazkide guztiak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

**DEIALDIA**
**Eguna: 2009ko abenduaren 10a.**
**Lekua: Arimazubi guneko aretoa.**
**Ordua: Lehen deialdia: 18:00.**
**Bigarren deialdia: 18:30.**

**GAI-ZERRENDA**
**LEHENA.** Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespen-txostenaren irakurtzea. Aktaren onespenerako bi bazkideren izendapena.

**BIGARRENA.** 2008-2009 ekitaldiko sozietate-kudeaketa aztertzea eta, hala balegokio, Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta Txostena), baita kudeaketa-txostena ere, onartzea.

**HIRUGARRENA.** 2008-09 ekitaldiko emaitzen banaketa.

**LAUGARRENA.** 2009-2010 ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpena.

**BOSGARRENA.** Estatutu Sozialen 8, 46, 52, 53 eta 33. artikuluen aldaketa eta berregindako testuaren onarpena1.

**SEIGARRENA.** ARIZMENDI, Koop. E., Herri Onurako EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA KOOP. E. Europar Kooperatiba Elkartean sartzeko erabakia hartzea bidezkoa bada.

**ZAZPIGARRENA.** Kontseilu Sozialaren eta Zaintza Batzordearen berriztatzea.

**ZORTZIGARRENA.** Kontseilu Errektorea ahalduntzea.

**BEDERATZIGARRENA.** Galde-erantzunak.

Juan Luis Arexolaleiba Biteri
Lehendakaria
Arrasate, 2009/10/29

**JENDARTEA** > EMAKUMEA

# Bilkurak eguaztenean, genero indarkeriaren kontra

## Arrasaten, Antzuolan eta Oñatin deitu dituzte, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira

**T.MADINA- M.BITERI** > ARRASATE

Eguaztenean, hilak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta, urtero moduan, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Arrasateko Plataformak elkarretaratzea egingo du egun horretan. 19:00etan hasiko da esandako ekimena, Arrasateko Herriko Plazan. *Biolentziak hamaika aurpegi ditu* da aurten aukeratutako leloa eta baita Alberto Encinasek egindako diseinatutako karteletan agertzen den esaldia ere.

Elkarretaratzeaz gain, ekitaldi berezia ere gertatu dute; izan ere, plataformak film laburren lehiaketa antolatu du aurten eta aurkeztu diren bost lanak ikusi ahalko dira. Lehiaketak dagoeneko badu irabazlea: Jesus Cansinoren *Tres de azúcar* lanak lortu du lehenengo saria. Euskarazko lan onenaren saria, berriz, Hondarribiko 7 Emakume en Movimiento taldearen *Haizea* lanarendako izan da.

**ANTZUOLAN ETA OÑATIN**

Beste hainbat herritan ere ekitaldiak gertatu dituzte. Antzuolan, Udalak kale agerraldian parte hartzeko dei egin du. Eguaztenean izango da, 19:00etan, Herriko Plazan, *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* lelopean. Oñatin, azkenik, agerraldia deitu dute eguaztenerako. Manifestua irakurriko dute alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak.

> POLITIKA

### Almeriako euskal presoek itxialdiari ekin diote

Almerian dauden euskal presoek itxialdia hasi dute aurrez aurreko bisitak bertan behera geratu direlako. Arazoa etorri da senideak miatu nahi izan zituztenean eta haiek ukatu egin zirenean. Han daudenen artean Kepa Urra aretxabaletarra dago. Euskal preso politikoen kolektiboak oharra kaleratu du azken asteotan espetxeetan gertatzen ari diren miaketak salatzeko eta tratu duin eta begirunezkoa izateko eskubidea eskatzeko.

> AHT

### Marinen 428 metroko luzera duen biaduktua eraikitzen hasi dira

Abiadura Handiko Trenaren lanen harira, dagoeneko hasi dira GI-3343 errepidearen gainean aurreikusitako biaduktua eraikitzen; Marinen, hain zuzen ere. Eskoriatza eta Aramaio arteko tramuaren barruan dago biaduktu hori, eta denera 482 metro izango ditu. 17 eta 60 metro arteko zortzi zutabek eutsiko dute. Beste bi biaduktu ere aurreikusten dira tarte honetan, Uriarte eta Zarimuzkoa.

> FAMILIA

### Adopzio ondorengoaz hitz egingo dute bihar Donostian

Elkarrekin Heziz elkarteak adopzio ondorengo jardunaldiak egingo ditu bihar, zapatua, Donostiako Aiete jauregiko topagunean. 10:30etik 13:30era, *Nola lagundu dezake adopzioak aurretik jaso edo bizitzako zauriak sendatzen?* izeneko eztabaida izango da, eta arratsaldean, 15:30etik 19:00etara, balioetan hezteaen garrantziaz hitz egingo dute. Jardunaldiek irauten duten bitartean, txikiendako zaintza berezia egongo da.

> KOOPERATIBISMOA

### Arizmendi topaketak ekimena egingo dute eguenean Arrasaten

Urtero moduan, Gizabidea Fundazioak *Arizmendi topaketak* ekitaldia antolatu du eguenerako, azaroak 26. Aurtengoan, Ainara Udaondo Lanki ikertegiko ikerlariak eta Huheziko irakasleak *Norabide bat kooperatiba taldearentzat* izeneko hitzaldia egingo du.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Biteri egoitza nagusiko aretoan egingo dute hitzaldia. Hitzordua 18:30ean jarrita dago.



Oñatiko anbulatorioan gizon bat txertoa hartzen. ARANTZAZU EZKIBEL

**JENDARTEA** > OSASUNA

# Uste baino gehiagok hartu dute A gripearen aurkako txertoa

Haurdunendako txertoa datorren asterako prest izatea espero dute ibarreko anbulatorioetan

Batez ere 18 eta 65 urte bitarteko gaixo kronikoak animatu dira txertoa hatzera

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Uste baino jende gehiago pasatu da gure herrietako anbulatorioetatik A gripearen aurkako txertoa hartzera. Martitzenean hasi ziren txertoa ipintzen eta ordutik hona jende asko animatu da. Gutxi gorabehera, egunean 36 txerto jartzen dituzte anbulatorioetan.

Oraingoz, arrisku taldean daudenek bakarrik jasoko dute txertoa; eta, beharrezkoa izango da anbulatoriora deitu eta txanda eskatzea. Nork bere herriko anbulatorioan hartu beharko du txertoa.

Adinaren arabera multzotan banatu dituzte gaixoak. Izan ere, txertoa prestatzeko hainbat osagai nahastu behar dira; behin horiek nahastuta, 24 orduan ipini behar da txertoa. Ez dena ipintzen bota egiten dute; horregatik, komeni da dena ondo antolatuta izatea. Taldeak dira: sei hilabetetik 13 urte arte; 14-17; 18-65; eta 65 urtetik gorakoak. Haurdunendako txertoa datorren asterako prest izatea espero dute, baina oraindik zehaztu barik dagoela esan digute.

**TXERTOA HARTZEN**

"Oso ondo erantzun du jendeak", esan digu Garbiñe Etxeberria Bergarako anbulatorioko koordinatzaileak. "Esan digute Donostia aldean oso jende gutxi dabilela txertoa hartzen, baina hemen ordu guztiak beteta ditugu", azaldu du Etxeberriak. Gehienbat, 50 urtetik gorakoak dira txertoa hartzera animatu direnak. Oñatin ere gauza bera esan digute, gehien animatu direnak 15 eta 65 urte bitartekoak izan direla.

**BADAEZPADA, HARTZEA ONENA**

"Badaezpada" berba da gehien entzun duguna; hau da, gaixotasun kronikoren bat dutenek badaezpada txertoa hartzea izango dela onena erabaki dute. Batek baino gehiagok esan dute "cobaya" bezala sentitzen direla; izan ere, oraindik zehaztu barik dago ze emaitza izango duen txertoak.

Bigarren mailako ondorioez galdetuta, Isabel Arenatza Oñatiko erizainen buruak azaldu du A gripearen aurkako txertoaren ondorioak ohiko gripearen txertoaren ondorio berak direla. Bestalde, Etxeberriak esan digu sukarra duten pertsonei ez dietela txertoa jartzen; ezta arrautzari alergia diotenei ere. Hori da txertoa arrautzaren enbrioiarekin egin dutelako.

ESANAK

**"Adinean aurrera noanez, bihotza, tentsioa... txertoa hartzeko esan didate"**

**Eusebia Aldanondo** > 85 urte

**"Badaezpada hartu dut; izan ere, katarroa izaten dut, eta baita asma ere. Ez dakit ze emaitza izango duen"**

**Itziar Lazkano** > 54 urte

**"Esklerosiagatik tratamenduan nagoenez, txertoa hartzeko esan didate"**

**Belen Zufiria** > 46 urte

**EUSKARA**

## 'Ahotsak.com' proiektua lagunduko dute diruz

Diputazioak eta Kutxak 240.000 euro jarriko dituzte bakoitzak

**A.E.** > BERGARA

Akordioaren helburua *Ahotsak.com* egitasmoari bultzada ematea da. Egitasmo horren asmoa da 2012. urterako Gipuzkoako udalerri guztietako lekukotasuna jasotzea, herri bakoitzean, gutxienez, elkarrizketa bat eginez. Horrela, herri bakoitzeko hizkera eta memoria historikoa jasota geratuko da. Helburua da 80 urtetik gorako biztanleen ahotsa jasotzea. Orain arte, webgunean bildu dituzte 93 herritako 1.494 hizlari.

**DIRULAGUNTZA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak funtsezko ikusten dute herri honen ahozko ondarea biltzea eta xede hori lortzeko nork bere esku dituen baliabideak ezartzeko ahalegina egingo duela azaldu dute; bide batez, antzeko proiektuetan parte hartzen duten erakunde eta elkarteen elkarlana bilatu gura dutela gaineratu dute.

Proiektua diruz laguntzeko, Diputazioak eta Kutxak 240.000 euro jarriko ditu, bakoitzak, datozen hiru urteetan.

**BADIHARDUGU**

Badihardugu Euskara Elkarteak orain dela urtebete aurkeztu zuen Euskal Herriko Ahotsak izeneko proiektua –*www.ahotsak.com*–. Proiektu horren bidez Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea bildu nahi dituzte.

Orain arteko lanari jarraipena eman eta hobetzeko asmoz, Badihardugük proposatu die Gipuzkoako Aldundiari eta Kutxari datozen urteetan Gipuzkoan proiektua zabaldu, sendotu eta guztien artean bultzatzeko.

**JENDARTEA** > ZIENTZIA

## Domekan amaituko dira teknologia gizarteari hurbiltzeko jardunaldiak

**A.E.** > ARRASATE

Gipuzkoarrei zientzia, berrikuntza eta teknologia modu didaktikoan helarazteko asmoz, Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Taldeko enpresa batzuek Zientziaren IX. Astea antolatu dute. Jardunaldiok domekan, hilak 22, amaituko dira.

Jarduera horien bidez, berrikuntzaren eta gizartearen arteko elkarrizketa bultzatu nahi dute. Gizarteak berrikuntza ulertu, onartu eta aintzat hartzeko baldintza egokiak sortuta berrikuntza garatzeko helburuarekin.

**FILMAK**

Garaiako auditoriumean film eta dokumental zientifikoak emango dituzte. Bihar eta etzi, 11:00etatik 13:30era izango dira emanaldiak. Garaia Berrikuntza Gunera joaten direnek, gainera, bisita gidatua *segway* ibilgailuekin –bi gurpildun ibilgailu elektrikoa– egiteko aukera izango dute.




*Fermin Etxegoienen lehen eleberri honetan mundu garaikidea ageri da, errealismoz erakutsia. Protagonistak lan egiten du herri bateko kooperatiban, eta zenbait tramaren erdian aurkituko du bere burua. Esperientzian oinarrituriko literatura da, egungo familia zein laneko bizipenak jasotzen dituena...*

PAMIELA
www.pamiela.com

**TEKNOLOGIA** > INAUGURAZIOA

# Mikro eta nanoteknologian espezializatutako laborategia

Ikerlanek egoitza berria inauguratu zuen astelehenean Garaia Berrikuntza Gunean; 2.750 metro koadro ditu eta sei milioiko aurrekontua izan du

**J.IRIONDO/M.BIKUÑA** > ARRASATE

Mikro eta nanoteknologian espezializatutakoa da Ikerlan-IK4k astelehenean inauguratu zuen egoitza berria. Garaia Berrikuntza Gunean dago, 2.750 metro koadro ditu eta sei milioi euroko aurrekontua izan du. Egoitza berriarekin, teknologia apurtzaileen alde egindako apustua indartu egin gura du Ikerlanek, enpresei balio berriak eransteko.

**GELA ZURIA**

Ekitaldian egon ziren ahaldun nagusi Markel Olano; Ikerlan-IK4ko presidente eta zuzendari nagusi Txomin Gartzia eta Javier Mendigutxia; ikerketarako estatu idazkari Carlos Martinez; Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburu Bernabe Unda; Mondragon Taldeko presidente Jose Mari Aldekoa; eta CIC Microguneko presidente Manuel Fuentes.

Eraikin berriaren harribitxia 300 metro koadroko gela zuria da, ikerketa zientifiko teknologikoetarako azken belaunaldiko tresneria duena. Hango jardunak gure ekonomian finkatutako sektoreetako produktuetan izango ditu aplikazioak; besteak beste, automobilgintzan, etxetresnen ekoizpenean eta makina-erremintan; eta baita indartzen diharduten sektoreetan ere: osasunean, energian, elikaduraren segurtasunean eta ingurumenean.

DATUA

**2.750**

**METRO KOADRO**

Ikerlan-IK4ko laborategia berriak 2.750 metro koadro ditu. Tartean, azken belaunaldiko tresneria duen 300 metroko gela zuria.

ESANAK

**"Mondragon Taldeko berrikuntza guneak, bihotzean zientzia duten altzairuzko egiturak dira"**

**Carlos Martinez**
> Ikerketarako estatuko idazkaria



Agintari politikoak azalpenak jasotzen egoitza berriko gela zurian. JULEN IRIONDO

etxeko leihotik



**Iban Arantzabal** > 'iarantzabal@goiena.com'

## Espainia Euskal Herrira eta baita aldrebes ere

Uste nuen bestelakoa zela Legebiltzarraren egitekoa. Esaterako: aurrekontuak onartzen zituztela Gasteizen, Eusko Jaurlaritzak egiteko duena bultzatu eta zelanbait kontrolatu ere egiten zutela, behar besteko informazio eta datuak eskatzen dituztela jarraipena egiteko... Baina ez dakit, ba! Beste hainbat eztabaida antzuren artean zer eta txirrindularitza eta futbola mintzagai politikarekin nahasian; non eta Legebiltzarrean. Akabo!

Mintzagai diot, jakitun izango dira-eta Legebiltzarkide jaun-andreak erabakia ez dagokiola Legebiltzarrari: futbolaren kasuan klubek egin behar dutela eskaera; txirrindularitzaren kasuan, aldiz, udalerriek.

Hau da berbagai nagusia Legebiltzarrean? Egia esan, guk geuk ere, hedabideok, badugu horren kulpa. Ez dakit ondo egiten dugun gaia gure hedabideetan aterata zein honen gainean idatzita zutabe honetan. Izan bedi eskaera bat egiteko: Legebiltzarkideok, egizue dagokizuena, legeak egin, kontrolatu eta utzi eztabaidok. Irudi-gai hauei barik jatekoarekin, osasunarekin, lanarekin, hezkuntzarekin, industriarekin, ingurumenarekin lotutako gaiei ebatzeko. Identitarioak alde batera utzita? Bai, zera! Identitarioei ere eutsiz, baina futbolarekin eta txirrindularitzarekin lotutakoetatik haratago, edo, behintzat, hauei adinako denbora eta bonboa emanez. Zer gutxiago!

**"Legebiltzarkideok: egin legeak, kontrolatu Eusko Jaurlaritzaren jarduna"**

**> Espainiako Liga Profesionalean jokatzea ez dago zalantzan, selekziora doaz bertako futbolariak, Errege Kopari zelako jarraipena... Niri ez zait inporta Espainiak hemen jokatzeak beste denak ere ez badu inporta, behinik behin.**

**> Espainiako Vueltan ere parte hartzen dute hemengo txirrindulariek, Espainiako txapeldun maillota ere urte guztian... Niri ez zait inporta Euskal Herrira Vuelta etortzeak beste denak ere ez badu inporta, behinik behin. Hasi bedi etapa Iruñean.**

**ELKARTASUNA** > DEIALDIA

# Arrasateko sei familia Izeba Proiektuarekin

Baketik-ek eguaztenean Kulturaten egindako aurkezpenaren ondoren hartu dute erabakia

**M.B.** > ARRASATE

Arantzazuko Baketik zentroak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak abian jarri duten proiektua aurkezten dihardute herririk herri, eta eguaztenean Arrasaten egon ziren. Baketik zentroko zuzendari Jonan Fernandezek proiektuaren nondik norakoak azaldu zizkien bilerara joandako 15 lagunei; besteak beste, familien betebeharrak zeintzuk diren. Gainera, Arrasaten Izeba Proiektuan parte hartzeko moduan dauden zortzi adin txikiko daudela ere esan zuen. Informazio hitzaldiaren amaieran sei familiak proiektuan parte hartzeko interesa agertu zuten. Gainerakoek informazioa jaso zuten. Hori horrela, antolatzaileek gustura daude hitzaldiak herritarrek artean izan zuen harrerarekin.

Familia horien zeregina izango da gurasoengandik urruti bizi den umearekin osaba-izeba gisa jardutea. Besteak beste, astean behin etxera bazkaltzera edo txango batera gonbidatzea; aldiro telefonoz deitzea; hizkuntza ikasten eta erosketak egiten laguntzea; adin bereko gazteekin harremanetan jartzea; eta arazo pertsonalak edo ikasketekin zerikusia dutenak konpontzen laguntzea. Hau da, adin txikiko horienganako sentsibilitatea garatu gura dute euren seme-alabak izan daitezkeela barnera dezaten.

**FAMILIA-MAPA**

Izeba Proiektuaren helburua da bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren osaba-izeba izan gura duten pertsona eta familia boluntarioen sarea osatzea. Horren harira, dagoeneko zabalik dute izenematea. Interesatuek Arantzazuko Baketik zentrora deitu behar dute (943 25 10 05) urtea bukatu aurretik. Izenematea itxi ondoren, lanean hasiko dira. "Izena ematen duten boluntarioekin familia-mapa egin gura dugu. Zenbat ume dauden eta gurasoak nongotarrak diren zehaztu ondoren erabakiko dugu nolako banaketa egin", esan digu Izeba Proiektuko koordinatzaile Pello Sarasuak.

DATUA

**8**

**ADIN TXIKIKO**

Izeba Proiektuan parte har dezaketen zortzi adin txikiko daude Arrasaten. Horiendako familiak behar dituzte; oraingoz, seik agertu dute interesa.

ESANAK

**"Urtea bukatu aurretik izena ematen duten familiekin eta boluntarioekin familia-mapa egingo dugu"**

**Pello Sarasua** > Izeba Proiektua


Elkarlana
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
+
kutxa
+
ADEGI
+
CAMARA DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA
+
MONDRAGON
+
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
=
gipuzkoa aurrera
Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.
Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-pribatutik elkarlanean ari gara, indarrak eta ahaleginak batuz.
Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.



**zabalik**

**Javier Marcos**

# Futbol-eroak

Atentzioa eman dit azken egunotan *Beckhan* legeak. Existitzen zenik ere ez nekien, egia esateko. Zeresana emango duela uste dut. Hasi da ematen dagoeneko. Funtsean, lege honen bitartez, 2004an indarrean sartu zena, pertsona kualifikatuak ekarri nahi zituzten Espainiara (zientifikoak, ikerlariak, enpresariak, adituak…) abantaila fiskal paregabeak eskainiz. Ez da ideia txarra.

Baina futbol mundua tartean sartu zen, eta akabo! Beckham izan zen lehenengoa (hortik datorkio izena) legeari etekina ateratzen. David *koitaduari* urtean 600.000 euro irabazita %24ko erretentzioa aplikatzen zitzaion, bertakoek %43koa pagatzen zuten bitartean. Orain, Zapatero ari da legea aldatu nahian, denontzako erretentzio bera aplikatzeko, %43koa. Egokitzapena datorren urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartuko da. Eta Astiazaran Futbol Profesionaleko presidenteak, *injustizia* honen aurrean, grebara joateko mehatxua egin du. Ezetz ausartu!

**"Astiazaranek 'injustizia' horren aurrean, grebara joateko mehatxua egin du; ezetz ausartu!"**

Lotsagarria iruditzen zait futbolari batek urteko 1.000 milioi pezeta irabaztea. Munduko onena izanda ere. Zentzugabekeria itzela deritzot. Erotu gara, ala? Eta are gehiago krisi garai honetan. Baina oraindik lotsagarriagoa iruditzen zait fiskalitatean abantailak eskaintzea, berari edo bera fitxatu duen klubari. Ez dauka nondik oratu BEZa igotzea (datorren uztailetik aurrera bi puntu igoko da, %16tik %18ra, zerga horren bidez zor publikoa gutxitzeko) eta goi mailako futbolariei abantaila fiskalak ematea. Zer klasetako *pertsona kualifikatuak* dira futbolariak horrelako pribilegioak izateko? Gutxi daukate ala?

Egin dezatela greba, horrela ezagutuko ditugu futbol-eroen zentzugabeko arrazoibideak!

**usteak uste**

**Mirian Biteri**

# Samurra da gero norbait hiltzea!

Nagore Laffageren hilketaren harira, zinpeko epaimahaiak hartutako erabakiarekin harrituta nago oraindik. Jose Diego Yllanesen defentsak proposatutako aringarriak –alkoholaren eragina, delitua aitortzea, haserrealdia eta kaltea ordaintzeko nahia– kontuan izan ditu eta homizidio delitua leporatu dio. Gehienez, 15 urteko zigorra ezarriko diote. Bai, bai, ondo irakurri duzue! 15 urte; baina 7 ere izan daitezke, defentsak hala eskatuta. Merke irteten da egun norbait hiltzea!

**marrazkiz**

**Alex Ugalde**




**blog-top**

# Zilegitasun premia

**Imanol Murua Uria**
www.berria.info/blogak/imanol

Jakina PSOEko kideek zer jarrera publiko duten auzitegien erabakiei buruz. Erabakia dena delakoa delarik ere, beti auzitegiei eta epaileei errespetua; iritzirik ez, ez goraipatzeko eta ez gaitzesteko ere, errespetua adieraztera mugatu baizik. Baina, hara, Estrasburgoko Auzitegiak Batasunaren legez kanporatzea behin betiko berretsi duenean, erabaki judiziala Eusko Legebiltzarreraino eraman dute, zertarako eta Patxi Lopezen gobernuak zilegitasun osoa duela aldarrikatzeko. Eta, jakina, hala dela erabaki du Legebiltzarrak: gehiengoak erabaki du, gehiengoz, gehiengoaren babesa duela. Baina kontua da ez Estrasburgoko erabakiak ez Legebiltzarreko bozketek ezin dituztela hauteskundeetako emaitzak aldatu: hau da, Lopezen gobernua sostengatzen duten alderdiek 486.493 boto lortu zituztela, legebiltzar barruan oposizioan dauden alderdiek 536.685 bildu zituztela, haien artean inbestiduran botoa Ibarretxeri eman ziotenek 500.312 lortu zituztela eta, legez kanpoko oposizioan daudenek, 100.939, baliogabe guztiak kontuan hartuz gero. Zenbakiokin, ez da harrigarria zilegitasun premian ibiltzea.

# Euskal selekzioak 3 - Españak 0

**Oxel Erostarbe**
www.goiena.net/blogak/oxel

Badira urte batzuk Euskadik 3 eta 1 irabazi ziola Boliviari. Ezkerreko hegalean Bixente Lizarazuk jokatzeak ematen zion izena eta izana gure selekzioari. Gaur UPyDk ekarri du Españako selekzioan gurean jokatzeko proposamena, eta babestu dute PSE eta PPek.

Guk Españako selekzioak gurean partida ofiziala jokatzeko proposamena egin dugu, beti ere Euskadiko selekzioaren kontra bada. Gabonetara begira ez litzake aukera makala: partida ofiziala eta Españaren kontra. Izana topatuta izenak galduko gaitu.

**koplak**

**Enaitz Alustiza**

# SGAE zer den

SGAE zer den esplikatzea
nahi dut norbaitek, mesedez!
Inork ez daki zer diren eta
igual beraiek ere ez.

Ondoriora ailegatu naiz
sinple esateko begira:
"Distraituta egon gaitezen
kobratzen dutenak dira."

"Eta nolatan kobratzen dute,
baina lanik egin gabe?"
"Politika ta justizia ere
daudelako euren alde".

CD, irrati ta telebista,
musika eta liburu
SGAEkoak dirua batzen
egongo dira seguru.

Baina jendeak ez du /
ulertzen
edo ez du ulertu nahi
kantu batean esaten zuten
bezala: "Hik lan ta nik jai".

Taberna, hotel, jatetxeetan,
zure etxean ere bai!
Horiek krisirik zer den /
jakin ez
eta gu berriz ai, ai, ai…

**Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Debagoieneko Eskualde Ospitaleko barne medikuntzan dihardu Iñaki Peñak. Azken 25 urteotako debagoiendarron osasunaren bilakaera aztertu du. Dio aspektu batzuetan hobera egin dugula, baina beste batzuetan, okerrera. Batez ere kezkati da geroago eta populazio gizenagoa daukagulako eta diabetes kasuak hazi egingo direlako. Umeen elikaduraz ere kezkati da.

**Iñaki Peña** > Debagoieneko Eskualde Ospitaleko medikua

# "Gaur egungo umeek orain dela 25 urtekoek baino okerrago jaten dute"

**ENEKO AZKARATE** > ARRASATE

**Iñaki Peña mediku bilbotarrak zortzi urte daroatza Debagoieneko Eskualde Ospitalean, barne medikuntzan. AED elkarteak antolatuta, berbaldia egi zuen astelehenean, azken 25 urteotan gure eskualdean osasunak izan duen bilakaeraz.**



Iñaki Peña, Debagoieneko Eskualde Ospitalean, Arrasaten. ENEKO AZKARATE

**Hemengo osasunaren bilakaeraren gainean egin duzu berba. Zertan oinarritu dituzu azalpenok?**

Gipuzkoako epidemiologia zerbitzukoekin harreman ona daukagu eta hango datuez baliatu naiz azterketa honetarako. Batetik, egin dut eskualdeko ospitaleen gaineko 25 urteko historia; bestetik, aztertu dut urte horietako gaixotasunen bilakaera. Aztertu ditut gaixotasun kutsakorrak, eta hauen barruan, hiesa eta tuberkulosia; gaixotasun kardiobaskularrak, eta minbizia.

**Gaixotasun kutsakorrei dagokienez, zein izan da bilakaera?**

80ko hamarkadan gogor jo zuen hiesak eskualde honetan, batez ere heroina kontsumitzaile asko xiringak konpartitzeagatik kutsatu zirelako. Gaur egun, ostera, sexu bidezko transmisioa da nagusi, batez ere harreman heterosexualetan, hasieran homosexualei gehiago eragin bazien ere. Baina, oro har, gaur egun gero eta hies gaixo gutxiago dago eta daudenak hobeto tratatuta daude.

**Tuberkulosiari dagokionez, Deba ibarrean intzidentzia berezia izan du azkenaldian gaixotasun horrek, ezta?**

Azken bost urteotako datuak aintzat hartuz, Debagoiena da, Goierri eta Debabarrenaren ondoren, tuberkulosi kasu gehien dituen eskualdea. Zergatik? Badakigu etorkinengatik ez dela, hemen etorkin kopurua ez delako horren handia. Azken hiru urteotan bi tuberkulosi mikroepidemia egon dira Arrasaten eta Oñatin. Bi gaixoak sozialki mugan bizi ziren, taberna inguruetan, alkohol eta drogen munduan… Eta bi gaixo horiek sortutako epidemia txikiak tuberkulosi gaixoen kopurua handitzea ekarri du. 80ko hamarkadan tuberkulosiak gogor jo zuen Eibar, Irun, Errenteria inguruetan, baina ez horrenbesteraino gure eskualdean.

**Jende askok uste du Debagoienean beste toki batzuetan baino minbizi kasu gehiago dagoela. Hala da?**

Ez. Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik dago eskualde hau. Gertatzen da, halere, eskualde honetan, Gipuzkoan, Euskal Herrian edo, oro har, herrialde garatuetan, gorantz doala minbizia. Orain, gero eta erretzaile gutxiago dago, eta aurreikusten da tabakoa gutxiago kontsumitzearen ondorioz, hemendik 30 bat urtera jaistea minbizi kasuak herrialde garatuetan. Izan ere, tabakoa da minbizi kasu gehienen eragilerik nagusia. Gizonezkoen artean, minbizi mota ohikoenak dira birika eta kolonekoak, eta emakumezkoen artean bularrekoa eta kolonekoa.

**Zergatik egin du gora minbiziak?**

Oraindik ere, gaur egun, tabakoa da minbizi eragile nagusia. Horrez gain, laneko faktoreak eta ingurumenarekin lotutakoak ere badaude. Klima aldaketaren ondorioz, eguzkiak eragindako azaleko minbiziak gora egin du… Asko dira faktoreak. Teknologia berriekin lotutakoak, eskuko telefonoendako antenak, wi-fia… Oraingoz, susmoak baino ez dira, baina ikerketa batzuek diote horiek guztiak ez direla onak eta apurka-apurka gazteen artean buruko minbizi kasuak ugaldu egin direla. Frogatu bakoak dira, nahiz eta susmoak egon.

TUBERKULOSIA

**"Debagoiena da, Goierri eta Debabarrenaren ondoren, tuberkulosi kasu gehien dituen eskualdea"**

MINBIZIA

**"Minbiziari dagokionez, Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik dago Debagoiena"**

GIZENTASUNA

**"Hamar edo hogei urte barru, pertsona heldu gizen asko izango dugu; kezkagarria da"**

**Azken 25 urteotan gure osasunak hobera ala txarrera egin du?**

Gaixotasun kardiobaskularrak, bihotzekoak eta abar, dira bai Gipuzkoan eta baita herrialde garatuetan, heriotzaren lehenengo eragileak. Eta, gaixotasun horien arrisku faktore garrantzitsuenetakoak dira diabetesa eta gizentasuna. Bada, arrisku faktore horiei dagokienez, okerrera egin dugu, gero eta populazio gizenagoa daukagu eta diabetes kasu gehiago. Ostera, hipertentsioari eta erretzaileen kopuruari dagokionez, hobera egin dugu.

**Eta gero eta populazio gizenagoa izatea arazo bihur daiteke?**

Bai. Elikadurarekin eta bizimodu sedentarioarekin zerikusi zuzena dauka gizentasunak. Azken 15 urteotan hiru bider igo da ume gizenen kopurua. Horrek esan gura du hemendik hamar edo hogei urtera asko haziko dela gizentasun maila eta pertsona heldu gizen asko izango dugula; kezkagarria da. Ordenagailuei, makinei, telebistari… egun santu guztia begira egoteak, kirol edo jarduera fisiko gutxiago egiteak, txarto jateak… dakar hori.

**Elikagaien edo osasunaren gainean gero eta informazio gehiago daukagu, halere.**

Bai, eta pertsona batzuek arduratsu jokatzen dute, baina jeneralean, gehiengoak txarto jaten du eta ez du jarduera fisikorik egiten. Arazoa, kasu honetan, informazioaren jasotzailearengan dago eta gutxiago emisorearengan. Hartzaile gor asko dago jendarte honetan. Orain dela 25 urte edo lehenago, hemen genituen bi telebista kate bakarrik eta horietako batean ematen zuten saio bikain bat: *Mas vale prevenir*. Gaur egun telebista kate askoz gehiago daukagu eta, ostera, ez daukagu haren moduko saiorik. Dago zabor piloa eta jendeak, gainera, nagusiki hori ikusi gura du.

**Hortaz, gaur egun lehen baino okerrago jaten dugu?**

Umeek bai. Helduok okerrago jaten dugun esaten ez naiz ausartzen.

**Eta hori zergatik da?**

Hezkuntza arazoa eta gaur egungo bizimoduaren ondorio da. Gurasoek askoz ere denbora laburragoa ematen dute umeekin. Eta hauei falta zaie erreferentzia nagusi bat. Ez dago inor etxean… Irabazi dugu bizi esperantzan, baina horrek dauka izugarrizko kostua. Bestalde, estresa, depresioak, estutasuna… ugaldu egin dira. XXI. mendeko epidemiak dira. Ez dira kutsakorrak, baina zabaltzen ari dira izugarri.

**Osasun zerbitzuei dagokienez, hobera egin dugu?**

Geroago eta baliabide handiagoak dauzkagu eta geroago eta informazio-kanpaina gehiago egiten da erakundeen aldetik, baina jendarteak autokritika egin behar du hausnartzeko ze balio nagusitzen diren: ea interesatzen zaizkigun klima aldaketa, osasuna, elikagaia… edo zergatik garen horren pasiboak…

# Azpiegiturak: Bergara eta Debagoiena

**Inazio Arriola**
(Bergarako EAJ-PNVko Uri Buru Batzarraren izenean)
Bergara

Gaurko zenbait gertaera bere garaian hartutako erabaki maximalisten ondorio dira; beroien gainean hausnarketa serioa egin behar dugula uste dugu bergararrok eta Debagoieneko biztanleok, orokorrean, eta, hartara, aztertu ahal izango dugu zein ote den geure interesak defendatzeko modurik egokiena.

AHTren (Abiadura Handiko Trena) gainean harridura sortzen digu Bergarako EAJ-PNVko Udal taldeak aurkezten duen mozioa, ibilbidearen marrazketa aldatu nahian, eta honela udalerriarenganako inpaktu-eragina gutxitu asmoz, nola Bergarako Udal gobernuak gelditzen duen, AHTren aurka daudela esanda, eta onartu AHTren aurkako mozioa. Horra, agerira begira egindako politika jarduna, maximalista oso, inora ez garamatzana, azkenean Bergaran, Gobernu taldearen kudeaketa ezin txarragoa dela-eta, izango baitugu izan litekeen ibilbide marrazketarik txarrena. Espero dugu Gasteizko Legebiltzarrean garatzen ari garen kudeaketek egoera birmoldatzen utziko digutela eta ibilbide hoberena bermatu ahal izango dugula.

Dena den, gogora ekarri behar dugu geure herriko alkate andreak, Gasteizerako autobidearen lanak atzeratuta zebiltzanean nola zuen esaten, aipatu obrek ez zutela bera bat ere kezkatzen, autobidearen aurka egon baitzegoen. Agerira, berriro ere, darabilten politika maximalista. Esan bezate Bergara eta Debagoieneko biztanleek aipatu autobidea beharrezkoa ote genuen, eta ingurumenari eragina, zenbaitzuk iragarritakoa hainbat izan ote den.

Eta zer esan Debagoieneko tranbiaz; egungo Eusko Jaurlaritzak atzeratu du obraren egitea, aitzakiatzat hartuta, batetik, egoera ekonomikoa eta, bestetik, aurre-azterketei Arrasate eta Bergarako Udal gobernuen jarrera maximalistak egina dien blokeoa. Orain ematen baitu ezetz, inork baino nahiago dugula tranbia egin dadin. Eta kudeaketa txarrak garamatza hutsera.

Amaierarako utzi nahi izan dugu ona dela iruditzen zaigun berria; ematen baitu izango dugula autobus geltokia Debagoieneko Ospitalean, Arrasaten. Eta kontua ez da Diputazioak eta zerbitzua eskaintzen duen enpresak orain artean egin nahi izan ez dutela, ez horixe!; kontua da, berriro ere, Arrasateko Udal gobernuaren *kudeaketa zuzenak* behin eta berriz blokeatu izan duela, egin zedin autobus ibilbide-marrazkia ospitalerako zerbitzua gauzatu ahal izateko.

Hala egingo ez bada, zalantzan jarri beharko duguna da Ospitalearen beraren kokapena; eraikuntzak berak ederki behar baititu definituta izan nola bertaratu; eta bertaratu ahal izateko nahitaezkoa du zerbitzu publiko egokia eta aparkaleku duina. Eta gaur gaurkoz, ez bata, eta ez bestea.

Bada garaia politika maximalistak alde batera utzi eta garbietara joatekoa; eraginkorrak, errealak eta gaitsuak diren erabakiak hartzekoa eta horiekin aurrera egin.

Eta egun, Debagoienean garatu beharko genituzkeen horiek guztiak egiteko, behar dugu, besteak beste, Mugikortasuneko diputatu Arantza Tapia bultzatzen ari den BRT (Bus Rapid Transit, aurre tranbia) proiektua babestea; honela izango baitugu etorkizun hurbilean Debagoieneko tranbia, non errailetako bat soilik izango den zerbitzu publikoaren erabilerarako. Bailarako eragile guztiek beharko dugu egin indar eta ahalegin norabide berean, oztopo faltsurik ipini gabe, zintzotasuna eredu.

# Pol Pol Mendizale Taldearen arazoak

**Iñaki Mendibil**
(Pol Pol Mendizale Taldea)
Bergara

Bergarako Pol Polen inguruan zabaldu diren zurrumurruak direla-eta, Pol Pol Mendizale Taldetik egoera zein den azaldu nahi dugu:

1. Dakizuen moduan, Komenio kaleko 4an eramaten dugu gure jarduera. Donostiako Apezpikutza da eraikin horren jabea eta sinatuta dugun alokairu-kontratua 2009ko abenduaren 31n bukatzen da.

2. Pol Pol Mendizale Taldeak azpi-errentan dauka emanda lokalaren zati bat, taberna moduan ustia dezaten.

3. Errentariak lokalaren zati horrengatik (tabernakoa) ez dio ordaindu Pol Pol Mendizale Taldeari ezarritako errenta. Hain justu ere, 2008ko azken hiruhilekoari dagokion errenta eta aurtengo urteko errenta zor ditu.

4. Pol Pol Mendizale Taldeak ez dio ordaindu Donostiako Apezpikutzari aurtengo hiru hiruhilekoen alokairua, tabernen errenta ez dugunez jaso ez daukagulako dirurik ordainketari aurre egiteko.

5. Egoera ikusita, dagoeneko hainbat gestio egin ditugu Bergarako Udalarekin, bulegoa jartzeko udal lokalen bat eskuratu ahal izateko.

# Hil aurreko testamentua

**Irene Zenitagoia Arana**
Ubera, Bergara

Uberan jaio, hazi, hezi eta bizi naiz, baina ez dakit zenbat denbora bizirik jarraituko dudan… Zergatik galdetzen egongo zara…

Uberako auzo txiki honetan, arazo handi-handi bat daukagu: gure errepide dontsua, bai, Kormarkal errepidea, auzoaren erdian daukagu eta orain dela 3 urte, errepideko zuloak konpontzeko obrak izan genituen eta obra horretan autoen abiadura murrizteko tontorrak kendu zituzten. Auzoko ume batzuk autoak harrapatu -bat hil eta bestea betirako kaltetuta geratu zeneta istripu gehiagorik ez izateko tontorrak ipini zituzten, eta orain zer?

Autoak sekulako abiaduran pasatzen dira eta, gainera, kontrako bidetik, bidea eta kurba motzagoa egiteko. Ez da denbora asko (3 aste) auzoko ama bere umearekin baserriko bidetik irten ikastolara joateko eta Bergara aldetik zetorren auto batek aurrean eraman zituzten. Bizirik daude. Eskerrak jainkoari!

Udalari urteetan eskatu eta eskatu gaude laguntzeko eta Uberako problema konpontzeko.

Guk, auzotarrok, eskatu dugu mila eta mila aldiz radarrak edo semaforoak ipintzeko. Auzoak ezin du ezer egin Udalak eta Diputazioak ez badute gogorik ipintzen konpontzeko arazo hau. Auzo txikiek ez daukagu zer egin.

2009ko azaroaren 13ko GOIENKARIAn, laugarren orrian, agertzen da azpiegituretarako dirulaguntza emango duela Diputazioak: 418 milioi euro, hainbat bide konpontzeko dira, baina Ubera inon ere ez…

# Amalurra

**Gurutz Garmendia**
Azkoitia

Norberaren jatorriak ezagutuz gero, gaur eguna ere, errazago ulertzen omen da eta, ondorioz, etorkizuna nolakoa izan daitekeen irudikatu. Eta gure historiak 2.000 urte dauzka gutxi gorabehera.

Aditu batzuk idazten hasi zirenetik sartzen gara historian eta mundu ezagunaren data, mendebaldekoan behintzat, hor inguruan kokatzen da. Baina orain badakigu, Kromagnoneko gure arbaso zuzenak, orain dela 40.000 urte inguru iritsi zirela Auñamendiko bi eta isuri eta Kantauriko itsas kostaldera.

Eta, kontuak kontu, 42 urtetako emakumea balitzateke gure egonaldia lur hauetan, jakingo genuke 2 urtetan zer gertatu zen, baina ez aldiz beste berrogeietan.

Asko eta onak dira Euskal Herrian jatorri hauei buruz zerbait gehiago jakin nahian dabiltzanak eta gerturapenak gero eta zorrotzagoak egiten ari dira. Sasoi desberdinak aztertzen dira eta zientzialari bakoitzak bere espezialitatea izaten du.

Beste jende asko bere erara dabil ikerlanak egiten eta euren bizietan pizgarri polita jartzen zeregin hauetan. Natura deitzen den telebistan eman zuten Lascaux edo Lazkaoko leize zuloko gainaldea, ortzi konstelazioetan oinarritzen zela eta agian hantxe bertan hasi zirela ezagutzen gainaldeko berri.

Bestalde, milaka urteetan aurrera eginez, hor daukagu Azkoitia eta Azpeitia artean Munohaundiko hiribildua. Sasoi batean Iraurgiko hiribildua izan zitekeen hiritxo honetan, Burdin Aroko hiribildua dago eta Urola aldeko garrantzitsuena zen. Ia mendixka osoa hartzen dute bertako harresiek eta Iraurgitarrek oso ondo antolatutako herri edo hiria zeukaten.

Majo ezagutzen zuten nekazaritza eta Aranzadikoek egindako irudien arabera, orain dela ehun urte arte, hemen zegoen oso antzeko nekazaritza zeukaten.

Europako mendebaldean oso zabalduta zeuden, gaizki deitutako, zelta erakoa zen herrixka eta arotzak, matxinoak, baserritarrak, gerlariak, aztiak edo sorginak ziren bertako bizilagunak.

Eraikuntzarako zeukaten baliabide nagusia egurra omen zen eta berarekin uste da eraikin bikainak egiten zituztela, baina egurra usteldu egiten da eta ez da haien aztarnarik. Eutsi dion bakarra harria izan da, betiko harri gogorra eta gelditu dena, oso egoera kaxkarrean.

Euskara zen hitz egiten zuten hizkuntza eta hori garbi ikusten da gaur egun dagoen toponimian. Izarraitz itz, harri eta haitzez osatzen baita eta gutxi gorabehera itsas aldeko mendikatea izan daiteke.

Ohitura handia dago, Baskoniako lurraldea ingurune zeltaren barruan sartzeko. Esanez gure arbasoak ez zirela euskaldunak.

Eta arrazoi asko daude euskaldunen jatorriak ezkutatzen ahalegintzeko eta ikusi nahi ez duenak ez du ikusiko. Baina dirudienez, zeltek zuten euskaldunekin lotura handia eta ez alderantziz.

# Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateari

**Pedro Sologaistoa, Jose Antonio Amundarain, Jabi Altube eta Jabier Arana**
(Oñatiko LAB Helduak)
Oñati

Aurretik jakinarazi genuen moduan herriko plazan bildu ginen LABeko Helduak *Udaletxeko ateak herritarroi ireki* lelopean eta helburua herritarren partehartzeari Udal gobernuak eta alkateak emandako ezezko lotsagarriaren kontra protesta egitea izan zen.

Egun horretako GOITBko *Berriak* informatiboan, Lourdes Idoiaga alkate andereak esan zuen gai bereziak eta delikatuak direla Gizarte batzordean erabakitzen direnak eta diskrezio handia eduki behar dela kontu hauekin.

Orduan, zuhurtziaz jokatzeko ahalmena Lourdes Idoiaga alkateak eta bere ingurukoak bakarrik ote dute ba…., eta besteok zer gara ba mihiluzeak, lagun hurkoaren arazoak lau haizetara zabaltzen ditugunak… Ez, ez gara arduragabeak, badakigu pertsonaren nortasuna zaintzen eta errespetatzen.

Bestalde, Gizarte batzordeko gaiak bereziak eta delikatuak direla-eta, esan nahi dizugu pertsonok gure bizitzan ditugun gorabeherak tratatzen direnean, ez dago esan beharrik, arduraz eta errespetu handiz jardun behar dela, baina zu alkate Anderea, ez zaitez etorri besteei moral klaseak ematera gure eskaerari emandako ezetzak salatzen zaitu-eta.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**



**> BERGARA**
Biko tabernak irabazi du pintxo lehiaketako sari nagusia > 17



**> ARETXABALETA**
Jose Joakin Arinen omenezko kantaldia egingo du abesbatzak > 22




**> ESKORIATZA**
Herriko toponimia 'Eskohitza.com' webgunean ikus daiteke > 28



**> ARAMAIO**
Itxura ederra dauka Santikurtz ermitak auzolanen ondoren > 32

**OÑATI** > ERLIJIOA

# Oñatiko parrokia Filipinetan hartuko duten erabakiaren zain dago

**MIKEL AOZARATZA**
Oñatiko santua Filipinetako Balanga Elizbarrutiko zaindari egin gura dute hango arduradun batzuek

**HANGO EKIMENA**
Filipinetako Balangako Elizbarrutiko ordezkariek proposatu dute, eta Oñatin pozik hartu dute

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Berri pozgarriak ailegatu dira Oñatira Filipinetatik: Oñatiko santua, Mikel Aozaratza, Filipinetako elizbarruti bateko zaindari aitortu gura dute. Mikel Aozaratza (Oñati, 1598-1637) Filipinetan izan zen misiolari urte batez, Japoniara joan aurretik beste misiolari dominikar eta laikoekin batera. Zehazki, Filipinetako Bataan delako probintzian dagoen Balanga Elizbarrutiko zaindari aitortu gura dute.

Oñatin oso pozik hartu dute berria, are gehiago Filipinetan sortutako ekimena izan delako, Oñatiko parrokoak, Joxan Larrañagak dioskun bezala: "Dominikar batek idatzi zidan, zeukaten asmo horren berri emanez eta Mikel Aozaratzaren bataio agiria, herriko argazkiak... eskatzen. Mikel Aozaratzaren historia ere bazekien".

Orain, itxoin beharra dago, Balangako Elizbarrutian gotzain aldaketa egitekotan daudelako, eta gotzain berriak hartu beharko duelako behin betiko erabakia. "Haien esku dago dena", esaten du Joxan Larrañagak.

**ILUSIONATUTA**

Elizako ordezkariok albiste hori "benetan pozgarria" dela esan dute, eta fededunek ere "ilusioz" hartu dute, Larrañagak dioen moduan. Mikel Aozaratzaren eguneko mezan esan zien Larrañagak mezetan batutakoei Filipinetan zuten asmoa, eta jendeak "komentatu eta galdetu" zuen meza ostean. Izan ere, herrian oso pertsonaia berezia eta maitatua da Mikel Aozaratza, Oñatiko santua: haren jaiotetxean, Triana auzoan, kaperatxo bat egin zen bere egunean, eta han, pasatzen den orok ikusteko moduan, leiho batek babestuta, egur trinkozko haren irudia dago ikusgai. Irudi hori Corpuseko prozesioan ateratzen dute, gainerako santuen irudiekin batera. Horrez gain, Oñatiko parrokian, Mikel Aozaratzaren horma-irudia dago; irudi nagusiaren inguruan, Japonian, kristau fedea eta Ebanjelioa predikatzearren eta hari uko ez egitearren jasan zuen martirioa kontatzen da. Kontakizunak dio "oñatiarra poz-pozik eta irribarrez" zihoala urkamendira zeramatenean.

Japonian gertatutakoa gogoratzen da gehienbat, baina Japoniara joan aurretik, Filipinetan ere misiolari izan zen Mikel Aozaratza. Gaur egungo Filipinetan kristautasuna da erlijio zabalduena: populazioaren %90 baino gehiago kristauak dira, eta populazioaren %80, katolikoak.

**HEMEN ERE OSPATUKO DUTE**

Oñatiko santua Filipinetan zaindari egiten badute, Balangako Elizbarrutian "bere egunean jai hartuko dute, eta otoitzetan ere gogoan izango dute; beharbada, bederatziurrena ere egingo diote. Horrez gain, elizaren izenaren ondoan, haren izena ipiniko dute", kontatzen digu parrokoak. Oñatin ere ospatuko dute. "Beharbada" bidaiaren bat ere antola daiteke, horretarako nahikoa diru baldin badago. Ikusiko da.

Mikel Aozaratzak jarraipena du Bataanen eta Filipinetan ere; esanguratsua da santu aitorpena Manilan egin izana 1987an Juan Paulo II.ak –Aozaratzarekin batera, garai hartako beste hainbat martiri aitortu zituen santu. Balangako San Jose Katedral aurrean tamaina naturaleko 15 santuren eskulturetako bat harena da.



Mikel Aozaratzaren jaiotetxeko kaperan, Jose Ramon Erostegi zaintzailea eta Joxan Larrañaga parrokoa. LEIRE KORTABARRIA

MIKEL AOZARATZA (1598-1637)

## "Hauek dituk krabelin politak!"

Mikel Aozaratza 1598an jaio zen, Triana auzoan; gaur, haren izena darama kaleak. Fraide dominikar egin zen Gasteizen. Garai hartan, Filipinetan, Txinan eta Japonian ebanjelizazio misioak egiten ziharduen Eliza Katolikoak. Japonian, kristauen aurkako jazarpena beldurgarria zen, eta hainbat fraidek martirioa jasan zuten. Hildakoak ordezkatzeko, fraide gehiago bidaltzen zituzten, eta Filipinetatik abiatu ziren 1636an Aozaratza, Gonzalez eta Courtet fraideak. Okinawara ailegatu eta segituan preso hartu zituzten, eta Nagasakin epaitu, torturatu eta hil egin zituzten. Aozaratzaren martirio ikaragarria irudikatzen duen horma-irudia dago Oñatiko parrokian. Kontakizunek diotenez, alanbreak sartzen zizkieten azazkal artean, eta Aozaratzak, atzamar handitu eta odolduak ikustean, esaten zuen: "Hauek dituk krabelin politak!"

Mikel Aozaratza santu aitortu zuen Juan Paulo II.ak 1987an, eta haren eguna irailaren 28an ospatzen dute, San Migel Goiaingeruaren egunaren bezperan. Mikel Aozaratzaren gainean gehiago jakiteko: *Erkizia eta Aozaraza, bi martiri gipuzkoar santu* (Jose Ignacio Telletxea Idigoras).

LABUR

## Nekazaritzatik bizi den lurraldea

Balanga hiria (Erdialdeko Luzon) Bataan probintziako hiriburua da. Bigarren mailako hiria da Filipinetan. 84.105 biztanle ditu. Jarduera nagusia nekazaritza da, baina komertzioak gero eta pisu handiagoa du. Bataanek osatzen duen penintsula txikian ekintza asko egin ziren II. Mundu Gerran.

Balangako Elizbarrutia 1975an sortu zuten, eta Bataango probintzia osoa hartzen du, 34 parrokia eta bi kapilautzarekin, eta Balangako San Jose Katedrala da bere etxea.




Amaia Arantzabal, Ibai Arteko presidentea, elkarteko bazkide txartelarekin eskura daitezkeen oparien katalogoa eskuetan duela. TXOMIN MADINA

**OSPAKIZUNAK** > GABON JAIAK

# Gabonetan kanpaina ona egiteko esperantzarekin daude dendariak

Ibai Arte merkatari elkarteko saltokietan Gabonetako loteria banatuko dute bezeroen artean, abenduaren 6-8ko zubiaren ostean

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Goizegi iruditu arren, askoren begirada eta lana dagoeneko Gabonei begira ipinita dago; baita Ibai Arte merkatari elkarteko kideena ere.

Dagoeneko iragarri dute Gabonetako loteria banatuko dutela bezeroen artean, abenduaren 6-8ko zubiaren ostean. "Gure dendetan bezeroei emango diegu loteria partizipazioa, eta espero dugu zerbait tokatzea, azken urteotan, behintzat, itzulketa tokatu da-eta", kontatu du Arantza Arantzabalek, Ibai Arte elkarteko presidenteak.

**APARTEKO PAGAREN MENPE**

Kontatu du, baita ere, Gabonetako bolak ipiniko dituztela: argitxoak, hain zuzen, iazko berak: "Prest daude; bolak ipintzen dituztenak kontratatuta daude eta nahiko bizkor hasiko dira, hurrengo astean-edo, 160 bolatik gora daude-eta ipintzeko. Dena den, piztu abenduko zubiaren ostean piztuko ditugu", dio elkarteko ordezkariak.

Bestalde, Gabonetako kanpainari dagokionez, saltzaileak esperantzatsu daudela azpimarratu du; betiere, aparteko pagarik egon edo ez, horrek zerikusi handia izango duela pentsatzen dute: "Abenduko aparteko paga egongo da, eta horrek jendeari lagunduko dio gauzak erosteko orduan. Nik espero dut ondo joatea eta jendea animatzea apurtxo bat, ze, esaten dutenez, badoaz pixkatxo bat gauzak konpontzen… ea egoerak laguntzen duen eta gauzak ondo doazen".

**OPARI KATALOGOA, LASTER ETXEAN**

Merkatari elkartearen beraren eskaintzari dagokionez, berriz, Arantza Arantzabalek adierazi du elkarteko txartelaren kanpainarekin segituko dutela: "Azken hilabeteotan jendea dabil irabazten diru-txekeak (10-20-50 eurokoak) eta horrekin jarraituko dugu abenduan. Eta gero, abenduaren 15ean egingo dugu Kanariar irletarako bidaiaren zozketa. Jendeak horiek gauzok badakizki eta txartela erabiltzen du geroago eta gehiago".

Ibai Arteren bazkide txartelarekin segituz, elkarteko presidenteak iragarri du oparien katalogoa dagoeneko iritsi dela. Hau da, txartelarekin ordainduta eskuratzen diren puntuengatik trukatzeko oparien katalogoa. "Saltokietan badaude eta, datozen egunotan, Caja Ruralek etxez etxe banatuko ditu", aditzera eman du.

Ibai Arteko presidenteak gaineratu du katalogo horretan egongo direla, "alde batetik, opariak eta bestetik, diru-txekeak". Txekeei dagokienez, edozein saltokitan truka daitezke: "Pertsona batek 200 puntu dituenean joan daiteke Caja Ruralera eta 10 euroko txekea eskuratu. Txeke hori edozein dendatan alda daiteke, beherapen moduan. Edo bestela, katalogoko opariren bat gustatzen bazaio, Caja Ruralera joan, han txekea egingo diote eta gero hori saltokian trukatu egiten da. Gauza piloa daude".



Ama eta alaba, barraketan, santamasetan. SERGIO AZKARATE

## Barrakak San Andres auzoan ipiniko dituzte

Santamasetan eta Gabonetan etortzen diren barraken gaineko erabakia hartuta dauka Udal Gobernuak: San Andres auzoan ipiniko dituzte, Maiatzaren Bata plazan. Udal Gobernuaren helburua da barrakek han jarraitzea. "Plaza hura horretarako prestatu zen, eta, aldiz, ez dakigu Biterik zenbat euts dezakeen, azpian garajeak dituelako", azaldu dute udal iturriek.

Bestalde, Gabonetako argiekin Udalak ez du aparteko gasturik egin gura; hain zuzen, asmoa da ez gastatzea iaz baino gehiago. Hiru kantoietako arkuetan eta herriko beste punturen batean ipini gura dituzte. Edozelan ere, gaia oraindik Tokiko Gobernu Batzordetik pasatu barik dago.

GABONETAKO OPARIAK

## Zuberoako otarreak salgai izango dira

Zuberoako ikastolen aldeko Gabonetako otarreak erosteko eskaintza egin dute Alozeko Basabürü eta Sohütako Eperra ikastoletako guraso elkarteek. Otarre bereziak dira, Zuberoako produktuak dituztenak: ardi gazta kilo bat, 500 gramo akazia ezti; ahate gibelarekin egindako 200 gramo pate eta etxean egindako bizkotxo poltsa. Hori guztia zumez egindako otarre batean prestatuta salduko dute, 39 euroren truke.

Halako otarre bat erosi gura duenak azaroaren 25a baino lehen egin beharko du eskaera: *zuberoako.ikastola1@orange.fr*. Eta gero, dirua sartu, honako kontu korronte zenbakian: 3035 0036 19 0360056389

Otarreak abenduaren 12an ekarriko dituzte gurera, eta, eskatutako otarre kopurua handia bada, eskatzailearen etxera bertara eramango dute; otarre kopurua txikia bada, berriz, Bedoñako Iturralde etxean jaso beharko dira.

**NEKAZARITZA**

## Ortuen jabeei bihar entregatuko dizkiete giltzak

Behin giltzak entregatuta, bihar bertan estreinatu ahal izango dituzte ortu publikoak

**U.M.** > ARRASATE

Garagartzako 80 ortu ekologikoak bihar, zapatua, entregatu behar dizkiete ugazaba berriei. 09:30erako egin dute hitzordua, "inaugurazio ofiziala" egiteko. Ekitaldian parte hartuko dute politikariek eta Ingurumen Saileko ordezkariek; besteak beste, Rafael Uribarren Nekazaritza diputatua eta Ino Galparsoro alkatea izango dira ekitaldian. Ostean, 11:00etan entregatuko dituzte aurrenengo 40 ortuak eta gainerako 40en entrega ordubete geroago egingo dute. "Ortuetako giltzak emango dizkiete; kasu honetan, txartel elektronikoak. Ortuak zenbakien arabera banatuta daude, eta herritar bakoitzak badaki zein tokatu zaion", jakinarazi du Pello Garaik, Udaleko Ingurumen Saileko teknikariak.

Gaineratu du "multzoka" banatu dituztela ortuok: "Biltegitik gertu daudenak pertsona nagusien artean banatu ditugu eta urrutiren daudenak gazteagoen artean".

Behin ortuak entregatuta, bihar bertan hasi ahal izango dira erabiltzen.

**UDALTZAINEK ZABALDU**

Bihartik aurrerako funtzionamenduari dagokionez, berriz, udaltzainak arduratuko dira ortuen gunea zabaldu eta ixteaz. "Neguan 09:00etatik 19:00ak arte eta udan, berriz, eguzki argiarekin antolatuko dugu ordutegia", azaldu du Pello Garai teknikariak.

## oharrak

KINTOAK

**> 1955ean jaiotakoak**

Azaroaren 28rako egin dute hitzordua 1955an jaiotakoendako. Baster-Alden bazkaria egitekotan geratu dira. Iragarri dute autobusa izango dela hara joateko. Izena emateko azkeneko eguna da azaroaren 25a. 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontu korrontean: 3035 0202 75 2021035610.

## oharrak

AED-REN EKITALDIAK
**> Hitzaldiak eta ospakizunak**

Oraingo astean lan eta lan ibili arren, datorren asterako ere mordoa bat ekitaldi iragarri ditu AED elkarteak. Adibidez, astelehenean, osasunaren gaineko zikloa amaitzeko, Joseba Bidauzarragak hitzaldia egingo du, 18:30ean, Kulturaten. Martitzenean, berriz, historia kontuak izango dituzte protagonista, Anabel Ugalde historialariaren eskutik. San Andres auzoa oinarri hartuta, auzoaren historiaren gaineko azalpenak emango ditu, San Andresko parrokiako lokaletan. Eta bukatzeko, AEDk iragarri du datorren zapatuan, azaroaren 28an, San Andres eguna ospatzeko asmoa dutela. Saiheski dastatzea, umeendako txokoa (Gudari plazan) eta kantu txikiteoa iragarri dituzte, besteak beste.

GAZTE BULEGOA
**> Ikastaroak**

Bitxigintza eta txerri-dantza ikasteko ikastaroak iragarri ditu Udal Gazte Bulegoak datorren asterako. Bitxigintza ikastaroak "Gabonetan norberak egindako bitxiak oparitzeko aukera paregabea" ematen duela dio Dorleta Kortazarrek, Udaleko Gazte Bulegoko arduradunak. Eguenetan, 18:00-20:00 izango dira eskolak, Kulturatenm, azaroaren 25ean hasita, Dunixe Royoren eskutik. Txerri-dantzaren eskolak azaroaren 20an hasiko dira, eta egubakoitzetan izango dira, 19:00etatik 20:30era, Lore Gazteak taldearen eskutik. Bikote mistoak gura dituzte.


Iazko azokan 160 jostailutik gora batu eta ia 100 trukatu zituzten. GOIENKARIA

AISIALDIA > AZOKA

# Datorren astean hasiko dira jostailuak batzen, trukerako

### Bihar, zapatua, berriz, euskarazko jostailuen erakusketa ipiniko dute Jokin Zaitegi aretoan

UBANE MADERA > ARRASATE

Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan egin dute hitzordua euskarazko jostailu azokarako, biharko, zapatua, 10:00etatik 13:00etara. "Gabonak gerturatzen ari dira eta sarritan, jostailuak aukeratzeko orduan, telebistako iragarkietan bakarrik oinarritzen gara eta euskarazko jostailu eta produktuak egon badaudela ahazten dugu", azaldu dute Txatxilipurdi elkartekoek, erakusketaren antolatzaileek. Erakusketan izango dira 3-5 urte bitarteko haurrentzako jostailuak, 6-8 urte bitartekoendakoak eta 9 urtetik gorakoendakoak, multzotan sailkatuta. "Sailkapen horiez gainera, jolas kooperatiboen txokoa eta txoko digitala era egongo da", iragarri dute, eta baita ere euskarazko produktuen katalogoa eskuragarri ipiniko dutela.

**JOSTAILU TRUKE AZOKA**

Bestalde, Txatxilipurdi elkarteak iragarri du, baita ere, seigarren urtez jostailu truke azoka antolatu dutela.

## Auzoz auzoko egutegia

**Azaroaren 23a**
Arimazubi plazan
**Azaroaren 24a**
Santa Marinako ludotekan
**Azaroaren 25a**
Biteri plazan
**Azaroaren 30a**
Okendoko ludotekan
**Abenduaren 1a**
Arimazubi plazan
**Abenduaren 2a**
Santa Marinako parkean
**Abenduaren 9an**
Santa Marinako ludotekan
**Abenduaren 10ean**
Okendoko ludotekan
**Abenduaren 11n**
Arimazubi plazan

**AUZOZ AUZO BATUKO DITUZTE**

Datorren astean hasi eta hurrengo hiru asteetan auzoz auzo ibiliko dira jostailuak batzen. "Jostailu guztiek balio bera izango dute; baldintza bakarra da ondo egotea, eta osorik. Ez da onartuko sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerarik erakusten duten jostailurik", azaldu du Txatxilipurdik.

Jostailuen truke txartelak emango dizkiete parte-hartzaileei, eta gero, Jostailu Truke Azoka egiten dutenean, txartel hori eraibilita beste jostailu bat eskuratu ahal izango dute.

**AZOKA OKENDOKO LUDOTEKAN**

Abenduaren 13an, zapatua, egingo dute Jostailu Truke Azoka Okendoko ludotekan, 10:00etan hasi eta 14:00ak bitartean; bereziki ume eta gazteak gonbidatu gura dituzte azoka horretan parte hartzera.

HITZALDIAK

# Masajeen gaineko azalpenak AUKEAn

### Gabonak bitartean eguaztenero hitzaldia egingo dute, iluntzean, Musakolan

U.M. > ARRASATE

Thailandiako masaje tradizionalarekin segiko dute datorren astean masajeen gaineko hitzaldi zikloa, azaroaren 25ean, eguaztena, 19:15etik 20:30era bitartean. "Yoga, digitopresioa eta meditazioa moduko ekialdeko diziplinak uztartzen dituen masaje mota da masaje thailandiarra. Eskuekin eta oinekin egindako presioan oinarritzen da, luzamendu ariketak eta beste", azaldu du Jose Luis Abuin masaje profesionalak.

**ABENDUKO HITZORDUAK**

Hurrengo hitzordua egin dute abenduaren 2rako. Egun horretan, "oinarrizko manipulazioak eta masajeetan egiten diren luzamenduak" landuko ditu Abuinek.

Bestalde, abenduaren 9an erreflexologia, automasajea eta digitopresioa zer diren azalduko du.

Abenduaren 16ari dagokionez, erlaxazio masajea izango du berbagai.

Eta hitzaldi zikloa bukatzeko, *Auto-zaintza, masaje eta teknika naturalak* gaia landuko dute.

# Urbia inguruan mendi buelta

Ederki asko ibili ziren Urbiara Arizmendirekin egun-pasa joan ziren guraso eta seme-alabak. 95 lagun elkartu ziren, guztira. Eta iragarri dute hemendik aurrera beste bost irteera egiteko asmoa dutela. Lehen Hezkuntzako familiei dago zuzenduta ekimena.


ARIZMENDI

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

PUB HAIZEA
arrasate

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82


Goikobalu Gazte taldekoek Rakel Murgiondoren zuzendaritzapean jardungo dute. GOIKOBALU

**MUSIKA** > ABESBATZAK

# Batera abestuko dute Goikobaluko lau taldeek

San Juan elizan abestuko dute urteurreneko azken emanaldian abesbatza guztiek

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Bi urtemuga ospatzen dihardute Goikobalun: Goikobalu abesbatzaren 20. urteurrena eta Goikobalu Txikiren 15. urtemuga. Hori dela eta, urrian eta azaroan barrena hainbat ospakizun egin dituzte eta azkena gaur, egubakoitza, egingo dute San Juan parrokian, 20:00etan.

Emanaldi horretan Goikobalu osatzen duten talde guztiek hartuko dute parte: 4 eta 6 urte bitarteko tailerreko haurrek, Goikobalu Txiki abesbatzak, Goikobalu Gazte abesbatzak eta Goikobalu abesbatzak.

Talde bakoitzak bere kantu saioa eskainiko du, gehienek pianoaren laguntzarekin, eta kontzertuaren amaieran talde guztiek batera abestuko dituzte azken bi kantuak.

**HAURRAK ETA GAZTEAK**

Kontzertua Goikobaluko tailerreko haurrek hasiko dute. Txikienek Pirritx eta Porrotxek ezagun egin duten *Epo e ta ta ie* abestia eskainiko dute Maialen Gonzalezen zuzendaritzapean.

Goikobalu txikiko neskamutikoek Amaia Aboitiz izango dute zuzendari. Pianoan Rakel Murgiondo dela, honako lau kantuak abestuko dituzte: X. Sarasolaren *Binbili bonbolo*; *Mungu* kantu afrikarra; J. Elberdinen *Jostailu egilea;* eta F. Churchillen *Hei ho!*

Gazteen taldekoek X. Sarasolaren *Uso Xuria*, J. Estesen *Kyrie*, F. Escuderoren *Izar ederra*, *Nesipono*no abesti zulua, R. Emersonen *Child of Kwanzaa* eta A.E. Naplanen *Hine Ma Tov* abestiei ipiniko diete ahotsa, Rakel Murgiondok zuzenduta. Musika, berriz, Jagoba Astiazaranek jarriko du pianoarekin lagun eginez.

Goikobalu abesbatzakoek, nagusienek, sei abesti eskainiko dituzte, Iñaki Maidaganek zuzenduta: *Kantuz*, *Ikusten duzu*, *Maitasun atsekabea*, *Alla va un encobijado*, *Penas* eta *Arroz con leche*.

**URTEURRENERAKO ABESTIA**

Azkenik, kontzertuari eta azaroko musikaldiari agur borobila emateko, talde guztiek elkarrekin bi abesti eskainiko dituzte: *Tutira mai* eta *Bi begirada, zeru bat*. Azken kantu hori, gainera, Jagoba Astiazaran gazte zestoarrak Goikobaluko XX. urteurrenerako propio konposatutako kantua da eta egun horretan egingo dute estreinaldia. Abesti horretan lagun izango dituzte Olatz Amozarrain txirularekin, Asel Errasti eta Antxon Peña pekusioan eta pianoan Rakel Murgiondo eta Maialen Gonzalez.

**E. Urrutia eta M. Arratibel** > Abeslariak

# "Agertoki gainean egoten ikasteko balio izan digu txapelketak"

I.A. > ARRASATE

**Aste bukaeran, Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finalean Eneritz Urrutia eta Maialen Arratibel bigarren izan ziren bikoteka.**

**Noiztik abesten duzue batera?**

Goikobalun elkarrekin abesten genuen eta, gero, gitarra jotzen hasi ginen. Batera, bi ahotsetara, abestiren bat edo beste kantatzen hasi eta txapelketara aurkeztu gara.

**Aurten lehen aldiz?**

Ni [Eneritz] aurrez aurkeztua nintzen taldeka, baina Maialenek aurtengoa zuen lehena.

**Nolako esperientzia izan da?**

Bikoteka taldeka baino ardura handiagoa izaten du norberak, baina agertoki gainean egoten ikasteko balio izan digu.

**Zein abesti kantatu dituzue?**

Etzakit taldearen *Urrun izan arren* eta Maixa Lizarribarren eta Kristina Solanoren *Lehen dantza*.

**Arrasateko saiotik finalera alde handia izan zen?**

Herrian jendearen babesa handiagoa izan zen eta ziurtasun handiagoarekin jardun genuen; Donostian beste batzuek jarraitzaile gehiago zituzten.

**Aurrerantzean elkarrekin jarraituko duzue?**

Noizean behin elkarrekin abestuko dugu eta bion artean kantu berriak egiten saiatuko gara. Santamasetako trikiti eskolakoen jaialdian bi kantu eskainiko ditugu, eta, beste proposamenik jasoz gero, gustura abestuko dugu.



Eneritz Urrutia eta Maialen Arratibel, Amaia antzokian. MAIDER ARREGI

> MUSIKA

## Kanadako The Saint Alvia Carter eta Arrasateko Dirty Brothers, Hiru aretoan bihar, zapatua

Bihar, zapatua, kontzertua izango da Hiru aretoan, 22:30ean. Kanadako The Saint Alvia Carter taldeak punk-rock doinuak ekarriko ditu Arrasatera. Bestalde, Dirty Brothers-ek eta RIPeko Julek Stiff Litle Fingers eta The Clash taldeen bertsioak eskainiko dituzte. Sarrerak aretoan erosi ahal izango dira egun horretan sei euroren truke.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

IAMAI ANTZOKIA
kafe
ARRASATE
Gaur Azaroak 20
00:00etatik aurrera
Kike Viguri
Umorezko bakarrizketa


islada
ile apaindegia
SPA masajeak, sentsazio erlaxatua eta berriztua.
Uribarri etorbidea 6 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: *isladaileap@hotmail.com*

## Zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Katenatxio-Lasagabaster | 3-5 |
| Steaua del Grifo-Dribling | 0-17 |
| Abokajarro-Dublin | 4-5 |
| Iriztu-Aldapa | 6-1 |
| Iluntz-AT Celaya | 3-7 |
| Komando Alpargat-McAwen Dauen | 3-6 |
| Betrayer-Ekaitz | 5-4 |
| Fidel & Disc-Cipris | 3-2 |

**PARTIDUAK**

| Azaroak 21, zapatua | EPAILEAK |
|---|---|
| **10:30** Betrayer-Cipris | **Ekaitz** |
| **11:30** Ekaitz-Lasagabaster | **Betrayer** |
| **12:30** Fidel & Disc-Dribling | **Iriztu** |
| **16:00** Katenatxio-Dublin | **Steaua del Grifo** |
| **17:00** Steaua del Grifo-Aldapa | **Katenatxio** |

| Azaroak 22, domeka | EPAILEAK |
|---|---|
| **10:30** Abokajarro-AT Celaya | **Iriztu** |
| **11:30** Iriztu-McAwenDauen | **Dribling** |
| **12:30** Iluntz-Komando Alp. | **McAwen Dauen** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Dribling | 12 | 4 |
| 2. | Betraye | 12 | 4 |
| 3. | Dublin | 12 | 4 |
| 4. | Iriztu | 7 | 4 |
| 5. | Cipris | 7 | 4 |
| 6. | Lasagabaster | 7 | 4 |
| 7. | Fidel & Disc | 6 | 4 |
| 8. | Abokajarro | 6 | 4 |
| 9. | Ekaitz | 6 | 4 |
| 10. | McAwenDauen | 5 | 4 |
| 11. | AT Celaya | 5 | 4 |
| 12. | Iluntz | 3 | 4 |
| 13. | Komando Alpargat | 3 | 4 |
| 14. | Aldapa | 1 | 4 |
| 15. | Katenatxio | 0 | 4 |
| 16. | Steaua del grifo | 0 | 4 |

### Aldaketa bat dago hasierako egutegitik

Aurtengo txapelketan ondo dakizue ligaxkako partidu guztien ordutegiak dagoeneko finkatuta daudela –Zaldibarko webgunean dituzue ikusgai–, baina antolatzaileek aldaketak onartzen dituzte. Hala, oraingo asteburuan aldaketa bat dago, Fidel & disc. taldeak eskatuta. Horrenbestez, kontuz hasierako egutegia itsu jarraitzearekin, nahiz eta webgunean ere oharra jarri duten.

### Bolada txarrean dago Steaua del Grifo taldea

Steaua del Grifo taldeko mutilak burua altxa ezinka dabiltza. Orain dela 15 egun zigorra jaso zuten partidura lau jokalari baino agertu ez zirelako. Hori zuzentzeko asmoarekin jokalariek konpromiso handiagoarekin hartu dute txapelketa, eta joan den astean zortzi lagun zituzten ordezkoen aulkian, aldaketak egiteko gertu. Eta hala ere, Driblingek errepaso ederra eman zien, 17 gol sartuta.

Zapatu arratsaldean ligako lehen garaipena eskuratzeko lehian ibiliko dira Aldapa eta Steaua del Grifo (17:00).

**SASKIBALOIA** > OINTXE!

# Selekzioarekin jokatuko dute Xabier Igoak eta Unai Barrenak

Euskadiko Txapelketa prestatzeko Gipuzkoako selekzioarekin lehiatuko dira domekan; MUk, berriz, EHU Araba hartuko du bihar Iturripen


Unai Barrena, kontrarioari presio egiten. OINTXE!


Xabi Igoa, saskira jaurtitzeko gertu. OINTXE!

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Abenduaren 4an 5ean eta 6an Eskoriatzan egingo duten Euskadiko saskibaloi txapelketa prestatzeko, Gipuzkoako selekzioak lagunarteko partidua jokatuko du domekan lehenengo nazional mailako Easoren kontra –aurreko entrenamendu saioa 16:45ean hasiko dute–. Eta selekzioko hautatzaile Telmo Asurmendik Ointxe! klubeko Xabier Igoa eta Unai Barrena izango ditu eskura. Hautatzaileak Martxel Balantzategi eta Iker Barbero ere domekako partiduan nahi zituen, baina bi jokalari horiek ikas bidaia dute.

**KADETEAK ERE SELEKZIOAN**

Kadete mailako Alex Lorenzo eta Mikel Atxa ere Euskadiko selekzioarekin jokatzeko lanean dabiltza. Ointxe!-ko bi jokalari horiek datorren astean egingo dute selekzioarekin jokatzeko entrenamendu saioa.

GABONETAKO 2. SASKIBALOI TXAPELKETA

### Geroago eta babesle gehiagoren bultzada

Ointxe!-k Gabonetan antolatuko duen saskibaloi txapelketa geroago eta indar handiagoa hartzen dabil, astero-astero kluba babesle berriak aurkezten dabil-eta. Berri pozgarria da hori, kontuan hartuta gaur egungo egoera ekonomikoa zein den.

Abenduaren 25ean hasiko dute txapelketa, eta bertan sei taldek hartuko dute esku. A multzoan MU, Clavijo talde errioxarra eta Euskadiko selekzioa lehiatuko dira eta B multzoan egongo dira Aragoiko Cai Zaragoza, Bartzelonako Cornella eta Pontevedrako Peixegalego. Txapelketarako kamisetak ere atera dituzte, Monten eta Basatin salgai.

**MU-K EHU ARABAREN KONTRA**

Selekzio kontuak alde batera utzita, lehen nazional mailan MUk EHU Araba taldearen bisita izango du bihar Iturripen (18:00). Joan den astean zuri-moreak 87-60 galduta itzuli ziren Viajes Marfil taldearen kantxatik, eta aste barruan Javi Zurbanok argi eta garbi adierazi du taldeak defentsan lan zorrotzagoa egin beharko duela, bestela ez dago-eta partidurik irabazterik.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Ford Mugarri Arrasatek Musakolan jokatuko du zapatuan Sucesores de Agirreren kontra

Joan den astean galdu zuen Edu Orgazek ligako lehenengo partidua; biharko kontrarioa seigarren dago sailkapenean


Xabi Altzelai, Portugaleteren kontrako partiduan. J.A.

**X.U.** > ARRASATE

Bederatzi jardunaldi behar izan ditu Ford Mugarri Arrasatek ligan lehenengo partidua galtzeko. Lehenago edo geroago gertatu beharreko zerbait zen hori, eta orain, goian dauden gainontzeko taldeekin parekatu dira Arrasatekoak; porrot kopuruei dagokienez bai, behintzat. Edu Orgazen mutilak laugarren daude sailkapenean, Barakaldorekin berdinduta (14 puntu), eta liderra –Egia– bi puntura dago.

Joan den asteko partiduan detaile txikiek erabaki zuten partidua. Joko azkarrean murgildu ziren bai Egia eta baita Ford Mugarri, jokaldi azkarrak batera eta bestera, eta hor, azken minutuetan Egiakoek hobeto amaitu zituzten jokaldiak (38-35).

Biharko kontrario Sucesores de Agirrek errepaso polita eman zion joan den astean Urolari (39-24), kategoria galtzeko hautagai nagusietako bati. Bada, ea bihar Arrasatekoak zelan moldatzen diren Musakolako kantxara (18:00).

**BIGARREN TERRITORIALA, ETXEAN**

Arrasateko bigarren taldeak domekan jokatuko du Legazpiko Talleres Ondo taldearen kontra, 11:00etan, Iturripen.

> PILOTA

### Arrasateko pilotariak Astigarragaren kontra, gaur

Joaneko partiduan Astigarragan 22-18 galdu eta gero, Arrasateko pilotari Agirrek eta Uribarrenek itzulerako partidua jokatuko dute gaur gauean Uarkapen.

Ez da gaueko partidu bakarra izango. 21:30ean hasita lehenengo kadeteek jokatuko dute, eta gazte mailakoek gero. Ondoren etorriko da seniorren partidua.

> ATLETISMOA

### Mojategin batuko dira berriro ere maila txikietako atletak

Joan den astean moduan, oraingo asteburuan ere neska-mutiko mordoa batuko dira Mojategin, entrenamendu saioak egiteko.

Bihar, 18:00etan hasiko dituzte probak, 500 metroko lasterketekin, eta ondoren etorriko dira gainontzeko modalitateak. Beste hiru saio geratzen dira oraindik.

**INGURUMENA** > PARKEAK

# Parkeetako zuhaitzen osasuna aztertu dute

## Errekalde, Santa Ana eta Usondokoena aztertu dute, herritarren segurtasuna bermatzeko asmoz

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Herriko hiru parketako, Usondoko, Santa Anako eta Errekaldeko zuhaitzen egoeraren gaineko azterketa egin du Asesores Arboristas enpresak Udalaren eskariz, eta, azterlan horren arabera, hiru zuhaitz bota egin behar dira. Hala eta guztiz ere, oro har, parkeotako zuhaitzak osasuntsu daudela azpimarratzen du azterketa horrek.

Azterlanak jasotzen duenez, zuhaitzok bota behar dira "zaharrak izateagatik edo egituraren gainbeheragatik" erortzeko edo apurtzeko arriskua dutelako.

Bota behar duten zuhaitzetako bat da Santa Anako lizar gaztea bat, eta beste biak dira Errekaldeko astigar bat eta akazia faltsu bat.

Horrez gain, beste bederatzi zuhaitzi adarburuak moztea gomendatzen du azterketak eta Usondoko bi zuhaitz kablez lotzea. Horrekin guztiaren batera azpimarratzen du parkeotan konponketa lanen bat egiteko beharra dagoenean "kontuz egin beharko direla, zuhaitz helduen sustrai sistemak asko sufri dezakeelako; ez lanak egin eta berehala, baizik eta lau, sei edo zortzi urtera". Hori horrela, lanak ongi aztertzea komeni dela azaltzen du, "zuhaitzei ahalik eta gutxien eragiteko beharrezko aldaketak eginez".

Hiru parkeotan daude 118 zuhaitz –tamaina askotarikoak–: Santa Anan, 50; Usondon, 51; eta Errekalden, 67. Eta horietatik guztietatik aztertu dituzte 54; tamaina handia dutenak edo hauskortasun sintomak dituztenak, hain justu ere. Horietako 24 aztertu dituzte Usondo parkean; 21, Errekalden; eta 9, Santa Anan.



Santa Ana parkean zuhaitz bat botako dute; irudiko lizar gaztea, hain justu ere. MONIKA BELASTEGI

DATUA

**118**

**ZUHAITZ**

**Santa Ana, Errekalde eta Usondo parkeetan tamaina handi eta ertaineko 118 zuhaitz daude. Horietatik aztertu dituzte 54, tamaina handikoak edo hauskortasun sintomak dituztenak.**

**SEGURTASUNA BERMATU**

Azterketa hori egiteko erabakia hartu zuen Udalak iaz, neguan izandako denboraleen ondorioz zuhaitz batzuk erori egin zirenenta. Hala, eta herritarren segurtasuna bermatzeko asmoz, hori kontrolatu beharra zegoela ikusi zuten eta neurriak hartzea erabaki zuten.

Azterketa egiteko erabakiarekin batera, hartu zuten beste segurtasun neurri bat izan zen haize handia dabilen egunetan parke publikoak ixtea.

Esandako lanak noiz egingo dituzten aurreratu ez duten arren, lehenbailehen egingo dituztela esan dute Udaletik.



Jatorri askotariko herritarrek hartu izan dute parte aurreko elkarguneetan. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > EZTABAIDA PROZESUA

## Aniztasunaz eta bizikidetzaz jarduteko batzarra eguenean

### Kultura etxean izango da, 19:00etan, eta Udalak herritarrei parte hartzeko dei egiten die

**M.B.** > BERGARA

Udalak Anitzak ekimenarekin elkarlanean 2009ko otsailean aniztasunaren eta bizikidetzaren inguruan abiatutako eztabaida prozesuak aurrera jarraitzen du. Bergarako herritarren jatorri ezberdinak sorrarazten duen aniztasunaren kudeaketari buruz hausnartzeko gune irekia sortu nahi izan dute eta helburua da bergarar guztien parte-hartzea ahalbidetzea, euren jatorria dena delakoa izanda ere. Hala, elkar ezagutzea eta guztion eskubideak errespetatuko dituen bizikidetza bermatzeko egin beharreko urratsak eta egon daitezkeen erronkak mahai-gaineratzeko.

Otsailetik hona hainbat herritar eta eragilerekin batzartu dira haien iritzia jasotzeko. Orain, lan horri jarraipena emateko, aniztasunak elkarbizitzan daukan eragina aztertu nahi dute. Horretarako, beste bi elkargune egingo dituzte: azaroaren 26an eta abenduaren 10ean, 19:00etan, kultura etxean. Eztabaidak arloka planteatuko dituzte eta landuko dituzte, besteak beste, eskubide sozial eta politikoak, sozio-ekonomia eta lan harremanak eta hizkuntza. Udalak parte-hartzeko dei egiten die herritarrei.

**ZERBITZUAK** > ONGIZATE SAILA

## Autolaguntza taldea osatu nahi du Udalak ezinduen zaintzaileendako

### Mendekoak zein ezinduak euren kargu dituzten zaintzaileen elkargune izateko helburuarekin sortu nahi dute

**M.B.** > BERGARA

Mendekoak zein ezinduak euren kargu dituzten pertsonendako autolaguntza taldea sortu nahi du Udalak. Halako gaixoak dituztenendako elkargune izatea da asmoa, eta, Udaleko iturrien arabera, garrantzitsua da taldea osatzea.

Autolaguntza taldean nork bere bizipen eta esperientziak azaltzeko aukera izango du, eta egoera berean dauden beste batzuekin partekatu. Azken baten, taldearen helburua da elkarri laguntzea eta babestuta sentitzea.

**HAMABOSTEAN BEHIN**

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileekin hainbat ikastaro eta jardunaldi egin eta gero ikusi dute Udaleko Ongizate Zerbitzuan halako talde bat sortzeko beharra.

Udaleko iturriek azaldu dutenez, hamabostean behin elkartuko da taldea eta gidari baten laguntza izango dute. Bestalde, landuko diren gaiak taldean erabakiko dira. Taldea elkartzeko egun eta orduari dagokionez, taldeak berak erabakiko duela ere aurreratu dute Udaleko Ongizate Zerbitzutik.

**PARTE HARTZEKO MODUA**

Autolaguntza taldean parte hartzeko interesa dutenek Ongizate Zerbitzura jo dezakete edo 943 77 91 65 zenbakira deitu.

Udaletik gonbita egiten diete mendekoak zein ezinduak euren kargu dituzten zaintzaileei autolaguntza taldean parte hartzeko.

**JENDARTEA**

# Zapatuan, III. patata feria San Antonion

## Hainbat motatako patatekin batera, askotariko 16 postu egongo dira

**M.B.** > BERGARA
Bihar, zapatua, III. patata feria egingo dute San Antonioko plazatxoan. Gure Ametsa elkarteak antolatu du ekitaldia, Udalaren laguntzarekin, eta feriaren protagonista patata den arren, bestelako jaki eta ikuskizunak ere egongo dira.

10:30ean irekiko dute feria eta honakoak ikusteko aukera egongo da: Udapa eta Alavesa de Patatas enpresen eskutik hainbat patata motaren erakusketa eta horiek aurkezteko moduak; Natuber enpresak hainbat modutan ebakitako eta hutsean ontziratutako patatak erakutsiko ditu; eta, horrekin batera, jaki eta artisau 16 postu egongo dira. Txosna ere egongo da.

12:00etan, herriko elkarteak lehiatu egingo dira nork prestatu gozoen patatak bakailaoarekin eta 12:30ean, lau patata barietateren dastatzea egingo dute. Bukatzeko, 13:00etan marmitakoa dastatzeko aukera egongo da.

**JENDARTEA** > LEHIAKETA

# Biko tabernako 'Bikoketa', pintxorik onena


Jokin Macias eta Javi Castro irabazleak, Jesus Jauregi eta Enara Minguezekin. M.B.


Eusebio II-ko Amaia Txintxurreta. M.B.


Kayakeko Daniel Encabo eta Minguez zinegotzia. M.B.


Ariznoako Juan Etxabarri *Borobila* pintxoa eta plakarekin. M.B.

## Bigarren saria jaso du Kaiak tabernak; hirugarrena, Ariznoak; eta herritarrena, berriz, Eusebio tabernako pintxoak

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Martitzenean, pozik jaso zuten saria –plaka oroigarria– Gure Ametsa elkarteak antolatutako II. pintxo lehiaketako lehen hiru irabazleek. Antolatzaileak eurak ere pozik daude lehiaketak izan duen harrerarekin.

Biko tabernako *Bikoketa*-k jaso du lehen saria: brick pastan batutako odoloste eta pikillo piper zatiak, hiru saltsarekin bustita. Kaiak tabernaren *Lua* pintxoak –irineztatutako tomatea, urdaiazpikoa, bi gazta eta modena baltsamoa, ogi xigortu gainean– jaso du bigarrena; eta hirugarrena, Ariznoako *Borobila*-k: patata, bakailao, onddo eta tipula karamelatuz egindako mokadua.

Herritarren botoen bidez erabakitako saria Eusebio tabernako *Zoro* pintxoak eroan du –legatz, bakailao, sepia, piper gorri eta berde eta alioliz egindakoa–. Guztira 1.660 boto jaso dira eta horietatik 216 jaso zituen Eusebio II-k.

Botoa emandako herritarren artean egindako zozketako irabazlea –bi lagunendako afari edo bazkaria Zumelagan– izan da Maria Gallego.

## oharrak

KINTADA
**> 1980an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 28an Zabalan**
12:00etarako egin dute hitzordua Pol-Pol tabernan. Bazkariaren prezioa da 20 euro eta sartu behar dira Fraiskozuriko Euskadiko Kutxan. Izenematea da azaroaren 21era arte.

LUNTXA
**> Erretiratuendako luncha emango du Lasai Tokik**
Abenduaren 8an izango da, 12:00-14:00 ordutegian, eta erretiratu guztiak daude gonbidatuta.

KINTADA
**> 1957an jaiotakoek afaria egingo dute Zumelaga jatetxean**
Hilaren 28an egingo dute. Izena eman behar da Intxorta tabernan eta aurreratu behar dira 10 euro.

DEIALDIA
**> Aritzetak gonbita egiten die herritarrei taldean parte hartzeko**
Entseguak egiten dituzte astelehen eta eguaztenetan, 21:00etan, Mizpirualdeko elizan, eta abesbatzan parte hartzeko interesa duenak hara joan baino ez du. Informazio gehiagorako deitu 660 98 32 78 zenbakira edo idatzi *aritzetaabesbatza@gmail.com* helbidera.

KINTADA
**> 1947an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon**
Abenduaren 5ean egingo dute, 21:00etan. Izenematea da azaroaren 30a baino lehen, Fraiskozuriko Euskadiko Kutxan ireki duten zenbakian: 009.1.09901.9. Sartu behar dira 60 euro. Joan-etorrirako autobusa egongo da; 20:30ean abiatuko da Santa Marina ostetik.

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. *bergara@bergaramargoak.com*

**Bergarako Udala**

**OHARRA**
Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Onartzea telefonia mugikorreko enpresen aldeko jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskala.

Hori guztia, Udalbatza Osoak 2009ko azaroaren 16ko bileran hartutako erabakiari jarraituz egiten da. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta une horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau 30 lanegunez jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2009ko azaroak 17
Alkatea

**Amy Kerkhof** > Kantu ikaslea

# "Balada lasaietara jotzen dut, baina pop musika atsegin dut gehien"



Amy Kerkhof. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

***Lagunen beharra*** **kantuari esker, Amy Kerkhof-ek (16 urte) bigarren saria eskuratu zuen domekan Gipuzkoako Kantu Txapelketako finalean. Holandarra sortzez, Bergaran bizi da. Musika Eskolan kantua ikasten dihardu hirugarren urtez. Haren berri Internen jaso dezakezue: *www.amysmile.eu*. Bai, irribarretsua da Amy.**

**Zelan animatu zinen Gipuzkoako Kantu Txapelketan parte hartzera?**

Marije Ugalde nire kantu irakasleak eman zidan txapelketaren berri. Eta bi aukera zeudela: kantu ezagunekin edo kantu propioekin parte hartzea. Nire estiloko zerbait egin nahi nuen eta lanean hasi nintzen. Gitarra irakasle Josiren eta Marijeren laguntzarekin borobildu nuen kantua.

**Eta zein da zure estiloa?**

Pop estiloa atsegin dut bereziki, nahiz eta ez dudan askorik lantzen. Balada lasai eta emozionaletara jotzen dut gehiago. Baina pop ukitua ere badu *Lagunen beharra* kantuak.

**Espero zenuen saririk lortzea?**

Ezta pentsatu ere. Finalera helduko nintzakeenik ere ez nuen uste. 40 parte-hartzaile izan gara eta finalaren aurretik hiru saio egon dira: Beasainen, Zumaian eta Arrasaten. Ez nuen ezagutzen beste bi saioetako maila eta sorpresa izan zen finalera heltzea. Gainera, ahoskera, euskalduna baino gehiago, holandarra daukat; hala ere, uste baino hobeto ibili naiz.

**Zein sari jaso zenuen domekan, Antzoki Zaharreko finalean?**

Garaikurra, eta diskoa grabatzeko agindua. Sariren bat jaso genuenok grabatuko dugu diskoa, estudioan ziurrenik, iazkoa zuzenean grabatu zuten-eta.

**Nerbiorik finalean?**

Abestu aurretik bai, baina gero, ondo. Gurasoak eta Marije etorri ziren Donostiara.

**Zure gustuko kantariak?**

Jonas Brothers, Demi Lovato, Selena Gomez, Emily Osment, Taylor Swift... gehienak, Disney etxekoak. Jendeak uste duenaren kontra, ez dira umeendako kantariak. Kantu ederrak dituzte.

**Kanturik gustukoena?**

Liburutxo baten horrelako gauzak apuntatzen joaten naiz eta hilero aldatzen dut... Bi esatearren, *All the way up* (Osment) eta *Every time you lie* (Lovato).

**Animatuko zinateke kantariendako *reality* horietako baten parte hartzen?**

Ez, zenbait epaimahaikideren tratua ez delako batere ona, *casting*-etan hasita.

**Zer egin nahi zenuke kantuan?**

Pop euskalduna.

**MUSIKA** > SANTA ZEZILIA

## Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertua, domekan Udal Pilotalekuan

**E.M.** > BERGARA

Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna ospatzeko, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domeka eguerdian Udal Pilotalekuan. Aurretik, 10:30ean kalejira egingo dute, besteak beste, Artatse elkartearen martxa eskainiz.

**IBON LARRAÑAGA GITARRA-JOLEA**

Udal Pilotalekuan, 12:30ean hasita, hainbat pieza joko dituzte eta amaieran, Carlos Santana gitarrista ezagunaren konposizio bat; Bandarekin batera Ibon Larrañagak gitarra elektrikoarekin jardungo du bakarlari. Bandako kideek Artatse elkartean egingo dute Santa Zezilia eguneko bazkaria.



Udal Musika Bandak frontoian joko du domeka eguerdian. GOIENKARIA

> ANTZERKIA

## Kale antzerki emanaldia domekan eta bi film ikusteko aukera asteburuan Zabalotegin

Trapu Zaharra taldeak kale antzerki emanaldia egingo du etzi, domeka, Bergaran. *B lortzera!* izenburuko lana eskainiko dute. Emanaldia 18:30ean hasiko da, San Martin plazan.

Bestalde, bi film ikusteko aukera izango da asteburuan Zabalotegin: *007 Quantum of Solace* filma botako dute zapatuan 19:30ean eta 22:30ean eta domekan 19:30ean. Zapatuan eta domekan, berriz, gaztetxoendako emanaldia izango da 17:00etan. *Un chihuahua en Beverly Hills* filma botako dute orduan. Gaztetxoendako sarrera 2 euro da eta helduena, 3 euro.

> IPUINAK

## 'Por la boca muere el pez' ipuin saioa eskainiko du Eugenia Manzanerak eguenean, Pol-Polen

Oihulari Klown antzerki taldearen eskutik, Eugenia Manzanera ipuin kontalariaren saioa izango da eguenean, azaroaren 26an, Pol-Pol tabernan, 22:30ean. Aurretik ere Bergaran egondakoa da Toledoko ipuin kontalaria. Eguenean *Por la boca muere el pez* izenburuko saioa eskainiko du. Bereziki helduei zuzendutako saioa da. Oihulari Klown antzerki taldeak ahozko narrazio zirkuituari eutsi dio ikasturte honetan ere, Euskal Herriko hainbat lekutan ipuin saioak antolatuz.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
*antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

## Labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Zigalikatis-UD Akabaoak | **1-12** |
| Diego Valor Ileap.-CM Errota-Gain | **1-4** |
| Monte Taberna-Internacional | **5-3** |
| Niu Tim-Komando Piperra | **10-6** |
| Alytis-Niu Tim | **6-2** |
| Alytis-Irish Pub | **6-3** |
| Los Latinos-LSJ | **7-2** |

**PARTIDUAK**

| Azaroak 22, domeka | EPAILEAK |
|---|---|
| **09:30** Los Latinos-CM Errotag. | **Monte Tab.** |
| **10:30** Zigalikatis-Monte Taberna | **Los Latinos** |
| **11:30** Irish Pub-K.Piperrak | **Zigalikatis** |
| **12:30** Niu Tim-UD Akabaoak | **Irish Pub** |
| **16:00** Diego Valor-Internacional | **Alytis** |
| **17:00** Alytis-LSJ | **Internacional** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | UD Akabaoak | 21 | 7 |
| **2.** | Niu Tim | 18 | 7 |
| **3.** | CM Errotagain | 18 | 6 |
| **4.** | Los Latinos | 18 | 7 |
| **5.** | Diego Valor Ileap. | 12 | 7 |
| **6.** | Alytis FK. | 12 | 6 |
| **7.** | Komando Piperrak | 7 | 7 |
| **8.** | Internacional | 4 | 7 |
| **9.** | Irish Pub | 3 | 7 |
| **10.** | LSJ | 3 | 7 |
| **11.** | Monte Taberna | 3 | 7 |
| **12.** | Zigalikatis | 0 | 7 |

### Antolatzaileek deituta, batzarra izango da eguaztenean

Datorren eguaztenean, hilak 25, txapelketako antolatzaileek deituta batzarra egingo dute Udal liburutegian, 19:30ean. Batzarrean antolatzaileek taldeetako delegatuekin berba egin gura dute, batez ere, epaiketen gainean. Hala, derrigorrezkoa izango da batzar horretara talde bakoitzetik bi ordezkari joatea.

### Goialdean, sailkapena geroago eta estuago dago

Jardunaldiek aurrera egin ahala, aurreko postuetan sailkapena geroago eta gehiago estutzen dabil. Joan den astean Niu Tim taldeak ligako lehenengo partidua galdu zuen, Alytis FK taldearen kontra (6-2), eta oraingo asteburuan gehiago estutu daiteke dena, Niu Tim eta UD Akabaoak izango dira-eta aurrez aurre.

> SASKIBALOIA

### Soraluce-BKEk Kostkas taldea aurreratu nahi du

Domeka goizean jokatuko dute (10:00) sailkapenaren atzealdeko postuetan dauden Kostkas eta Soraluce BKE taldeek, eta postu horietatik ondokoaren kontura irtetea da bi talde horiek nahi dutena. Kategoria berrira moldatzeko lanetan dabiltza bergararrak, eta Kostkas kontrario zuzena da.

Senior mailako bigarren taldeak lehen itzuliko azken partidua jokatuko du domekan (18:30); ligako lehen garaipenaren bila kantxaratuko dira, Katu Kaleren kontra.

> PILOTA

### Gaur eta bihar pilota partiduak jokatuko dituzte

Gazte, senior eta lehen mailetako hiru partidu jokatuko dituzte gaur, egubakoitza, 19:15ean hasita. Eskuz banaka, Bergarako eta Hernaniko ordezkariek jokatuko dute. Ondoren, eskuz binakako partiduan Bergara eta Lagunak izango dira aurrez aurre, eta senior mailan Bergarak Aretxabaleta hartuko du.

Zapatu arratsaldean, berriz, infantil mailako pilotariek jardungo dute, buruz buru, Eibarkoen kontra, 16:30ean hasita.

> ESKUBALOIA

### Soraluce-Bergarak Elgoibarren kontra jokatuko du

Joan den astean etekin ona atera zuten Josetxo Muniategiren mutilek, jokoan izan zituzten lau puntuetatik hiru irabazi zituztelako.

Puntu horiek ematen duten lasaitasunarekin eta sailkapenaren erdialdera salto eginda joango dira asteburuan Elgoibarko Alcorta Forgin taldearen kontra jokatzera. Elgoibarrek Bergarak baino puntu bat gutxiago du, eta joan den astean ondo irabazi zioten Iruni (25-38).



Beti Bustiko ordezkari Leire Ugalde bigarren sailkatu zen, alebin B mailan, eskola arteko txapelketan. BETI BUSTI

**PIRAGUISMOA** > ESKOLA ARTEKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Klubeko palista gazteenek lan ona egin zuten Labegaraietan

Gipuzkoako 77 gazte lehiatu ziren Debako uretan; etxeko ordezkariek hirugarren postua lortu zuten

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Gipuzkoako eskola arteko piraguismo txapelketan Beti Bustiko sei ordezkarik hartu zuten parte, eta sei horietatik hiruk debuta egin zuten txapelketa batean. Urduritasunak gainetik kenduta, etxekoak ondo ibili ziren, eta, taldeka hirugarren sailkatzearekin batera, zilarrezko bi domina irabazi zituzten.

Infantil A mailan Jokin Labaien seigarren sailkatu zen eta infantil B mailan Asier Gonzalez arrasatearra bosgarrena izan zen. Alebin gizonezkoetan Gorka Marquez podiumeko bigarren lekura igo zen eta emakumezkotan Ana Usabiaga zortzigarren izan zen eta Nerea Odriozola hamargarren. Azkenik, alebin B mailan Leire Ugalde bigarren sailkatu zen.

Beti Bustiko arduradunek aditzera eman dute txapelketa hasi aurretik ezustekoa hartu zutela; izan ere, Labegaraietako kirol instalazioetan zapatu gauean norbait ibili zen gauzak apurtzen, eta apurtutakoa ondoren errekara botatzen.




ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

**UDALA** > GIZARTE ZERBITZUAK

# Etxerik etxeko zerbitzua emateko deialdira hiru enpresa aurkeztu dira

Astelehenean zabalduko dituzte aurkeztutako agiriak eta eskaintzak

Oraindik Gizadirenak diren langileak baldintza duinak eskatzen dabiltza




Etxerik etxeko zerbitzua ematen duen Gizadi enpresarendako lan egiten dutenak, hitzarmen duin eske joan zen zapatuan egindako elkarretaratzean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Etxerik etxeko zerbitzua ematen duen Gizadi enpresari lau urterako zeukan kontratua bukatu zaio eta Udalak lehiaketa deitzea erabaki zuen urriaren 26an egindako osoko bilkuran. Eguaztenean bukatu zen eskaerak aurkezteko epea eta hiru enpresarenak jaso dituzte Udalean: Gizadi, Eulen eta Bizitzen fundazioa.

**LAU URTERAKO KONTRATUA**
Datorren astelehenean zabalduko dituzte hiru enpresek aurkeztutako agiriak. Hiru lagunek aztertu eta txostena osatuko dute eta gero diru eskaintza zabalduko dute. Abenduan egingo duten osoko bilkuran esleituko dizkiote lanok enpresa bati.

Zerbitzua ematen, ostera, 2010eko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2014ko abenduaren 31 arte iraungo du kontratuak. Udalak onartutako oinarrietan 18,07 eurotan zehaztu du etxerik etxeko arreta ordua eta eskaintzak egindako enpresek prezio hori hobetu beharko dute.

Etxerik etxeko zerbitzu barruan bi eratako laguntza eskaintzen dute: batetik, laguntza pertsonala –norberaren garbitasuna, kalera joateko laguntza...–; eta bestetik, etxerako laguntza –etxeko garbitasunak, bazkaria gertatu...–.

**HITZARMEN DUINA ESKE**
Azken urteotan Arrasateko Gizadi enpresak eman du zerbitzu hori Aretxabaletan eta 20 bat langile dabiltza. Udalak edozein enpresa hartuta ere orain, langile horiek guztiak jaso beharko ditu zerbitzua emateko.

Aipatutako langile horiek elkarretaratzea egin zuten joan den zapatuan Durana kalean, hitzarmen duina eskatzeko. ELAk bat egin du langileen eskaerekin eta jakinarazi zuen "azpikontratatutako langileak direnez ez daukatela ez konbeniorik, ezta akordiorik ere". Aste honetan negoziaketekin jarraitzekotan zegoen ELA, baina akordiorik lortu ezean berriro egingo dutela elkarretaratzea zapatu goizean jakinarazi zuten. Ez hori bakarrik, hilaren 30etik aurrera greba egiteko ere gertu daude langileak. Hala ere, ELAk esan du akordioa lortzeko jarrera dutela.

Langileendako garrantzitsua da hitzarmen duin bat lortzea orain, nahiz eta zerbitzua esleitzeko egon. Izan ere, orain lortutakoa eta adostutakoa derrigorrez onartu beharko du gero datorren enpresak ere.

**KULTURA** > LANAK

## Hasi dira Gabonetako argiak jartzen herriko zuhaitzetan

Ez dute murrizketarik egingo kopuruari dagokionez, baina beranduago isiotuko dituzte

**M.A.** > ARETXABALETA
Hilabete pasatxo geratzen da Gabonak izateko, baina lanak denboraz egiteko dagoeneko hasi dira herriko hainbat zuhaitz Gabonetako argiekin apaintzen: Durana kalean, eliza aurrean, dagoena bonbilla txikiekin bete dute eta Errekabarren kalekoa argidun zintekin.

**APAINGARRI GUTXI HERRIAN**
Kultura batzordeburu Inaxio Garrok jakinarazi du apaingarrietan murrizketarik egiteko asmorik ez dutela: "Ez dira argidun apaingarri asko jartzen gurean, zuhaitzetan bakarrik, eta horiek ez kentzea erabaki dugu". Hala ere, orain arte Mitarte kaleko platanondoetan egon izan direnak ez dituzte jarriko. Kale horretako lanak Gabonetarako bukatuta izango dira eta zuhaitz berriak landatuta, baina gazteak izango direnez apaingarririk ez jartzea erabaki dute.

Hala ere, Garrok azaldu du egongo dela aldaketatxo bat energia eta, era berean, dirua aurrezteko asmoarekin: "Orain arte abendu hasieran isiotzen ziren zuhaitzetako argidun apaingarriok eta aurten beranduago egingo dugu, abenduko bigarren hamabostaldi hasieran".



Langile bat Errekabarren kaleko zuhaitza apaintzen eguaztenean. M.A.

> DIRULAGUNTZA

### Estatu Fondoko 718.481 euroekin zer egin erabakiko dute

Orain dela hamar bat egun dirulaguntza batzuen berri eman zuen Espainiako Gobernuak: 718.481 euro Aretxabaletarendako. Horietatik gutxienez 574.497 euro inbertsioak egiteko erabili beharko dituzte eta gastu sozialera, gehienez ere, 143.984 euro bidera ditzakete.

Hiru hilabete ditu orain Udalak diru horrekin zein proiektu egingo duen jakinarazteko Madrilgo Gobernuari. Hori erabakitzeko hainbat proposamen egin ditu Udal Gobernuak eta gainerako alderdien iritziak eta proposamenak jasotzen dabil orain. Datorren astean erabakita utzi gura dute kontua, hirigintzako lanen bat aukeratuz gero proiektua idatzi beharra dagoelako aurretik.

UDALA

# Gizarte laguntzaile posturako deialdia

Aldi baterako da eta gaur bukatzen da udaletxean eskaerak aurkezteko epea

**M.A.** > ARETXABALETA

Gizarte laguntzaile lanpostua betetzeko dei egin zuen joan den astean Udalak. Eusko Jaurlaritzak bideratutako dirulaguntza bati esker –19.000 euro– hartuko dute hirugarren gizarte laguntzailea Udalean. Aldi baterako da lanpostua –bederatzi edo hamar hilabeterako– eta egun erdiz egingo du lan, arratsaldeetan.

Gaur, hilak 20, bukatzen da eskaerak aurkezteko epea. Interesatuek gizarte lanetan diplomadunak direla erakutsi behar dute, eta, hizkuntzari dagokionez, hirugarren maila dutela. Azterketa egingo diete udal arduradunek aurkeztutako guztiei, baina praktikari dagokion azterketa bakarrik izango da. Lan horretan duten eskarmentua ere hartuko dute kontuan epaimahaiko kideek azken erabakia hartzeko orduan.



Genero Indarkeriaren Aurkako Eguna gogorarazten duen puntu morea jartzen Anne Agirre Emakume Saileko teknikaria. M.A.

**JENDARTEA** > GENERO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

# Hausnarketa bultzatzeko ekitaldiak astean

Gazteen iritzia jaso gura dute eta horretarako filma eta berbaldia emango dizkiete; iritziekin erakusketa egingo dute

**M.A.** > ARETXABALETA

Genero Indarkeriaren Aurkako Eguna da eguaztenean, hilak 25, eta inork ez dezan hori ahaztu, puntu morea duten orriak banatu ditu Udalak herriko denda eta taberna guztietan jartzeko. Gizarte Zerbitzuak eta Emakume Sailak elkarlanean antolatu dituzte egun hori gogoan izateko ekitaldiak eta, batez ere, hausnarketa bultzatzea dute helburu. Gainera, gaztetxoen iritzia jakin gura dute genero indarkeriaren aurrean, eta, era berean, hausnarketa eragin. Horretarako ekitaldi bi antolatu dizkiete DBHko ikasleei: ikus-entzunezkoa eta berbaldia tratu txarrak jasandako emakume baten eskutik.

**GAZTEEN IRITZIEKIN ERAKUSKETA**

Herriko ikastetxeetako 12 eta 16 urte arteko ikasleek ikus-entzunezkoa izango dute astelehenean (09:30 eta 11:30) Arkupen: *Kalean uso, etxean otso*. Jipoituak, irainduak edo gutxietsiak diren edo izan diren emakumeen sentimenduak bildu dituzte film horretan. Eta ikusi ondoren, filmeko protagonista den eta tratu txarrak jasan zituen Enma Larreta izango dute aurrez aurre. Haren bizipenen berri bertatik bertara jaso eta galderak egiteko aukera izango dute.

Behin genero indarkeriaren berri jasota, gazte horiek gaiaren gainean duten iritzia jakin gura du Udalak, eta iritzi eta hausnarketa horiek kartulina batzuetan idatziko dituzte astelehenean bertan. Gero erakusketa egingo dute kartulina horiekin, Arkupeko sarreran jarrita. Hala, herritarrek ere gazteen iritziaren berri izango dute.

**GENERO INDARKERIAREN FILMA**

Gazteek bakarrik ez, herritar guztiok hausnar dezagun, egueneko zineklubak ere genero indarkeriaren gaineko filma eskainiko du (19:30): *El domingo si Dios quiere*. Aljeriatik Frantziara senarraren bila etorritako emakume baten istorioa kontatuko du filmak. Yamina Benguigui aljeriar jatorriko frantziarra da zuzendaria.

Dendetako erakusleihoetan eta tabernetako apaletan jarritako puntu moreek indarkeria horrek oraindik gure artean dirauela gogoraraziko diete herritarrei egunotan.

**KULTURA** > EKITALDIAK

# Sendabelarren gainean jardungo du eguaztenean Daniel Perez adituak

Bihar 'Bi azeri estu eta larri' ikuskizuna dute umeek liburutegian Patata Tropikala taldearen eskutik

**M.A.** > ARETXABALETA

Sendabelarren gaineko berbaldia egingo du Lezoko Daniel Perez Altamirak eguaztenean, hilaren 25ean, Arkupe kultura etxean. Negu parteko gaixotasunei zelan egin aurre jakinaraziko die elkartutakoei.

**SENDABELARRAK ZELAN ERABILI**

Botanikan eta etnografian aditua da Daniel Perez eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu Euskal Herriko basoetan hazi eta etxeetan erabiltzen diren sendabelarrak. Gainera, dio belar berberei erabilera ezberdina ematen dietela herritarrek Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan.

Belarren gaineko oinarrizko ezagutzen berri emango du lehenengo, eta ondoren, erabileren gainean jardungo du eguaztenean. Batez ere, negu parteko gaixotasunei –katarroak, mukiak, eztarriko gaitzak…– aurre egiteko erabilgarriak direnetan oinarrituko da. Era berean, belarrak zelan erabili jakinaraziko du: ukenduak, kataplasmak, txaplata edo enplastuak…


Sendabelar gisa erabiltzen den erromeroa Aretxabaletako lorategi baten. M.A.

Daniel Perezek sendabelarren gaineko ikastaroa eman zuen uda partean Arkupen eta arrakasta handia izan zuen.

**UMEENDAKO IKUSKIZUNA**

Bihar, ostera, ikuskizuna izango dute 3 eta 9 urte arteko umeek Udal Liburutegian (11:00). Patata Tropikala antzerki taldeak *Bi azeri estu eta larri* ikuskizuna eskainiko die. Jaizkibelgo Ongi Etorri baserritik datorren Amona Joxepak kontatuko die ipuina Aretxabaletako umeei: Gorrixka eta Buztantxo azerien abentura. Txotxongiloak, pertsonaiak eta ipuin kontalaria tartekatuko dituzte Patata Tropikala taldeko kideek 50 minutuko saioan.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

PIENSOS UNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

**Pedro Etxebarria** > Basotxoko batzordekidea

# "Erretiratua protagonista izatea da kantu txapelketaren helburu bat"



Pedro Etxebarria eta Jose Luis Errasti antolatzaileak ordenagailu aurrean. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

**Kantu zaharren txapelketa antolatu du Basotxo erretiratuen elkarteak. Zuzendaritza batzordeko kide Pedro Etxebarriaren burutazioa izan da eta bazkide guztiak animatu gura ditu abenduaren 1a bitartean parte hartzera.**

**Zein helbururekin antolatu duzue txapelketa?**

Hiru aipatuko nituzke: erretiratua protagonista izatea gura dugu elkarte barruan, eta hori lortzeko baliabideak eskaini behar dizkiogu. Horregatik, antolatutako azken bidaiak –Bizkai aldera– aktiboagoak izan dira; gero, irteera horien balorazioak egin ditugu eta bide horretatik jarraituta kantu txapelketa dator. Erretiratuok aberastasun handia daukagula ikusarazi gura dugu, urtetako esperientzian oinarritutako aberastasuna.

Bestalde, beste garai batzuetako eta beste leku batzuetako espresiobideak jaso gura ditugu; eta azkenik, poztasunerako ekitaldia izatea gura dugu; poztasuna bai kantuan egiten duenarendako, bai entzulearendako.

**Edozeinek har dezake parte?**

Parte-hartzaileak derrigorrez Basotxoko bazkidea izan behar du. Bakarkako txapelketa da eta abestiak arbasoengandik jasoa izan behar du, garai batekoa. Euskaraz zein gaztelaniaz kanta daiteke.

**Eta abenduaren 1a bitartean dute aukera kantatzeko, ezta?**

Bai. Txapelketa ez dugu egingo egun jakin baten eta jendaurrean, horrek atzera eragingo lukeelako. Kantua gertu daukatenean antolatzaileoi jakinaraz diezagutela eta grabatu egingo dugu ordenagailuan, Basotxon bertan. Abenduaren 1ean bukatuko da epea, eta gero, epaimahaiak entzun egingo ditu kantu horiek.

**Zeinek osatuko du epaimahai hori?**

Bi epaimahai egongo dira eta lehenengoaren barruan bi talde osatuko ditugu: batek musikari dagokion alderdia baloratuko du, eta besteak, historia eta kulturari dagokiona. Bi talde horiek txosten bat egingo dute balorazioarekin, baina ez da izango erabakitzailea. Bigarren epaimahaia parte-hartzaileek eurek osatuko dute eta lehenengoen txostena irakurri ostean euren eskuetan egongo da erabakia.

**"Abestiak garai batekoa izan behar du, arbasoengandik jasoa"**

**"Kantua gertu dagoenean grabatu egingo dugu Basotxon"**

**Sari politak jarri dituzue: lehenengoak, 200 euro; bigarrenak, 100 euro; eta hirugarrenak, 50 euro. Noiz izango da sari banaketa?**

Sari politak? Hori baino gutxiago ez genuen jarri behar. Oraindik ez daukagu erabakita, baina, seguru asko, abenduan Basotxok egiten duen jairen bat aprobetxatuko dugu banatzeko.

**Abesbatza ere sortu du Basotxok aurten.**

Abesbatza esatea gehiegitxo da, abestaldea hobeto. Sei bat saio egin ditugu eta gustura gabiltza, inolako erronkarik jarri gabe.

**OSPAKIZUNA** > OMENALDIA

# Jose Joakin Arin abadea izango dute gogoan Santa Zezilia eguneko meza esatean

## Eduardo Gorosarri eskoriatzarrak abadearendako idatzitako 'In memoriam' abestuko du abesbatzak



Aretxabaleta Abesbatzako kideak kantuan. M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA

Musikarien zaindari Santa Zeziliaren eguna ospatuko du Aretxabaleta Abesbatzak domekan, hilak 22. Urtero legez, parrokian esango duten meza nagusian abestuko du (11:30), baina aurten Aretxabaletako parroko izandako Jose Joakin Arin izango dute gogoan. Gainera, Txartyn de Basterbero taldeko kide Aitor Antxia Leturiak parrokoaren gainean jasotakoa banatuko dute.

**GOROSARRIREN 'IN MEMORIAM'**

Villabonan jaiotako abadea 1901 eta 1911. urte artean izan zen Aretxabaletako parroko; hemendik Arrasatera joan zen eta euskararen aldeko jarduerak bultzatu zituen. 1936ko urriaren 24ko gauean fusilatu zuten, Oiartzunen. Gertakari haien aurrean, Eskoriatzako Eduardo Gorosarri abade eta organo-joleak *In memoriam* doinua konposatu zuen: "Antza denez, Arinek berak abesten zuen abesti hori; parrokoak euskarazko berbak jarri zizkion melodia herrikoi baten oinarritutako doinuari", azaldu digu Angel Barandiaran abesbatzako zuzendariak. Eta abesbatzak meza bukatu aurretik abestuko du.

Euskal liturgian oinarritutako abestiak izango dira nagusi domekako mezan. Bi izango dira bakarrik latinez: Casimiriren *Aintza*, bost ahotsetara abestua, eta Perosiren *Santus,* lau ahotsetara. Horiekin batera, Santa Zeziliari eskainitakoa abestuko dute: "Artxibo lanik egiteko astirik ez dut izan, baina uste dut Aretxabaletako organo-jole batek egindako abestia dela guk kantatuko dugun hori", dio Barandiaranek.

Meza ostean elkarrekin bazkalduko dute abesbatzako kideek, zaindariaren omenez.

**oharrak**

ZINEMA

**> 'Enemigos publicos' eta 'Kika Superbruja' filmak ikusgai aste bukaeran**

Gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00), *Enemigos publicos* filma izango dute helduek. Gaztetxoek, ostera, *Kika Superbruja* domekan (17:00).

KZGUNEA

**> 'Wikipedia' eta 'Gmail' ikastaroak**

Markole auzoko KZgunean ikastaro bi egingo dituzte datorren astean: astelehenean (09:00-11:00), *Wikipedia*; eta eguaztenean (09:00-11:00), *Gmail*. Hitzordua egiteko: 943 25 23 51.

KZGUNEA

**> IT txartela eskuratzeko azterketa eguenean**

Hainbat oposiziotan eskatzen duten IT txartela eskuratzeko azterketa egingo dute eguenean, hilak 26, 09:00etan. Aurrez egin hitzordua: 943 25 23 51.

DEIA

**> Lurraldebus txartela eskuratzeko aukera**

Lurraldebus txartela eskuratu eta karga daiteke Arkupe kultura etxean (diruz ordainduta) eta Zainduz gimnasioan (txartelarekin ordainduta). Hona ordutegia: astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:30-19:00; eta zapatuetan, 10:00-13:00.

> GAZTEAK

### Maskara ikastaroa egingo dute bihar gaztelekuan

Maskarak zelan egin ikasiko dute gazteek bihar, hilak 21, Atxagazte gaztelekuan, eta domekan, mahai jolasekin jarduteko eta filma ikusteko aukera izango dute.

Hurrengo zapatuan, ostera, *paintball*-ean jolastera joateko asmoa daukate Eskoriatzako gaztelekukoekin batera. Argibide gehiago edo izena eman gura duenak gaztelekura jo dezala.

> KONTZERTUA

### Musika eskolakoen tronpeta emanaldia martitzenean

Leizarra musika eskolako ikasle eta irakasleek tronpeta emanaldia eskainiko diete guraso eta lagunei martitzenean (19:00).

Ikasturtea hasi eta bi hilabeteotan ikasitakoaren berri emango diete Arkupen elkartuko direnei, eta bakarkako saioak eta taldekoak eskainiko dizkiete. Hurrengo emanaldia Gabonetan izango da.

■ BULARREKO MINBIZIA

# Emakumeak 25 urterekin hasi behar du bularra aztertzen

LEIRE KORTABARRIA

**Gipuzkoan, urtero, 350 bularreko minbizi antzematen dira; egunero bat, gutxi gorabehera. Gehienak 50 eta 65 urte arteko emakumeengan dira: kasu guztien %42 inguru. Baina horrek ez du esan nahi adin tarte horretatik kanpo daudenek ez dutela arriskurik; edozeini gerta dakioke. Horren aurrean, prebentzioa eta nork bere burua zaintzea dira gakoak.**



Txomin Murgiondo doktorea, Arrasateko Consultorio Ginecologico zentroan. LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko Consultorio Ginecologico klinikan diharduen Txomin Murgiondo doktoreak argi diosku: "Sexu-harremanak izaten hasten direnetik, edo 25 urte dituztenetik, emakumeok euren burua zaindu behar dute bularreko minbizia prebenitzeko: medikuarengana joaten hasi behar dute esplorazio klinikoa egiteko; eta, beste aldetik, nork bere bularrak aztertzeko ohitura hartu behar du". Izan ere, "askotan ematen du 50 eta 65 urte artean egon ezean, ez dagoela ia arriskurik, eta hori ez da horrela".

Zorionez, diagnostiko kopurua jaitsi ere egin da pixka bat; eta hilkortasuna oso txikia da: ospitaleetan tratatu dituzten gaixoen %90 bizirik daude minbizia izan eta 10 urtera. "Horretarako gakoa da prebentzioa eta diagnostiko goiztiarra", esaten du medikuak.

### HILEAN BEHIN, 10 MINUTUAN

Nork bere bularrak esploratzeko une egokiena da "hilerokoa bukatu eta 4-5 egunera, bularrak bigun

## Azterketa ondo egiteko, emakumeak bere bularrak ezagutu behar ditu

daudelako", gomendatzen du Murgiondo doktoreak. "Hilean behin 10 bat minutu nahikoa da. Lehenengo, nork bere bularrak zelakoak diren jakin behar du emakumeak; ez dira lauak, eta gune gogorrak eta bigunak dituzte; horrez gain, denborarekin aldatzen doaz". Azterketa ondo egiteko aholku batzuk ematen dizkigu ginekologoak: "Ispilu aurrean dagoela, besoak altxatu, buru atzean ipini eta zerbaitek ezohiko itxura hartzen duen begiratu behar du emakumeak: adibidez, bularrak ez duela ezohiko moduan atzera egiten, titipuntak ez direla hondoratzen... Gero, etzan egin behar da eta, besoak buru atzean ipinita, bularra osorik ukitu, eta ez zatika; titipuntak estutu behar ditu, eta besapeak ere ukitu. Titipuntetatik likido apur bat irtetea normala da; baina ez odola".

## Lehenengo mamografia 35 urterekin egitea gomendatzen diote emakumeari

Bestalde, ginekologoarengana urtero joan behar da, eta mamografia egiten hasi 35 urterekin.

### HOBEKUNTZA HANDIAK

Emakumeok ere gero eta prestakuntza eta kontzientziazio maila handiagoa dute, eta, bestetik, Murgiondok azaltzen duenez, "tratamenduak asko hobetu dira: gero eta botika hobeak daude, eta gero eta teknika hobeak; mamografiak medikuon aliatu onena izaten jarraitzen du, beste teknika batzuekin bateratuta".

Talde osoa emakumearen eskura

ESPEZIALITATEAK
- Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia
- Menopausia
- Endoskopia ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Titietako gaixotasunak
- Obstetrizia
- Nerabezaroko ginekologia
- Hezur dentsitometria

MEDIKUAK
- Bularra: **Txomin Murgiondo**
- Esterilitatea: **Jose Maria Gomez, M. Jose Iñarra, Laura Susperregui**
- Menopausia: **Fernando Cristobal**
- Haurdunaldiak: **Jabier Rodriguez, Miguel Gabarain**
- Endoskopia: **Alfredo Otalora**
- Arrisku handiko haurdunaldia: **Emerson Murua**
- Haurdunaldiaren kontrola eta ekografia: **Maria Jose Ruiz, Irina Krasteva**



CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

www.consugine.com

■ ONGIZATEA

# Etxez etxeko zerbitzua, nagusiendako aukera

EDU MENDIBIL

**Gaurko gizartean, gero eta adineko gehiagok izaten dute zahartzaroa etxean igarotzeko aukera. Pertsona nagusiendako zein haien familiendako aukera onena izan daiteke, nagusiek euren ohiko giza inguruneari uko egin ez diezaioten. Goiz Argi enpresak etxez etxeko zerbitzua eskaintzen du eta Cristina Soriano arduradunarekin egin dugu berba.**


Cristina Soriano Goiz Argiko arduraduna eta Agurtzane Garai laguntzailea Pilar Apellaniz erabiltzailearekin. GOIENKARIA

Mendekotasuna duten pertsonei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko asmoarekin 1994an sortu zuten Goiz Argi. Etengabeko eskaria duen zerbitzua dela dio Cristina Soriano bergararrak: "Goiz Argik etxez etxeko zerbitzua eskaintzen die partikularrei eta, aldi berean, hainbat erakunderekin elkarlanerako hitzarmenak sinatu ditugu".

Bizi-itxaropenak nabarmen gora egin du azken hamarkadetan eta, horren ondorioz, adinekoen biztanle kopurua handituz joan da han eta hemen. Etxez etxeko zerbitzuaren helburuetako bat, esan bezala, zera da: adinekoei zahartzaroa etxean igarotzeko aukera eskaintzea, ahalik eta baliabide gehien eskainiz zahartzaroa kalitatezkoa izan dadin. Sorianok azpimarratzen duen moduan, "familiendako eta adinekoendako aukera ona da. Azken baten, pertsona nagusia etxean, bere betiko ingurunean gelditzen bada, ohiko harremanei eta ohiturei eusten die. Horrela, ahal den neurrian, haren autonomia sustatzen da eta bizikidetza positiboa indartzen da".

**OSOKO ZERBITZUA**

Goiz Argik nagusien beharrak aintzat hartzen ditu: higiene pertsonala, jatorduen prestaketa, bestelako etxeko lanak, eta abar. Horiek bezain garrantzitsua da bakardadeari aurre egitea. Goiz Argik emandako datuen arabera, etxez etxeko zerbitzua jasotzen duten gehienak emakumeak dira gaur egun. Hain zuzen, Goiz Argiren ardurapean diren bezeroetatik %65 emakumeak dira, eta %35, gizonak.

**KALITATEA**

Etxez etxeko zerbitzuen alorrean, Goiz Argik ISO 9001:2000 kalitate ziurtagiria eskuratu zuen orain dela bi urte, 2007an. Horrekin lotuta, Goiz Argiko langileek etengabeko prestakuntza jasotzen dute eskaintzen duten zerbitzua ahalik eta onena izateko eta, aldi berean, erabiltzaileekiko harremana hobetzen joateko, langileek eurek sustatutako jarduerei eta jarrerei esker.

Era berean, Goiz Argik hitzarmena sinatu zuen Bergarako UNED ikastetxearekin. Hitzarmen horri esker, Geriatria Laguntzaile diploma eskuratzeko kurtsoa egiten dutenek aukera daukate praktikak Goiz Argi enpresan egitea. UNEDeko kurtso hori kalitate handikoa dela dio Cristina Sorianok. Hain zuzen ere, prestakuntza kurtso hori aintzakotzat hartzen dute Goiz Argiko langileek eguneroko jardunean.

Etorkizunerako erronka hauxe da Goiz Argi enpresarentzat: kalitateari eustea eta adinekoei laguntzea, ahal den neurrian zahartzaroaz goza dezaten.

**Goiz Argik ISO 9001:2000 kalitate ziurtagiria eskuratu zuen 2007an**


Goiz Argi
Etxez etxeko laguntza
• Pertsona nagusiendako edo ezinduendako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza.
• Pertsonal aditua.
Simon Arrieta 2a (Solairu artea B)
Tel.: 943 76 72 16 Faxa: 943 76 07 23

**ELKARRIZKETA: MAITE AGIRRE / AMAGARA ESTETIKA ZENTROKO ARDURADUNA**

# "Fotogaztetze-tratamenduak azalari argia ematen dio"

ARANTZAZU EZKIBEL

**Arrasateko Amagara estetika zentroan aurpegiko tratamenduetan dira espezialista. Maite Agirrek 25 urte darama estetika munduan. Gainera, atzean, lantalde bikaina du Agirrek lanean. Arruabarrena medikuaren laguntza izaten dute Amagara estetika zentroan mesoterapia tratamenduak egiteko. Uda ostean azala nola zaindu azaldu digu Agirrek.**



Maite Agirre (goian), bezero batekin lanean ageri da eskuineko argazkian.

GOIENKARIA

**Aurpegiko tratamenduak dira zuen espezializazioa. Zer egiten duzue?**

Maila orokorrean, peelingak egiten ditugu. Bestalde, garai honetan asko egiten dugu fotogaztetze-tratamendua laserrarekin. Orbanak eta inperfekzioak kentzen ditugu; gainera, azalak argitasun berezia hartzen du. Esan behar da emaitzak oso onak direla. Gainera, bezeroaren beharren arabera, beste tratamendu batzuk gehitzen ditugu.

Jendeak denetik eskatzen du, baina askotan ez dakite zer den gura dutena, edo ez dute ondo eskatzen. Horretarako, guk azterketa egiten diegu eta euren beharrak zeintzuk diren ikusi ondoren bideratu egiten ditugu.

**Garrantzitsua da bezeroari azterketa pertsonala egitea bere beharrak zeintzuk diren jakiteko?**

Bai, hala da. Bezeroa aztertzen dugu, ze azal mota duen ikusi eta bere beharrak zeintzuk diren identifikatzeko. Horren arabera, bezeroarendako tratamendu egokiena zein den erabakitzen dugu. Izan ere, denak ez du denondako balio.

> **"Bezeroak ze azal mota duen aztertzen dugu bere beharrak identifikatzeko"**

**Gaur egun ze teknika da aurreratuen dagoena?**

Gaur egun oso aurreratua dago laserra. Fotogaztetze eta fotoerreafirmazio tratamenduak egiten dira asko, biguntasunari aurre egin eta azalaren tonua berreskuratzeko. Emaitza oso onak ematen dute.

**Urteko sasoi ezberdinetan tratamenduak ere ezberdinak izan behar dira?**

Bai, garai hau, adibidez, oso garai ona da fotogaztetze-tratamendua egiteko. Izan ere jende gehienak irailaz geroztik ez du eguzkirik hartu. Hortaz, azalaren pigmentazioa jaitsi egiten da eta horregatik da ona sasoi hau azaleko orbanak kentzeko. Azala oso polita eta argia geratzen da.

> **"Azken generazioko laserrarekin azal ilunetan ondo egiten da lan"**

Bestalde, tratamendu horri beste tratamendu batzuk gehitu dizkiokegu: oxigenazioa, elektroterapia... Hala, tratamenduaren eragina denboran luzatzeko aukera izango dugu.

Udaberri sasoian, adibidez, azala hidratatzea komeni da, eguzkiak gutxiago zigortu dezan.

**Badago fotogaztetze-tratamendua egiteko adin egokirik?**

Edozein adinetan egin daiteke; batzuek, 28 edo 35 urterekin azala oso zaharkitua izan dezakete. Adibidez, 78 urteko bati egin genion behin tratamendua, eta emaitza ikusgarria izan zen.

Esan behar da, baina, eguzkiak bakarrik ez duela azala hondatzen: elikadurak, erretzeak... eragina izaten dute azalean.

**Azken generazioko laserra erabiltzen duzue. Ze abantaila du horrek?**

Orain arte zaila izaten zen azal ilunetan laserrarekin lan egitea. Baina, gaur egungo laser mota honek azal argiarekin eta beltzaran-koloreko azalarekin lan egiteko aukera ematen du.

**Mikropigmentazio teknika ere asko erabiltzen duzue. Zertarako balio du ?**

Erabiltzen dugu, batez ere, bekainak, ezpainak eta begiak perfilatzeko. Adinarekin ilea galtzen dugu; hortaz, oso erosoa den teknika da. Ohetik jaiki eta arkatzarekin margotu beharrik ez izatea oso garrantzitsua da jende askorentzat. Adinean aurrera doazenek asko erabiltzen duten teknika da.

Oso teknika samurra da eta emaitzak zoragarriak izaten dira.

**EDERTASUN NATURALA LORTZEA HELBURU**

- Lan egiteko metodo eta teknika espezializatuak.
- Punta-puntako aparailuak.
- Medikuntza estetikoko kontsulta.

*Behar duzuna daukagu, galdetu gure udazken-neguko promozioez.*











nº R.P.S. 297 / 05.

Amagara
Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

**ELKARRIZKETA: JAIONE CUEVAS / ILARGI UMEEN DENDA**

# "Ume-kotxe bat edo bestea erosi moda kontua izaten da"

MIREIA BIKUÑA

**Orain dela urte eta erdi zabaldu zuen Jaione Cuevasek Ilargi denda Bergaran. Puerikulturako gaiak, 0-4 urte artekoendako eta haurdunedako arropak saltzen dituzte, besteak beste. Gurasoendako jaioberriaren segurtasuna oso inportatea dela esan digu, eta umearendako gauzak erosteko orduan ez diotela poltsikoari begiratzen.**



Jaione Cuevas, Ilargi umeen dendan. MIREIA BIKUÑA

**Orain dela urte eta erdi zabaldu zenuen denda, eta bereziki puerikulturako gaiak eta arropak dituzu.**

Bai, hala da. Jaioberrien segurtasuna bermatzeko beharrezkoak direnak saltzen ditugu: besteak beste, ume-kotxeak, autoetan eramateko aulki homologatuak, etxean egoteko etzaulkiak, kumak, biberoiak eta txupeteak. Bestalde, umea eduki ondoren emakumeek behar dituzten hainbat gauza ditugu: adibidez, titietatik esnea ateratzeko tresna. Gainera, haurdunendako eta 0-4 urte arteko neska-mutikoendako arropak ere baditugu.

**Zer erosten dute gurasoek umea eduki aurretik?**

Ume-kotxea erostera etortzen dira gehienak, kumak eta sehaskak oinordetzan hartzen dituzte-eta. Guraso batzuk Internet bidez edo ezagunen bidez jasotako informazioarekin datoz, eta ideiak oso garbi dituzte. Beste batzuk, aldiz, ezer jakin barik, aholku eske etortzen dira.

> "Guraso askok Internetez jasotzen dute segurtasunari buruzko informazioa"

**Zeintzuk dira gehien saltzen diren ume-kotxeak?**

Arroparekin gertatzen den moduan, moda kontua izaten da. Koadrilako batek edo etxeko batek marka bateko ume-kotxea badu, horixe bera eskatzen dute. Orain asko jokatzen dute koloreekin, eta ume-kotxe bera kolore ezberdinarekin eros daiteke.

Azkenaldian, lau gurpileko ume-kotxeak saltzen ditugu gehienbat, hirukoek egonkortasun txikiagoa dute-eta.

Guraso batzuek modelo zehatz bat dute buruan, eta, oso garestia izan arren, hori erosten dute. Ni ahalegintzen naiz aholkuak ematen, baina batzuek ez dituzte onartzen.

> "Jaioberriendako gauzak erosteko orduan, ez diote poltsikoari begiratzen"

**Gurasoek asko zaintzen dute umearen segurtasuna?**

Bai. Denda zabaldu nuenean hasiberria nintzen, eta ez nuen puerikulturako mundua ezagutzen. Harrituta geratu nintzen segurtasuna bermatzeko zenbat tresna dauden jakinda. Gurasoek segurtasuna zaintzen dute, batez ere, kalean eta autoetan ibiltzeko. Gehienek adin bakoitzari dagokion aulki homologatua daramate autoan.

Dendara datozen gurasoei ematen diedan lehen aholkua da segurtasuna bermatzeko beharbeharrezkoak diren tresnak erosteko; hau da, ume-kotxea eta autorako segurtasun aulkia. Gainerakoak erabileraren arabera erosi beharko lituzkete.

**Krisiak eraginik izan du puerikulturan?**

Igartzen da. Jendeak erosten du, baina prezioaren gainean galdera asko egiten ditu. Guri galdetu ondoren, hiriburuetara joaten da jendea hango prezioak ikustera. Baina, oro har, konturatu naiz jaioberriarendako gauzak erosteko orduan ez diotela poltsikoari begiratzen.

**Haurdun dauden emakumeendako eta 0-4 urte artekoendako arropak ere badituzu.**

Bai. Haurdun dauden emakumeendako jertseak, txamarrak eta prakak ditut. Bestalde, umeendako denetarik saltzen dugu, mutilendako eta neskendako.

Aurten arropatan kolore ilunak dira nagusi; batez ere, beltza eta morea. Agian, ez dira kolore aproposenak sei hilabeteko umea janzteko, baina saltzen ditugu. Dena den, arrosa eta urdin koloreko arropak asko saltzen ditugu oraindik.



**OSPAKIZUNA**

# Musika nagusi Santa Zeziliaren omenez

Herriko musikariek hainbat emanaldi egingo dituzte aste bukaeran

**M.B.** > OÑATI

Domekan Santa Zezilia eguna da; hain zuzen ere, musikarien zaindariaren eguna. Hori horrela, Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek, Udal Musika Bandak eta herriko abesbatzek kontzertu bereziak egingo dituzte aste bukaeran.

Musika eskolakoak gaur irtengo dira kalera, 17:15ean, txarangarekin eta batuka taldearekin. 17:45ean emanaldia egingo dute Foru plazan akordeoi eta triki-pandero taldeek eta bi abesbatzek. Festa bukatzeko, txokolate-jana egingo dute gaztelekuan.

Bihar, aldiz, hainbat abesbatzak emanaldiak egingo dituzte: Ganbara Txiki abesbatzak 19:00etan Santa Anan; Parrokiako bi abesbatzek 19:00etako elizkizunean; eta Oñati abesbatzak 20:15ean agustindarren elizan.

**MUSIKA BANDA**

Bestalde, domekan, Udal Musika Bandakoek kontzertu berezia egingo dute euren zaindaria omentzeko. Ibarrondoren zuzendaritzapean hainbat pieza eskainiko dituzte Santa Anan, 12:30ean. Azkenik, *Egunkaria* auzikoei babesa emateko kantu emanaldia egingo dute plazan, 19:30ean; hain zuzen ere, bertso eskolako kideek egindako koplak abestuko dituzte.

> MENDIA

## Sergi Ricarten ikus-entzunezkoa martitzenean

Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak antolatua ikus-entzunezkoa eskainiko du Sergi Ricart katalanak martitzenean kultura etxean, 19:30ean. Hain zuzen ere, *Himalaya bat...* delako emanaldia egingo du. Ikus-entzunezkoa 42 minutukoa da. Informazio gehiago *www.alpinart.com* atarian duzue. Sergi Ricart argazkilaria eta mendiko gidari profesionala da.

Bestalde, Aloña Mendi Elkarteko mendi taldeak urtero otsailean antolatzen zuen Mendi Astea atzeratzea erabaki du. Hala, 2010etik aurrera azaroan egingo dute.



1979. urteko udal hauteskundeetarako aurkeztutako hautagaiak. OÑATIKO EAJ

**POLITIKA** > OSPAKIZUNA

# Azken 30 urteotako hautagaiak omenduko ditu EAJk bihar

Alkateek, zinegotziek eta hauteskundeetara aurkeztutako guztiek oroigarria jasoko dute Joseba Egibarren eta Lourdes Idoiagaren eskutik

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Lehen udalbatza demokratikoa sortu zeneko 30. urteurrena bete dela-eta, 1979a ezkero Oñatiko udalbatza osatzeko hauteskunde zerrendetan hautagai izan diren guztiak omenduko ditu EAJk. Guztira, 75 pertsona. "Omendu gura ditugu alkate eta zinegotzi izan direnak, baina baita ere hauteskundeetara aurkeztu eta udalbatzan tokirik eskuratu ez zutenak ere", esan digute antolatzaileek.

Biharko ekitaldian parte hartuko dute Gipuzku Buru Batzarreko presidente Joseba Egibarrek eta Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak. Azken horrek esan digu omenaldiak asko eskertzen dituela: "Hauteskundeetara aurkezteko konpromisoa hartzen dugunean, ahalegin handia egiten dugu alderdiaren izena gorengo mailan mantentzeko. Urtetan egindako lanagatik eta esfortzuagatik jasotako omenaldiak asko eskertzen ditut, eta herrikoak badira, gehiago. Baina garbi utzi gura dut, eta biharko hitzaldian aipatuko dut, EAJk lortu duena lortzeko aurretik beste batzuek egindako lana oso inportantea izan dela".

**AMAITZEKO, LUNCHA**

Omenaldia 11:00etan hasiko dute kultura etxeko zinema-aretoan. Joseba Egibarrek eta Lourdes Idoiagak hitza hartuko dute, eta ondoren omendu guztiek, banan-banan, oroigarria jasoko dute. Horren ondoren, argazki zaharrekin egindako muntaia ikusiko dute pantaila handian. Omenaldia bukatzeko, luncha egingo dute batzokian.

**LAU ALKATE**

1979a ezkero Oñatiko alkate guztiak EAJ alderdikoak izan dira. Hain zuzen ere, Eli Galdos 1979. urtetik 1991. urtera; Angel Iturbe 1991. urtetik 2003. urtera; Andoni Gartzia 2003. urtetik 2006. urteko otsailera; eta Lourdes Idoiaga 2006ko otsaila ezkero da alkate.

DATUA

**75**

**HAUTAGAI**

1979a ezkero 75 pertsona aurkeztu dira udal zerrendetan. Horien artean alkateak eta zinegotziak daude, eta baita udalbatzarrean parte hartu ez duten asko.

ESANAK

**"Egindako lanagatiko omenaldiak asko eskertzen ditut, eta herrikoak badira, askoz gehiago"**

**Lourdes Idoiaga** > alkatea

## Omenduak

- > Eli Galdos Zubia
- > Carlos Agirrebengoa Ormazabal
- > Juan Altube Kortabarria
- > Felix Errasti Arriaran
- > Miguel Etxegoien ZIordia
- > Inaxio Galdos Urtzelai
- > Fermin Guridi Elortza
- > Jesus Mari Isasmendi Arregi
- > Santi Kortabarria Guridi
- > Angel Milikua Iartza
- > Hilario Uriarte Ugarte
- > Carmelo Astigarraga Galfarsoro
- > Regino Biain Guridi
- > Sabina Igartua Odriozola
- > Esteban Kerejeta Jausoro
- > Paulina Kernstock Biain
- > Luis Mari Madina Arrondo
- > Sabino Telleria Arkauz
- > Iñaki Zumalde Romero
- > Jose Luis Irizar Baltzategi
- > Pedro Arregi Zufiria
- > Jose Antonio Gomez Perez
- > Santiago Guridi Aiastui
- > Jose Inazio Urtzelai Untzurrunzaga
- > Mari Tere Bengoa Zubia
- > Jabier Galartza Arrazola
- > Felix Lezeta Segurajauregi
- > Kontxita Murgiondo Guridi
- > Jose Palacin Bueso
- > Angel Mari Iturbe Iartza
- > Andoni Gartzia Urtatza
- > Aitor Arregi Murgiondo
- > Jose Mari Igartua Aranguren
- > Agustin Beitia Elortza
- > Luis Mari Alberdi Garitano
- > Maria Isabel Biain Larrañaga
- > Carmen Ituarte Elortza
- > Amaia Madina Agirre
- > Arrate Markiegi Areitio-Aurtena
- > Bixente Urtatza Billar
- > Rosario Agirre Iriarte
- > Jesus Bikuña Arrazola
- > Isidro Palacin Bueso
- > Andoni Urkizu Urreta
- > Maria Asun Villar Lizarazu
- > Nagore Galdos Olazar
- > Iker Jausoro Murgiondo
- > Xabier Lazkoz Zabaleta
- > Aitor Madina Agirre
- > Javier Marquez Nogues
- > Joseba Otalora Galdos
- > Jose Mari Sobrino Bañares
- > Angel Biain Peña
- > Jose Fernandez Frechilla
- > Juan Mari Urtzelai Guridi
- > Jose Antonio Urteaga Madinabeitia
- > Ainhoa Galdos Olazar
- > Amaia Altube Galdos
- > Ana Mari Chacon Pacheco
- > Juan Errasti Arriaran
- > Beatriz Etxaniz Mendizabal
- > Luis Anduaga Madinazkoitia
- > Lourdes Idoiaga Urkia
- > Maria Jose Etxegoien Arzuaga
- > Maria Rosario Galdos Zubia
- > Mikel Larrea Alava
- > Bixente Untzurrunzaga Uribesalgo
- > Mireia Arregi Markiegi
- > Andoni Campos Ugarte
- > Ainhoa Irizar Odriozola
- > Mikel Iturrospe Gabilondo
- > Nerea Altube Galdos
- > Javier Baltzategi Maiztegi
- > Mikel Gartzia UrtatzaI
- > Lourdes Urtatza Astigarraga

TURRIA: OÑATIKO EAJ

## oharrak

DEIALDIA

**> 1966an eta 1971n jaiotakoek kintadak egingo dituzte**

1966koek azaroaren 28an egingo dute afaria. Interesatuek 20 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako 30350005320051038676 kontuan.

Bestalde, 1971koek bazkaria egingo dute abenduaren 12an. Izena emateko: 657 70 67 46 edo *quintos71@gmail.com*.

ERRETIRATUAK

**> Etxeko olioa batuko dute bihar merkatuko plazan**

Puntu Berde Mugikorreko furgoneta merkatuko plazan egongo da 09:00etatik 13:00etara.

ERAKUSKETA

**> Teresa Diazen margolanak ikusgai kultura etxean**

30 bat lan ikus daitezke hilaren 27ra arte; besteak beste, natura-hilak, erretratuak eta gorputz biluziak ikus daitezke astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara.

MENDIA

**> Argazkiak lehiaketara aurkezteko azken eguna, azaroaren 27a**

Erretratuak Aloña Mendi elkarteko egoitzan utzi behar dira azaroaren 27a baino lehen. Argazkiak bi ataletan banatuko dituzte gaiaren arabera: *Mendia eta natura* eta *Salaketa*. Sari banaketa abenduaren 18an egingo dute. Guztira, zortzi sari banatuko dituzte.

DEIALDIA

**> Urteko azken odol-ateratzea, abenduaren 11n**

Odol emaileen taldekoek urteko azken ateratzea egingo dute abenduaren 11n, ikastolan.

**KOMUNIKABIDEAK** > TEKNOLOGIA BERRIAK

# Udalerriko toponimia ikus daiteke 'www.eskohitza.com' webgunean

Aitzorrotz etnologia taldeko hainbat kidek urtetan baserriz baserri jasotako udalerriko 620 toponimo inguru agertzen dira sarean

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eskoriatzako toponimia sarean ikus daiteke dagoeneko. Aitzorrotz etnologia taldeak, baserritarren laguntzarekin, udalerriko toponimoak urtetan batu izan ditu eta horren guztiaren gaineko informazioa *Eskohitza.com* webgunean ikus daiteke orain.

Ibai Oihanguren arduratu da informazioa sarean jartzeaz. Jakinarazi digu aplikazio "erraza" dela, eta, hortaz, oso samurra dela erabiltzea. Horretan interesa dutenek *Eskohitza.com* webgunera sartu eta sarrerako orriaren azpialdean dagoen Eskoriatzako toponimiarako loturan klikatu beharko dute. Flash aplikazioak, batetik, bilatzailea dauka toponimoak erraz topatu ahal izateko; bestetik, udalerriko mapa dauka, eta toponimo bakoitzaren gainean klik eginda horren gaineko zenbait datu eta, kasu batzuetan, argazkia ere bistaratzen da.

Oihangurenek ideia nondik datorren azaldu digu: Flash aplikazio batekin, toponimoak mapan kokatu eta jarraian CD batean bildu zituzten. Horren arabera, "Flash aplikazioak webera bideratuta daude, eta pauso normala zen dagoeneko geneukan aplikazio hori sarean jartzea. Proposamena Aitzorrotz kultura elkartekoei bota nien, CDa atera dutelako eta *Eskohitza.com* bultzatu dutelako, eta bertan jartzea erabaki genuen. Udalak ere webgunean lotura jartzeko asmoa azaldu digu".




Aplikazioak udalerriko mapa dauka eta toponimoen gaineko datuak eta, zenbaitetan, argazkiak ematen ditu. GOIENKARIA

**JATORRIA**

Urte askotako lana da udalerriko toponimiarena. Guztira, sei lagun ibili dira datuak batzen: Etnologia taldeko Javier Errasti, Isabel Guridi, Alex Belategi, Tomas Orbegozo, Joxe Izurrategi eta Eusebio Villar, hain justu. Azken horrek azaldu du orain arte 620 toponimo kokatu dituztela: "1951. urteko Eskoriatzako katastrotik hartu eta jarraian, baserriz baserri joan izan ginen genituen tokiak mapan kokatzen".

Bestalde, Villarrek nabarmendu du ez dagoela konforme informazio hori sarean jartzearekin, 1.500 toponimotik gora daudelako, eta, hortaz, lana oraindik bukatu barik dagoelako. Horretaz gain, gogorarazi du, toponimiaren harira, CDa argitaratu zela.

TOPONIMIA

## Estankoan eta Ibarraundin dago salgai CDa

2007ko maiatz inguruan, Aitzorrotz etnologia elkarteak batutako informazioa Flash aplikazio batera pasatzeko aukera sortu zen. Ibai Oihangurenek azaldu duenez, hasierako helburua zen datu guztiak informatizatu eta jendearen eskura jartzea. Oihanguren bera arduratu zen hori euskarri informatikora pasatzeaz, Eusebio Villar, Aritz Oianguren eta Joseba Gabilondoren laguntzarekin.

**FERIAN SALGAI**

Flash aplikazio batekin toponimoak mapa batean kokatu zituzten, erakargarriagoa izan zedin. Jarraian, egindako lana CD batean bildu zuten Aitzorrotz kultura elkartearen ekimenez, eta Arimendi ikastolak antolatzen duen ferian jarri zuten salgai, euro baten truke. Oraindik ere estankoan eta Ibarraundin eros daiteke.

**INGURUMENA** > AZOKA

# Uraren gaineko lana aurkeztuko dute

Ekain Martinez Lizarduikoaren 'Ura, gizadiaren ondarea' izeneko liburuaz hitz egingo dute bihar

**M.B.** > ESKORIATZA

Bihar eta etzi, eraikuntza iraunkorraren azoka egingo dute pilotalekuan. Bigarren edizio horretan, hainbat berrikuntza daude: batetik, Ekain Martinez Lizarduikoak idatzitako *Ura, gizadiaren ondarea* izeneko liburua aurkeztuko dute bihar, 18:00etan. Lan horretan egileak azaldu du ura ez dela behar bezala baloratzen eta hainbat arazoren iturburu dela; baita horiek aztertu eta irtenbideak mahai gaineratu ere. Bestetik, bertako produktuak kontsumitzea iraunkortasunarekin lotuta dagoenez, intxaursaltsa dastatzeko aukera egongo da liburuaren aurkezpenean.

**HAMAR ENPRESA**

Horretaz gain, hamar enpresak euren produktuak ezagutaraziko dituzte: Arcilandek, egurrezko etxeak; Bidatekek, urak arazteko zizare bidezko sistemak; Ecogrifok, txorrotetan ura aurrezko gailuak; Eurenerrek, eguzki plakak; Ingekak, geotermia; Kapelbik, biomasa bidezko galdarak; Primeriak, konpostajea eta birziklatze sistemak; Resolnorrek, euri urak jasotzeko biltegiak; eta Taerrek, eguzki plaka bidez dabiltzan jostailuak, bizikletak eta motor elektrikoak. Oreka Arkitektura enpresa ere han izango da.

Azoka bihar eguerdian zabalduko dute 14:00ak arte, eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara bisitatu ahalko da. Domekan, berriz, 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik. Joan den urtean bezala, herriko emakume talde batek taloak egingo ditu han.




Joan den urtean pilotalekuan egindako azoka. ARTXIBOA

## oharrak

UMEAK
**> Arropa margotzen ikasiko dute ludotekan, 18:00etan**
Gaur, egubakoitza, arropa margotzeko tailerra izango dute ludotekan, 18:00etan. Eguenean, azaroak 26, berriz, karaoke festa egingo dute 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako.

GAZTEAK
**> Eingeinkek bertso afaria egingo du gaur Dorleta elkartean**
Eingeinke gazte mugimenduak bertso afaria egingo du gaur, egubakoitza, Dorleta elkartean, 21:30ean. Julen Zelaieta eta Haritz Casabal bertsolariek parte hartuko dute afari horretan.

KIROLA
**> Aste bukaerako hitzorduak**
Kirol hitzorduak daude datozen egunotan kiroldegian. Bihar, saskibaloiko hiru lehia egongo dira: 16:00etan, kadete eta junior mailetako nesken partiduak jokatuko dira; lehenengoa Andraitz A taldearen kontra eta bigarrena Añorga A taldearen kontra. 18:00etan, senior mailako nesken norgehiagoka dago. Etxekoak Alde Zaharra KKE taldekoen aurka arituko dira. Domekan, berriz, Euskal Ligako areto-futbola egongo da Intxaurtxuetan. Eskoriatzarrek M. Petronor izango dute aurrean.

KZGUNEA
**> Dinamizatzailea, 25ean**
KZguneko dinamizatzailea eguaztenean egongo da Eskoriatzan honako ordutegian: 16:30etik 20:00etara. Eskainiko diren ikastaroen gaineko informazioa gura dutenek Eskoriatzako Udalaren webgunean dagoen KZgunearen atalean dute ikusgai.


Duela urte batzuk uretako parkea egiten zen Eskoriatzako kiroldegian; goiko irudia 2006. urtean aterata dago. ARTXIBOA

**GIZARTEA** > AISIALDIA

# Umeendako uretako parkea itzuliko da domekan igerilekura

Arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara, bi puzgarri jarriko dituzte; horretan ibiltzeko adinaren araberako bi txanda antolatu dituzte

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA
Eskoriatzako Udalak uretako parkea berreskuratzea erabaki du, hainbat urtez egin barik egon ostean. Hala, domeka arratsaldea kiroldegiko igerilekuan jolasean pasatzeko aukera izango dute eskoriatzarrek.

Gazteria teknikari Maider Etxanizek azaldu digu uretako bi puzgarri handi jarriko dituztela igerilekuan eta umeak, gazteak zein helduak sartu ahal izango direla. Baina bi txanda izango dituzte horietan ibili ahal izateko: 16:00etatik 18:00etara 10 urtetik beherakoen txanda izango da; eta 18:00etatik 20:00etara, 11 urtetik gorakoena.

Igerilekuan soroslea egongo den arren, Etxanizek jakinarazi digu 6 urte baino gutxiago dituzten haurrek heldu batekin joan beharko dutela hara. Horretaz gain, azaldu digu kiroldegiko bazkideek bi euro ordaindu beharko dituztela, eta gainontzekoek, hiru euro.

**HILERO EGITEKO ASMOA**
Ekimena behin baino gehiagotan egiteko asmoa dutela ere esan digu. Herritarren artean esandako ekimenak harrera ona badu, hilabetean behin jarriko dutela aipatu digu. Horren harira, hauxe gogorarazi du: "Lehen, arrakasta handia zuen uretako parkeak, eta, hortaz, garai bateko jolasparkea berriz egitea pentsatu dugu; gainera, kontuan hartu behar dugu negua datorrela eta ederto pasatzeko alternatiba ezin hobea izan daitekeela".

**MUSIKA** > SANTA ZEZILIA EGUNA

# Urteroko kontzertua eskainiko du bihar bandak, parrokian

Musika emanaldia 20:00etan hasiko da eta 45 minutu inguru iraungo du; sei pieza joko dituzte denbora tarte horretan

**M.B.** > ESKORIATZA
Etzi, domeka, Santa Zezilia eguna da; musikarien eguna, hain zuzen ere. Hori ospatzeko, Eskoriatzako musika eskolako bandakoek kontzertua eskainiko dute bihar iluntzean.

Ohikoa den moduan, San Pedro parrokian izango da hori, 20:00etan. Musika emanaldian askotariko adineko 35 kide inguruk parte hartuko dute; gazteenak 12 urte ditu eta nagusienak, berriz, 60 urtetik gora.

**ERREPERTORIOA**
Bandak dagoeneko zehaztu du aurtengo kontzertuko errepertorioa. Horren harira, gogoratu behar da urtero kontzertu ezberdina ematen dutela. Hiru ordu laurden inguru iraungo duen emanaldian, Michael Friedmann konpositorearen *Festmarsch*, J. Forden *D'Schangfloppen*, Jan D' Haanen *Orlando Suite*, Emilio Cebrianen *Acuarelas campesinas* eta Peter Kline Schaarsen *All I ask of you* piezak joko dituzte musikariek; azken hori *The Phantom of the Opera*-ren zatia dela jakinarazi digute.

Bost pieza horietaz gain, betiko moduan, kontzertua amaitu aurretik seigarren bat ere joko dutela esan digute herriko musika eskolako bandakoek. Dena dela, ez dute nahi izan pieza horren gaineko informaziorik eman.

Biharko emanaldia prestatzeko esfortzu berezia egiten dute bandakoek, Santa Zezilia eguneko kontzertua ikusteko parrokia bete egiten delako. Urte osoan dituzte entseguak, egubakoitzetan. Gaur, San Pedro parrokian bertan egingo dute azken entsegua.


Bandakoek hainbat kontzertu egiten dituzte urtean; tartean, jaietakoa. ARTXIBOA

Jone Legorburu > Bidaiaria

# "Txina barruan herri ezberdin asko dago"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

**Aurtengo udan Kirgizistanen eta Txina iparraldean ibili da Jone Legorburu. Han ateratako argazkiak erakutsi eta bizi izandako abenturak kontatuko ditu azaroaren 24an, 18:00etan, Olaranen.**



Jone Legorburu, Binglinsiko kobetan. GOIENKARIA

**Bidaiazalea zara?**

Gustuko dut bidaiatzea eta udan saiatzen naiz bidaia luzeren bat egiten. Iaz Myanmar-en izan nintzen eta asko gustatu zitzaidan; Katxemiran pare bat aldiz izan naiz eta Indiak baditu beste alderdi polit batzuk ere. Asia-zalea naiz, baina joaten naizen toki guztietan gozatzen dut.

**Oraingoan, zergatik Txinara?**

Nire asmoa Iranera joatea zen, baina bisatu kontuengatik ezin izan nuen. Orain dela bi urte Zetaren Bidea hasia nuenez, jarraitzea erabaki nuen. Uigurrak bizi diren Kashgar hirian bada animalien merkatu berezi bat, eta ezagutu egin nahi nuen.

**Non ibili zara?**

Kirgizistanen eta Txina iparraldean izan naiz. Kirgizistango mendialdean nomadak nola bizi diren ikusi dugu. Gero, Txinan, Xinjiang probintzian izan ginen. Han, uztailean, uigurren eta han izeneko etniakoen arteko borrokak izan ziren. Uigurrak musulmanak dira eta ikusi ahal izan genuen Txina barruan egon arren jende ezberdina dela. Handik joan ginen *Tibet txikia* deitzen dioten aldera. Han budismo tibetarra dago, bizi izateko era eta jantzekera bereziekin. Inguru hartan beste etnia musulman bat ere bizi da. Horrek erakutsi digu ez dagoela Txina bakarra, gehiago baizik.

**Zer izan da bidaian bereziena?**

Ikustea Txinaren barruan herri ezberdin asko dagoela. Bestalde, Kirgizistan gehiago eta sakonago ezagutzeko gogoz geratu naiz eta uigurrak bizi diren ingurua ere berezia iruditu zait; jendearen itxurak eta inguruaren estetikak ez zuen Txina akordarazten. Etnien nahasketa gertutik bizi izatea interesgarria izan da.

> JENDARTEA

## Gazte Asanbladakoek batzar orokorra egingo dute zapatuan, gaztetxearen etorkizunaz hitz egiteko

Zapatuan, azaroaren 21ean, 19:00etan, batzar orokorra egingo dute Antzuolako Gazte Asanbladakoek gaztetxean. Bilera izango da gaztetxearen etorkizunaren gaineko argibideak emateko eta horri buruz eztabaidatzeko. Bestalde, domekan, azaroaren 22an, zinema saioa izango da gaztetxean, 17:30ean. Brad Anderson zuzendariaren *El maquinista* filma emango dute.

> ELKARTASUNA

## Anelkarrek bidezko merkataritzako produktuak saltzeko mahaia ipiniko du gaur arratsaldean

Gaur, egubakoitza, arratsaldean, bidezko merkataritza produktuak saltzeko postua ipiniko du herrian Anelkar elkarteak. Batik bat, jatekoak erosteko aukera izango dute antzuolarrek; besteak beste, kafea, azukrea, txokolatea eta kakaoa. Herritarrak animatu nahi dituzte horrelako produktuak eskuratzera garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko.

> BERTSOLARITZA

## Euskal Herriko Txapelketako finalerako sarrerak Itzar liburu dendan bakarrik salduko dituzte

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala abenduaren 13an izango da Barakaldon, BEC erakustazokan. Finalerako sarrerak orain arte bi lekutan izan dira salgai Antzuolan, baina orain toki bakarrean eskuratu ahal izango dira: Itzar liburu dendan. Sarrerek 26 euro balio dute.

> MUSIKA

## Abesbatzaren eta txistularien emanaldiak izango dira domekan Santa Zezilia eguna ospatzeko

Azaroaren 22an, domekan, Santa Zezilia eguna izanik, musika hitzordurik ez da faltako egun horretan herrian. Goizean, 11:00etan, herriko abesbatzak Antiguako elizan kantatuko du. Bestalde, arratsaldean, 19:00etan, txistularien kalejira izango da herriko kaletan barrena.

**AISIALDIA** > ARGAZKILARITZA

# Argazki lehiaketako lanen erakusketa Olaranen

I.A. > ANTZUOLA

Zapatuan (azaroak 21) eta domekan (azaroak 22), XV. argazki lehiaketako argazkien erakusketa izango da Olaran etxean, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

Lehenengo mailan, 6 eta 12 urte artekoetan, 17 lan aurkeztu dituzte, eta, epaimahaikoen esanetan, oso maila oneko lanak jaso dituzte. Bigarrenean (13-18 urte) maila txikiagoa izan da eta 14 lan aurkeztu dituzte. Hirugarren mailan, 19 urtetik gorakoenean ere maila ona izan da eta zaila izan dute 40 lanen artetik argazki irabazleak aukeratzea.

Epaimahaia Antzuolako argazki dendako Mari Paz Ugaldek eta Bergarako Kiñuko Juanje Amasorrainek osatu dute.

**HERRITARREN SARIA**

Epaimahaikoen sariez gain, herritarrek aukeratutako argazki onenaren sariak ere banatuko dituzte. Horretarako, erakusketan kutxa bat ipiniko dute eta antzuolarrek maila bakoitzeko boto bana eman ahal izango dute azaroaren 28ra bitartean.

Sari banaketa azaroaren 29an, domekan, egingo dute, 18:30ean, Olaranen, eta hilaren 28an ere erakusketa izango da.

**AISIALDIA** > GAZTETXOAK

# Zapatuan zabalduko dute gazte txokoa Eguzki auzoan

I.A. > ANTZUOLA

Gazte txokoa bihar, zapatua, zabalduko dute Eguzki auzoan. Izena emateko epea amaituta, 12 eta 14 urte bitarteko 26 gaztetxo animatu direla esan digu koordinatzaileak. Haiek zapatu eta domeka arratsaldeetan 16:00etatik 20:00etara joateko aukera izango dute.

Oraindik zehazteke dago zapatu gauetan zabalik izango den ala ez. Idoia Ramirez de Okariz koordinatzaileak hauxe esan digu: "Iaz, abenduan eta urtarrilean, hotz egiten duen sasoian, zapatu gauetan zabaltzeko eskaria egin ziguten gaztetxoek, baina gero apenas etortzen zen inor. Hortaz, aurten zer egingo dugun ez dakigu".

**GAZTEEKIN LOKALA EGOKITU**

Lehen egunean, gazte txokoaren irekiera ospatzeko merienda egingo dute, baina lanean ere ipiniko dituzte gaztetxoak. "Gure asmoa da gazte txokoan egongo diren gazteekin egokitzea lokala. Hau da, gauzak eurek nahi duten tokian ipintzeko aukera emango diegu, betiere egokia izanez gero. Sukaldea ere oraindik ipintzeke dago", dio Idoia Ramirez de Okarizek.

Zapatutik aurrera, beraz, herriko gaztetxoek izango dute aisialdirako beste txoko bat Antzuolan aste bukaeretan.

PATXI CASTRO
Era guztietako aulkien konponketa
Tapizatu lanak
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

DEKORAZIOA ABAD PINTURAK ANTZUOLA PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ELKARTASUNA > ERAKUSKETA

# Bangladeshko ume langileak argazkitan

Bideberri mankomunitateak diruz laguntzen duen eskola ikusgai dago erakusketan



Dakhako ume langileak, eskolan lo. JOSE ALONSO

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Gaur egun hiru milioi haur baino gehiago lan-esplotazioaren biktima dira Bangladeshen. Elgetako Udalak, Bideberri mankomunitateak eta Intervida GKEk haurren lanaren mundua barrutik ezagutzera eman gura dute Espaloian ipini duten argazki erakusketarekin.

**UMEENDAKO BOST ESKOLA**

"Dakha hiriburuko fabriketan lan egiten duten haurren aurpegiak ikus daitezke erakusketan", adierazi du Intervidako ordezkari Vanessa Coloradok. "Bost eskola ditugu bertan zabalik, eta 520 ume hartzen ditugu, tartean Bideberri mankomunitateak emandako laguntzari esker."

Jose Alonso argazkilariak duela bi urte Dakhan egindako 24 argazki zintzilikatu dituzte Espaloian. "Umeak lanean eta eskolan ikusiko dituzue", esan du Coloradok. "Eskolan lotan ere ikusiko dituzue; izan ere, atsedena umeen eskubide bat ere bada".

Elgeta ere hartzen duen Bideberri mankomunitateak bost proiektu diruz lagundu ditu aurten: Intervidak 2.683,95 euro jaso ditu Bangladeshko eskoletarako; Felix Baltistan Fundazioak, 2.683,95 euro; Mundu Solidarioa Helburu elkarteak, 1.500 euro; Gipuzkoako Oskar Romero solidaritza batzordeak, 1.942,38 euro; eta Anelkarrek, azkenik, 6.939,72 euro jaso ditu.



Ostiada Oi! taldeak Danbakan parte hartu zueneko argazkia. GOIENKARIA

MUSIKA > KONTZERTUA

# Bihar gaztetxean Ostiada Oi! taldearen kontzertua

L.Z. > ELGETA

Ostiada Oi! taldeko mutilak ez dira bihar, zapatua, gaztetxeko agertokian bakarrik egongo. Beste bi talde izango dituzte lagun: Coldblood eta Jonny Gerriwelt taldeak; Ondarroakoak, hain zuzen ere. Kontzertuak agur kutsua izango du; izan ere, Elgetako gaztetxean behin baino gehiagotan emanaldia egin duen Jonny Gerriwelt taldearen azken emanaldia izango da biharkoa. Lagunarteko kontzertua izango da, beraz.

Antolatzaileek aurreikusten dute kontzertuari 22:30ean hasiera ematea. Sarrera hiru euro da.

**AURRETIK, AFARIA**

Eta aste bukaerari hasiera betebetea eman nahi diotenendako, gaztetxekoek afaria ere antolatu dute biharko. Patatak errioxar erara, solomoa piperrekin, postrea eta txokolatea daude menuan, eta zortzi eurotan dago. Gaur, barikua, da afari horretarako izena emateko azken eguna, Haizea tabernan.

AISIA > IKASTAROAK

# Aurrera atera da dantza ikastaroa zortzi umerekin

Hirugarren spinning taldea ere sortu dute; saioak astelehenetan eta eguaztenetan dira

L.Z. > ELGETA

Astelehenetan elkartzen dira eskolako gela batean dantza ikastaroan izena eman duten zortzi umeak. "5-8 urte bitarteko umeak dira eta kopuru polita da. Dantza ezberdinak egiteko aukera ematen du", adierazi du Patxi Montero irakasleak. Gehienbat, korro dantzak landuko dituztela esan du Monterok. Hasiera batean ikastaroa eskolako ganbaran egitekoa bazen ere, eskolako gela batean egingo da azkenean.

**SPINNING TALDE BERRIA**

Eta aurrera egin du, era berean, spinningeko hirugarren taldeak. Asteon hasi dituzte saioak. Astelehenetan eta eguaztenetan batuko dira, 20:00etan.

Ez du arrakasta bera izan marmelada, kontserba eta likore ikastaroak. Ozkarbi elkartean egitekoa zen, baina herrian hiru lagunek bakarrik eman zuten izena. Hiru lagun horiei Angiozarren hasi duten ikastaro berera joateko aukera eman zaie.

**PODOLOGOA, EGUENEAN**

Podologoak eguenean, hilak 26, egingo du azaroko bisita Elgetara. Ez ditu 22 bezero baino gehiago hartuko eta txanda eskatzea ezinbestekoa da. Deitu Nati Arrietari: 943 76 80 77.

4 t'erdiko pilota txapelketa

## Txapelketan buru-belarri sartuta gehienak

Txapelketako beste zortzi norgehiagoka daude aurreikusita asteburuko. Eta barkamena eskatu beharrean gaude, aurrekoan akatsarekin agertu zelako behin-behineko sailkapena. Hemen, uneotakoa.

| 40 URTETIK GORAKOAK | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **1.** Angel Ibarluzea - Alberto Telleria | 4 | 4 | 0 |
| **2.** Koldo Goenaga - Alex Arantzabal | 5 | 3 | 2 |
| **3.** Joseba Arbulu - Mikel Elkoro | 5 | 3 | 2 |
| **4.** Asier Morales - Fernando Zenitagoia | 4 | 3 | 1 |
| **5.** Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre | 3 | 2 | 1 |
| **6.** Luisan Alkorta - Gorka Bolinaga | 5 | 2 | 3 |
| **7.** Jose Mari Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu | 3 | 1 | 2 |
| **8.** Pello Larrea – Jesus Belamendia | 4 | 0 | 4 |
| **9.** Julio Calleja - Mikel Arkarazo | 3 | 0 | 3 |

| 40 URTETIK BEHERAKOAK | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **A ligaxka** | | | |
| **1.** David Peñalver - Txomin de Vega | 3 | 3 | 0 |
| **2.** Enrike Elkoro - Oier Billa | 3 | 2 | 1 |
| **3.** Mikel Ormaetxea - Jon Irazabal | 2 | 1 | 1 |
| **4.** Oxel Erostarbe - Gorka Arizmendiarrieta | 2 | 1 | 1 |
| **5.** Gaizka Bolinaga - Igor Irazabal | 2 | 0 | 2 |
| **6.** Haritz Gallastegi - Kepa Odriozola | 2 | 0 | 2 |
| **B ligaxka** | | | |
| **1.** Iban Retolaza - Jabier Larrañaga | 2 | 2 | 0 |
| **2.** Unai Alkorta - Etor Garate | 2 | 2 | 0 |
| **3.** Asier Osoro - Sergio Bouzas | 2 | 1 | 1 |
| **4.** Argoitz Arantzabal - Koldo Erostarbe | 2 | 1 | 1 |
| **5.** Samu Gorrotxategi - Luis Atorrasagasti | 3 | 1 | 2 |
| **6.** Gaizka Etxeberria – Satur Ramos | 3 | 0 | 3 |

bere ustez



Geaxi Ezpeleta

# Ez dira betiko garai onenak

Ez dira betiko garai onenak…. Hertzainek taldeak bere abesti ezagunean esaten zuten bezala. Arrazoi desberdinak medio, gaur egun lelo berdina errepikatzen da han eta hemen.

Krisia gora eta krisia behera, jendea leporaino sartuta, itota, nola gainditu, nola egin aurrera, nola suspertu gure ekonomia. Soluzio bidea eta erantzuna, bakarra... kontsumitzea!! Hori diote bederen gaiaz ulertzen omen duteenek.

Nik egia esan ez dut ekonomiaz gauza handirik ulertzen, ni ez naiz aditua. Baina,

**"Krisia gora eta krisia behera (...) soluzio bidea (...) bakarra... kontsumitzea!"**

badakit, gure belaunaldikoak garai oparokoak garela. Eta hau da bizitzea tokatu zaigun lehen krisia.

Baina, ez da eman den lehenengoa, eta ez da izango azkena ere. Eta tamalez, ziurrenik, ez da hori gure kontsumismo asegabearen eraginez ikusiko dugun ondoriorik latzena izango.

Badakit, baita ere, denok dugula gogoko ondo bizitzea, ahal bezain erosoen. Ni lehenengoa. Egia esan erosotasun gehiegira ohituak gaude. Eta agian bada garaia gure gizarte ereduaren, sistema ekonomikoaren eta bizi estiloaren inguruan hausnar dezagun. Baina lehen aipatu bezala, ni ez naiz aditua.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA


Ermitaren hasierako egoera. M.A. BURGI


Herritarrak, teilatua konpontzen. M.A. BURGI


Erretaula, berrituta. M.A. BURGI


Ermita berritu egin dute eta oso txukun geratu da. M.A. BURGI

**ONDAREA** > SANTIKURTZ ERMITA

# Auzolanak emaitza ona izan du Santikurtzen

Ermitak aurpegi berri dauka; teilatua, hormak eta erretaula konpondu dira

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Santikurtz ermita oso egoera txarrean zegoen: teilatua erortzeko zorian eta barrutik ere nahiko hondatuta. Hori horrela, herritar talde batek erabaki zuen auzolanean ermita goitik behera eraberritzea. Deialdiak arrakasta izan zuen; hasiera batean ez zuten zorterik izan, eguraldi txarra zela-eta pare bat bider atzeratu egin behar izan zuten-eta deialdia. Baina udan, azkenean ere, lortu egin zuten helburua: asteburuak aprobetxatuta, txukun-txukun utzi zuten ermita. Migel Angel Burgiren zuzendaritzapean egin zituzten konponketak eta emaitza ikusi besterik ez dago: Santikurtz ermitak aurpegi berria dauka.

Teilatua guztiz eraberritu dute, barruko zein kanpoko hormak konpondu eta sendotu egin dituzte eta paretak, burdinazko hesia eta egurrak margotu egin dituzte. Horrez gain, aipatzekoa da Iturri-Zuri elkarteko emakumeek erretaularekin egin duten lan bikaina; jaso eta herrira eraman zuten eta eskulan eskolan berritu egin zuten.

Ermitaren berritze lanak bultzatu dituen taldeak eskerrak eman nahi dizkie konponketa lanetan parte hartu duten guztiei. Urtarrilaren 1ean Orixol mendizale askoren topagune izango da; beraz, aukera ezin hobea izango da Santikurtz ermitaren aurpegi berria ikusteko.

**E PLANA**

## Laguntzekin zer egin proposatu ahalko da

Herritarrek udaletxean egin beharko dituzte ekarpenak

**A.B.** > ARAMAIO

Datorren urtean ere Espainiako Gobernutik 160.972 euroko dirulaguntza jasoko du Aramaioko Udalak. Momentu honetan, Udal Gobernua aztertzen ari da udalerrian zein lan edo hobekuntza egin daitezkeen jasoko duen diruarekin. Eta azterketa horretarako herritarren laguntza eskatu dute; hori horrela, herritarrei proposamenak egiteko eskatu diete. Hau da, sumatzen dituzten gabezien berri ematea edo haien ustez inbertsioak zein sektore indartzeko erabili beharko liratekeen azaltzea.

Dena dela, jasotako dirulaguntzekin egingo diren proiektuek baldintza jakin batzuk bete beharko dituzte; adibidez, energia aurreztera edo energia garbiak erabiltzera bideratutakoak izan beharko dute, edo hezkuntza zentroen azpiegiturak hobetzera. Espainiako Gobernuaren baldintzen gaineko informazioa ikusgai dago Aramaioko Udaleko webgunean: *www.aramaio.org*.



SAN MARTIN ESKOLA

## Eskolako txikiak Arrikrutzen izan dira asteon

San Martin eskolako 4 eta 5 urteko neska-mutikoak Arrikrutzen izan ziren joan den martitzenean. Bisita ezin aproposagoa izan da; 5 urtekoak *Kobazuloko biztanleak* gaia lantzen ari dira eskolan eta 4 urtekoak, berriz, *Hartza*. Txikitxoak aho zabalik geratu ziren kobazuloetan ikusitakoarekin, eta pozik itzuli ziren etxera. Eskolan entzun eta ikasitakoa bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten.

> ALAIAK ELKARTEA

## Erretiratuek estresaren eta antsietatearen gaineko hitzaldia antolatu dute hilaren 26rako

Alaiak erretiratuen elkarteko kideek oraingoan ere hitzaldi interesgarria antolatu dute. Azkeneko aldiz kontserbak egiten ikasi zuten Jakion enpresaren eskutik. Eta oraingo honetan, estresaren eta antsietatearen inguruko hitzaldia antolatu dute eta GaraiOn NaturArtea elkarteko kide batek egingo du.

Azaroaren 26ean izango da, eguena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hitzaldiak bi zati izango ditu: lehenengoan, alde teorikoa landuko dute; eta ondoren, ikasitakoa praktikan ipiniko dute. Hori horrela, gomendatu dute hitzaldira arropa eta oinetako erosoarekin joatea. Erretiratuek antolatutako hitzaldia izan arren, edozeinek har dezake parte bertan.

> ORIXOL ELKARTEA

## Gaur, barikua, 'Zeelanda Berria Cook 3754m' dokumentala emango dute kultura etxean

Aramaioko mendizaleek eta abenturazaleek hitzordua daukate gaur iluntzean kultura etxean. 19:00etan, Zelanda Berriaren inguruko bideo emanaldia egongo da: *Zeelanda Berria Cook 3754m* dokumentala eskainiko dute.

Natura maite dutenendako benetako paradisua da Zeelanda Berria: animalia bitxiak, mendi ikusgarriak, sumendiak eta itsas fauna aberatsa. Hori guztia ezagutzeko aukera eskainiko du dokumentalak. Garbiñe Tolosaren esaldi xumeek eta Pello Ramirezek bereziki sortutako doinu hunkigarriek eman diote bizitza *Zeelanda Berria Cook 3745m* lanari.

**HIRIGINTZA** > SANTA KOLUNBA

# Ermitako lanen lehen fasea bukatuko dute

## Teilatua berritu egin zuten udaberrian Estatu Fondoko dirulaguntzarekin; orain, Udalak jarriko du dirua lanok bukatzeko

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gatz museora bidean dagoen Santa Kolunbako ermita berritzea erabaki du aurten Udalak eta lehen faseko lanak hasi zituzten udaberrian. Teilatua berritu zioten orduan, baina lanak guztiz bukatu barik geratu ziren. Azaroaren 3an egindako osoko bilkuran lehen fasea bukatzea erabaki zuten.

**URA JASOTZEKO HODIAK**

Elizak emandako ermitari Estatu Fondoko dirulaguntzari esker berritu zioten teilatua. Orduan, baina, 44.000 euro bakarrik iritsi ziren Gatzagara Espainiako Gobernutik, eta lehen faseko lan guztiak ezin izan zituzten bukatu; beste 30.000 euro inguru behar ziren horretarako.

Lanok bukatzeko Udalak berak jarriko du diru horren zati bat eta landa garapena sustatzeko Erein egitasmoaren bitartez jasoko du beste zatia. Teilatua berritu zion Eskoriatzako Razkin enpresak ura jasotzeko hodiak jarriko dizkio orain ermitari, eskuinaldean.

**BIGARREN LAGUNTZA**

Estatu Fondotik bigarren dirulaguntza etorriko dela iragarri dute oraintsu: 28.432 euro Gatzagara. Udalak oraindik ez du erabaki zertarako erabiliko duen, batez ere oso kopuru txikia delako: "Ermitako bigarren fasea hasi gurako genuke, baina oso diru gutxi da eta lanok erdi eginda ez ditugu utzi gura", azaldu du Eusebio Villar alkateak.

> INTERNET

### Dinamizatzailea izango da gaur KZgunean

Gaur arratsaldean (16:00-20:00) Aitor Madrid dinamizatzaileak zabalduko ditu KZguneko ateak. Lau orduan egongo da gatzagarren zalantzak argitu eta ikastaroak egiteko gertu. Ikastaro horiek bi ordukoak dira, eta Internetek eskaintzen dituen hainbat zerbitzuren berri emateko: sare sozialak –*Facebook, Twiter*…–, blogak, *Google*-en erabilerak, software librea, wifi teknologia…

**UDALA** > ZERBITZUA

## Herritar bakarra aurkeztu da bake epaile izateko deialdira

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Bake epailea eta haren ordezkoa hautatu gura ditu Udalak datozen lau urteotarako. Martitzenean bukatu zen aurkezteko epea eta eskaera bakarra jaso dute udaletxean. Orain, eskaera hori aztertuko du Udalak osatutako epaimahaiak, eta, egokia dela iritziz gero, hurrengo osoko bilkuran izendatuko dute. Bake epaileak derrigorrez 18 urtetik gorakoa izan behar du eta Gatzagan bertan bizi dena.

Erregistro zibilari dagozkion kontuak bideratzen ditu, batez ere: jaiotzak, ezkontzak, liburuetan inskripzioak… Eta bitartekari lanak ere egiten ditu; epaitegietatik gatzagarrendako datozen deialdiak bideratu, esaterako. Azken urteotan Jose Inazio Beloki izan da bake epailea eta ordezkorik ez da egon.



M.A.

## Txerrikia janda joan da San Milixan feria

*San Milixan, ardikixa jan eta aketeixan*, dio esaerak, baina aurten txerrikia janda edo, behintzat, erosita joan da feria; ezin hobeto joan ere. Txerri-ezteiaren inguruan antolatutako ikuskizunak jakin-min handia sortu zuen; jakin-mina bakarrik ez, txerri gosea ere bai. Hala, Basatxarri izendapeneko okelarekin –150 kiloko txerri bat eta 250 kiloko beste bat– aurreko egunetan gertatu eta salgai jarritako odoloste eta txitxikiak ordubetean *desagertu* zitzaizkien: "Egunean bertan egindako txorizoak ere eskuetatik *kendu* zizkiguten, etxean jarriko zituztela lehortzen esanda".

*Sorginek*, ostera, 40 kilotik gora irin erabili zituzten taloak egiteko: "Hurrengorako beste plantxa bat jarri pentsatu beharrean gaude", azaldu dute.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Azaroko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

ANTZERKIRAKO SARRERAK

Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

UMEENTZAKO LIBURUAK
PAMIELA

Bidali AG LIBURUAK
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

SASKIBALOI PARTIDURAKO SARRERAK

Bidali AG BASKET
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
EKFB

Bidali AG ZIRA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

SARI NAGUSIA
IRAILA-AZAROA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA

AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
• Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
• Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
• Informatika eta teknologia berrien produktuak.
Amillaga 32 • 943 76 59 60
(auto garbigailu ondoan)
Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*



Joan den urtean Arrasateko eskalatzaileek euskal selekziokoei egin zieten aurre. JOSETXO ARANTZABAL

**ESKALADA** > EUSKADIKO BOULDER TXAPELKETA

# Santamasek eskalada onena ekarriko dute

Santamasetako boulder txapelketa maila gorenera iritsiko da aurten, Euskadiko Txapelketa egingo dute-eta

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Debagoieneko Eskalatzaileak taldeak beste pauso bat eman nahi izan du aurtengo Santamasetako *Punk that rock* boulder txapelketa antolatzeko orduan. Izan ere, abenduaren 19rako egin duten hitzordua Euskadiko Boulder Txapelketa izango da: "Taldeko ordezkari Joxean Mulas Gipuzkoako teknifikazio zentroko arduraduna da, eta baita Euskadiko selekzioko hautatzaile ere. Hala, federazioarekin hartu-eman handia du, eta hortik jaso genuen txapelketa herrian antolatzeko proposamena; izan ere, iazko esperientzia oso ona izan zen", adierazi dio GOIENKARIAri taldeko kide Mikel Castillok.

Txapelketa hori Arrasatera ekartzeko aurrekontu handia behar da, eta aurten ere Arrasateko Udalaren eta Federazioaren laguntza izango dute: "Hau ez da, lehengo Santamasetako txapelketa moduan, 500 eurorekin antolatzen. Txapelketa honek 13.000 euro inguruko aurrekontua du; izan ere, eskalatzeko panelak alokatzen 8.000 euro gastatzen ditugu". Hala, abenduaren 19an Euskal Herriko eskalatzaile onenak batuko dira Uarkapen: "Txapelketa horretan elite mailako eskalatzaileek hartuko dute esku, baina, urtero moduan, kategoria herrikoia ez dugu alde batera utziko, arrakasta handia du-eta.

Iazko txapelketa oso arrakastatsua izan zen, jende asko batu zelako harmailetan txapelketa ikusten, eta baita parte hartzen ere: "Horrenbeste jenderekin gainezka ere egin genuen, eta aurten ahaleginduko gara izenematea lehenago jartzen".

**MIKEL VELASCO, PODIUMEAN**

Bestalde, joan den astean Ifeman egin zuten Espainiako eskalada kopan Euskadiko selekzioarekin lehiatu ziren ibarreko Mikel Velasco (hirugarren), Miriam Mulas (bosgarren), Aritz Domingez (seigarren) eta Iñaki Viejo (bederatzigarren).

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Reala-Cartajena
Domeka. 12:00. Anoeta.

**Hirugarren maila**
Zamudio-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Gazituaga.

**Gazteen liga nazionala**
Aretxabaleta-Hernani
Zapatua. 17:45. Ibarra.

**Gazteen euskal liga**
Bergara-Laudio San Rokezar
Domeka. 15:30. Agorrosin.

**Ohorezko erregiona maila (lehengo preferentea)**
Beti Gazte-Bergara
Domeka. 16:00. Lesaka.
Tolosa-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Berazubi.
Mondra-Trintxerpe
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Erregional preferentea**
Amaikak Bat-Antzuola
Zapatua. 16:30. Errotazar.
Aretxabaleta-Lagun Onak
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
UDA-Arizmendi-SBB Mutriku
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Gazteen ohorezko maila**
Lagun Onak-Burumendi
Zapatua. 17:15. Garmendipe.
Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Zumaiako-Mondra
Zapatua. 16:00. Zumaia.

**Gazteen lehen maila**
Bergara-Urola
Zapatua. 17:00. Ipintza.
Eibartarrak-Arizmendi
Domeka. 17:00. Unbe.
Soraluze-Aretxabaleta B
Zapatua. 11:00. Estala.

**Ohorezko kadeteak**
Aloña Mendi-Aretx. Arizmen.
Zapatua. 11:15. Azkoagain.
Ordizia-Bergara
Zapatua. 12:30. Ordizia

**Emakumezkoen liga**
Aloña Mendi (atsedena).
Arizmendi-Elgoibar
Domeka. 12:00. Almen.
Eibar-Bergara
Domeka. 13:30. Unbe.
Amaikak Bat-Mondra
Domeka. 16:00. Errotazar.

**Emakumezkoak F11 kadeteak**
Mondra-Anaitasuna
Zapatua. 10:00. Mojategi.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila**
MU-EHU Araba
Zapatua. 18:00. Ituripe.

**Senior autonomikoa**
Diocesanas-Aloña Mendi
Zapatua. 20:00. Gasteiz.

**Gipuzkoako seniorrak**
Kostkas-Soraluce BKE
Domekan. 10:00. Donostia.
Aloña Mendi-Gabi jatetxea
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Soraluce BKE B-Katu Kale
Domeka. 18:30. Bergara.

**Senior emakumezkoak**
Eskoriatza-Alde zaharra
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

**Gazte emakumezkoak**
Eskoriatza-Alde zaharra
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

**Gazte gizonezk. errendim.**
MU A-Krafft Atco
Zapatua. 10:00. Musakola.

**Gazte gizonezk. partaid.**
Zast Zarautz-MU B
Zapatua. 16:00. Zarautz.
BKL-Aloña Mendi
Zapatua. 12:15. Beasain.
Billabona-Soraluce BKE
Zapatua. 13:30. Billabona.

**Gazte emakum. partaidet.**
Eskoriatza-Añorga A
Zapatua. 16:00. Intxaurtx.

**Kadete gizonezk. errend.**
MU A-Zarautz
Zapatua. 12:00. Musakola.

**Kadete gizonezk. partaid.**
MU B-Aurrera Take
Domeka. 11:00. Musakola.
Ayma Goierri-Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Urretxu.
Bide Bide-MU B
Zapatua. 12:00. Urretxu.
Zarautz Zast-Soraluce BKE
Domeka. 10:00. Zarautz.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko seniorrak**
Ford Mugarri-Suc. Aguirre
Zapatua. 18:00. Musakola.

**Euskadiko senior mailako emakumezkoak**
Aiala Ost.-Verkol Aloña
Zapatua. 19:15. Zarautz.

**Euskadiko gazte mailako emakumezkoak**
Verkol Aloña-Aiala Ostal.
Zapatua. 16:15. Zubikoa.

**Euskadiko kadete mailako emakumezkoak**
Verkol Aloña-Aiala Ost.
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**Lehen territorial maila**
Alcorta Forgi.-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Elgoibar.
Hegialde-Izarraitz Aloña
Zapatua. 19:00. Legazpi.

**Bigarren territoriala**
Arrasate-Talleres Ondo
Domeka. 11:00. Iturripe.

**Gazte mailako gizonezk**
Berezao Aloña-Hondarribia
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
Talleres Chapime-Tolosa
Zapatua. 16:00. Musakola.

**Kadete mailako gizonezk**
Bergara Soraluce-Usurbil
Zapatua. 12:30. Labegarait.

**Kadete mailako emak.**
Bergara Soraluce-Pulpo
Zapatua. 18:30. Labegaraie.

### ARETO FUTBOLA

**Euskal Liga**
Eskoriatza-Petronor
Domeka. 17:00. Intxaurtxu.

**Gipuzkoako bigarren maila**
UDA-Orly-Bilkoin
Gaur. 20:30. Almen.

### PILOTA

**Eskoriatza**
Gaur. 19:30ean hasita.
Eskoriatza-Aurrera Saiaz.
Zapatua, 16:00etan hasita
Arrasate-Eskoriatza2
Bergara3-Eskoriatza1
Bergara2-Eskoriatza3

**Elgeta**
Gaur. 19:00etan hasita.
Ozkarbi1-Eibar
Ozkarbi2-Zazpi Iturri

**Aretxabaleta**
Gaur. 19:00etan hasita.
Aretxabaleta-Antiguoko2
Aretxabaleta-Tartaloetxe
Aretxabaleta-Ataun

**Bergara**
Gaur. 19:00etan hasita.
Bergara-Hernani
Bergara-Lagunak
Bergara-Aretxabaleta.
Zapatua, 16:30ean hasita
Eibar-Euskal Jolas
Bergara3-Azkoitiko2
Bergara2-EuskalJolas

**Arrasate**
Gaur. 21:30ean hasita.
Arrasateko-Euskal Jolas
Arrasateko2-Antiguoko
Arrasateko-Mundarro




IRABAZI
6.000€
GORBEIAKO 8. URTEBETETZEAN
3.000€ko
Sari bat
erosketa txarteletan
2.000€ko
Sari bat
erosketa txarteletan
1.000€ko
Sari bat
erosketa txarteletan
GORBEIA
ESKORIATZA 10 minutuan
ARRASATE 13 minutuan.
BERGARA 16 minutuan.
SORALUZE 21 minutuan.
EIBAR 23 minutuan.
GORBEIA
gehien aurrezten duzun tokia
Promozio baliagarria azaroaren 20tik abenduaren 19ra.
Oinarriak gerentzian eskatu daiteke.
Etxabarri Ibiña
IRTEERA
AP - 1 EIBAR -GORBEIA
(GASTEIZ)
LUXUS SPORT CARS - ISKIA - ULANKA - ZAPARRASTRILLO - CORTEFIEL - WOMEN´SECRET - DOUGLAS - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD EL BROCHE - AUTOS GP - UNITEC MOVISTAR - ATENCIÓN AL CLIENTE CARREFOUR - VEGA - PRENSA - ESPACE COIFFURE - INMOBILIARIA GORBEIA WANAKA - ORO VIVO - GODO´S – SLIDE - TRIP BISUTERIA - KAVA - SPORTWELL - REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ - PIMKIE - GAME - SUN PLANET SWATCH - NATURA - VODAFONE - BIJOU BRIGITTE - ORANGE - ADMINISTRACION LOTERIA – ONCE - BARCELO VIAJES - ASERPLATA - VITAL KUTXA GRECIA - AMAZONAS - LA RAPA - CEYLAN CAFÉ Y TE - LAHORE - OSCAR G - MODAS ATENEA - EOLO 23 - FARMACIA - TRIP - FOOT LOCKER - SEPHORA M2 CAFETERIA - M2 - KURRUSKO - GAMBRINUS- OKETA - KEBAB - KIOSKO GOXOA - TÚNEL DE LAVADO - CARREFOUR - DECATHLON - BRICO DEPÔT MCDONALD´S - YELMO CINES GORBEIA 3D - NORAUTO - KING JOUET – MUEBLES MAX DESCUENTO – MERKAL CALZADOS - SPLAFF! - SAMIRA - CIMER

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA ETA HIRUGARREN MAILA

# Burua altxatzen hasi da Mondra

Ibarreko taldeen artean Azkargortaren mutilek bakarrik jokatuko dute etxean, bihar 16:30ean

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Mondrak (11 puntu) Mojategin jokatuko du bihar, 16:30ean, liga nahiko txukuna egiten dabilen Trintxerperen (16) kontra –joan den astean Trintxerpek errepaso polita eman zion Real Unioni (4-1). Azkargortaren eta Zaitegiren mutilek azaroari geratzen zaizkion bi jardunaldiak biribildu nahi dituzte, orain arte etekin polita atera diote-eta hilabete honi; bederatzi puntutik zazpi eskuratu dituzte.

Kategoria berean, Bergarak (14) eta Aloña Mendik (11) ligan gorabehera handiekin dabiltzan Beti Gazteren (8) eta Tolosaren (12) kontra jokatuko dute. Etxeko bi taldeek 1-1 egin zuten joan den asteko derbian, eta egia esateko, biendako da nahiko emaitza ona; Bergarak puntu bat lortu zuelako Azkoagain moduko zelai batean, eta Aloñak defentsako lan serioa errekuperatu zuelako, azken asteotako gol jarioa etenda. Bergarak domekan jokatuko du (16:00), eta Aloñak bihar (16:30).



Iker Lopez –Mondrara bueltatu da aurten–, Idiazabalen kontrako partiduan. J.A.

**SAILKAPENEAN BERDINDUTA**

Hirugarren mailan, ligak aurrera egin ahala Aretxabaletak (21) tinko eusten die aurrealdeko postuei, izan ere, hirugarren dagoen Beasain (25) lau puntura baino ez dago. Gordobilen eta Arenazaren mutilak zortzigarren daude sailkapenean, eta puntu kopuru bera duen Zamudioren (21) etxean jokatuko dute zapatuan (16:30) Gazituagan.

> TXIRRINDULARITZA

## Markelen lagunarteak antolatutako spinning saioa bihar Oñatin

Markelen lagunarteak antolatuta spinning saioa egingo dute bihar Oñatiko kiroldegian, 10:00etan. Mikel Astarlozak, Ivan Velascok, Haimar Zubeldiak eta Markel Irizarrek parte hartuko dute saioan. 12:00etan mahai ingurua egingo dute Santa Ana aretoan, eta denboraldia agurtzeko bazkaria egingo dute Zubillagako Zotz jatetxean.

> SASKIBALOIA

## Eskoriatzako neskek Intxaurtxuetan jokatuko dute lider moduan

Joan den astean Añorgaren kontra irabazi ostean, Eskoriatzako neskak lider daude euren mailan. Hori horrela, lehenengo tokitik Alde Zaharra taldearen bisita jasoko dute bihar Intxaurtxuetan, 18:00etan. Fernando Rasoren neskek talde sendoa dutela erakutsi gura dute, eta etxeko hirugarren partidua irabazteko asmoz irtengo dira kantxara.

> MENDIA

## Bigarren eskuko materiala erosteko azoka astelehenean

Bergarako Pol-Pol mendi taldeak bigarren eskuko materiala saltzeko azoka egingo du datorren astean, astelehenetik egubakoitzera, 19:00etatik 20:30era. Hain zuzen ere, mendiko eta eskiko materiala jarriko dute mendi elkartearen lokalean.

Aukera paregabea da eskiatzeko edo mendian ibiltzeko materiala prezio onean erosteko.

> ESKUBALOIA

## Etxetik kanpo jokatuko dute bigarren astez Verkol Aloñako neskek

Berriro etxetik kanpo jokatuko dute Verkol Aloñako senior mailako neskek. Zarautzen kontra jokatuko dute bihar, 19:15ean. Aurreko astean Gasteizen itxura eskasa eman ondoren, Ainhoa Unamunoren neskek taldearen itxura berreskuratu gura dute. Bihar aukera paregabea dute, zarauztarrek etxean jokatutako bi partiduak galdu egin dituzte-eta.

> ARETO FUTBOLA

## Partidu zaila du domekan Eskoriatzako areto futbol taldeak

Sailkapeneko bigarren tokian dagoen Petronor taldearen bisita izango dute Eskoriatzako areto futboleko mutilek. Intxaurtxuetan jokatuko dute domekan, 17:00etan. Eskoriatzarrek etxeko bigarren garaipena eskuratu gura dute, baina bizkaitarrek talde indartsua dute, jokatutako zortzi partiduetatik bakarra galdu dute-eta.





**> ANTZERKIA**
Maskaradaren lan berriaren estreinaldia gaur Oñatin > 38



**> POESIA**
Xabier Leteren emanaldia hurrengo domekan Elgetako Espaloian > 39

**> BERTSOAK**
Txapelketako Bergarako saioa eskainiko du GOITBk eguenean > 43

# Amaiatik Egiptora bidaia, barrea bidelagun dutela

**SARRERAK**
Biharko emanaldirako 40 sarrera besterik ez ziren geratzen eguenean

**URTEURRENA**
Aurtengoa 10. zarzuela denez, sorpresak egongo dira

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Zarzuela "dibertigarria eta lizuna" izango dela *La Corte de Faraón* aurreratu digu Tere Gonzalezek. "Orain arte egin dugunarekin ez dauka zerikusirik... jendeak barre mordoa egingo du!", gaineratu du zarzuelako zuzendariak.

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak urtero egiten du garai honetan zarzuela. Aurten, gainera, 10. urteurrena izango da, eta horregatik, hain zuzen, lan berezia aukeratu dute: *La Corte de Faraón*. Vicente Lleoren obra Madrilen estreinatu zuten 1910eko urtarrilaren 21ean.

**EGIPTON GIROTUA**

Opereta, zarzuela, aldizkari eta kuple elementuak nahasten ditu aurtengo obrak. Genero *sikaliptikoa* izenekoan dago sartuta, eta hori famatua da berbetan intsinuazio eta konnotazio sexualak, zentzu lizuneko kantuak eta *vaudevillesque* itxurako katramilak azaltzen direlako.

Egipton girotutako lana da, eta musika erreferentziek batuetan Verdiren *Aida* obraren parodia bilatzen dute.

**MARTXOA EZKERO LANEAN**

Martxoan hasi ziren obra berriarekin lanean Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideak. Tere Gonzalez bera arduratzen da obra aukeratzeaz. Aurtengo lana zaila dela esan du; izan ere, musika oso modernoa dauka eta solista asko ditu. Parte hartuko dutenen artean daude, besteak beste: Mikel Izurrategi, *Casto Jose*; Ruth Osinaga, *Lopa*; Tomas Aspe, *General Putifar*; Igor Ganboa, *Gran Faraon*; eta Amaia Zubiria, *Reina*.

Aurtengoa hamargarrena izango da; Gonzalezek esan du hamar urte hauetan ez dutela obra bat bera ere errepikatu. *La Corte de Faraón* lana gazteleraz eskainiko dute; orain arte euskaraz egin duten bakarra Jesus Guridiren *Baserria* izan da.

**LAU EMANALDI**

Bihar izango da estreinaldia, 19:30ean Amaia Antzokian. Sarrerak oso ondo saldu dira; hala, biharko emanaldirako 40 sarrera bakarrik geratzen ziren eguenean. Hurrengo emanaldiak izango dira etzi, domeka, 19:30ean; hilaren 27an, 20:00etan; eta azkena hilaren 28an, 19:30ean.



Kristina Cubillo antzezten, eta atzean Araceli Telletxea. JOSETXO ARANTZABAL



Iker Olazabal orkestra zuzentzen. J.A.



Tomas Aspe eta Ruth Osinaga. J.A.



Elkarte lirikokoak. J.A.



Josetxo Urrutia, eta abesten Igor Ganboa. J.A.

**Tere Gonzalez** > Zarzuelako zuzendaria

## "Aurtengo obran lan handia egin dugu espresioarekin"

A.E. > ARRASATE

**Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko zuzendaria eta zarzuelako zuzendaria da Tere Gonzalez. Haren lana izaten da obra aukeratu eta obra gidatzea. Biharko estreinaldirako dena prest du Gonzalezek; aitortu digu, baina, azken momentuko urduritasuna ere baduela.**

**Martxoan hasi zineten entseguekin. Nola antolatzen zarete?**

Astelehenetan musika entseguak egiten ditugu, koruarekin eta solistekin. Martitzenean, ostera, agertokian egiten dugu entsegua. Entseguez gain, eskolan solistekin egiten dut lan. Denak dira nire ikasleak.

**Zenbat lagun ibili zarete lanean?**

100 inguru ibili gara: jostunak, agertokia... eta antzokian,



GOIENKARIA

orkestra eta guzti 100 baino gehiago izango gara.

**Aurtengoa, 10. izanda, erronka izan da?**

Bai, nik uste dut baietz. Beti izaten da erronka; izan ere, obra guztiek dauzkate gauza zailak. Jendeak uste izaten du zarzuela erraza dela, baina ez da erraza. Lan handia egin dugu espresioarekin, oso garrantzitsua da.

**Zer dauka berezia zarzuelak horrenbeste zale izateko?**

Orain dela 50 urte zarzuela asko egiten ziren Arrasaten. Ez dakit zergatik, nik esango nuke ikuskizun osoa dela. Zati komikoak ditu... jendeak oso gustukoa izaten du eta horregatik etortzen da. Gu saiatzen gara dena ondo egiten.

**Zer aurkituko du ikusleak?**

Ondo pasatuko dute. Guk entseguetan barre mordoa egiten dugu, zarzuela espeziala da. Gainera, sorpresak egongo dira.

**ANTZERKIA** > 'SOUVENIR, HISTORIAKO KANTARIRIK TXARRENA'

# Maskarada taldearen 'Souvenir' Oñatin gaur

## Historiako kantaririk txarrena izan den Florence Foster Jenkinsi buruzko komedia musikala da


Eneritz Artetxe eta Mitxel Santamarina, antzezlaneko irudi baten. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

*Souvenir, historiako kantaririk txarrena* antzezlana eskainiko du Maskarada taldeak gaur, egubakoitza, Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30ean. Benetako pertsonaia baten oinarritutako komedia musikala da Maskaradaren azken lana. Hain zuzen, Florence Foster Jenkins historiako kantaririk txarrena da Glove musika entziklopediaren arabera. Foster Jenkinsek (1868-1944) gogo bizia zuen kantatzeko, eta dirua ere bai, nahi beste bere musika ibilbidea finantzatzeko, Pennsylvaniako bankari baten alaba baitzen. Talentua falta zitzaion arren, horrek ez zuen atzera bota inoiz, ezta ikusleen barreek edo adituen kritika txarrek ere. Foster Jenkinsek kanturako berezko dohainak zituela uste zuen; soprano onenekin parekatzen zuen bere burua, nahiz eta nota bakar bat ere mantentzeko gauza ez izan. Edozein modutan ere, musika zirkuituetan murgiltzeko abilezia itzela zeukan. Gainera, oso estimatua zen, ongintzazko kontzertuak antolatzeko eta dirua batzeko gertu zegoelako beti. Besteak beste, Enrico Caruso tenore ezagunak ez zuen hutsik egiten hark antolatutako ekitaldietan. New Yorkeko Ritz-Carlton hotelean urtero ematen zuen kontzertua izaten zen denboraldiko hitzordu garrantzitsuenetakoa. 800 pribilegiaturendako lekua bakarrik izaten zen. Carnegie Hall areto ospetsuan eman zuen azken kontzertua, hil baino aste gutxi batzuk lehenago.

**ESTREINALDIA, EUSKARAZ**

Maskaradak abenduaren 11n estreinatuko du antzezlana, Barakaldon. Gaurko Oñatiko emanaldia euskarazko estreinaldia izango da. Eneritz Artetxe, Mitxel Santamarina eta Gorka Minguez dira antzezlanezko protagonistak: Artetxek egiten du Foster Jenkinsen rola, Mitxel Santamarinak Fosterren laguntzaile Cosme McMoonena eta Minguezek hainbat pertsonaia egiten ditu.

Carlos Panera da antzezlaneko zuzendaria. Stephen Temperley aktore eta antzerkigile ingelesak 2002an idatzi zuen lana eta 2003an Ingalaterran, Yorken estreinatu ondoren, Broadwayra iritsi zen 2005ean.Maskarada taldeak 30. urteurreneko ospakizunetan dihardu. *Jimmi Potolo eta zapataria* izan zen taldearen lehenbiziko lana, 1980an, eta *Ohean*, *Picasso 1937* eta *Extras, stones in his pockets* antzeztu ditu azken urteotan.

Gaurko kontzerturako sarrerak 10 eurotan izango dira salgai Santa Ana antzokian bertan.




AZKUE fundazioa
euskara sarean josten

Sarean euskaraz gozatzeko
ez diozu etorkizunari itxaron behar.

Dagoeneko sarean euskaraz badauden ekimenak bultzatzeko eta berriak abian jartzeko jaio da AZKUE fundazioa: Wiki plaza, ahotsak.com, Xuxen bizkaieraz, Euskararen Interpretazio Zentroa, Kaixo Frankie jokoa... Sarea gehiago gozatu dezazun. Zure hizkuntzan.
Eta etorkizunari itxaron gabe.
Gurekin elkarlanean aritzeko, edo zure proiektua guri aurkezteko, gertu gaituzu:

www.azkuefundazioa.org

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia
Bilbao Udala Ayuntamiento
Euskaltzaindia
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad de Deusto Deustuko Unibertsitatea Deusto

**ESPALOIAN** > AZAROAREN 29AN

# Xabier Letek emanaldia egingo du Espaloian

## 'Egunsentiaren esku izoztuak' poesia liburuaren irakurraldia egingo du, musikaz lagunduta

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Xabier Letek *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuaren irakurraldia egingo du hurrengo domekan, azaroaren 29an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 19:30ean.

Euskal kantagintzan eta poesigintzan erreferentzia nagusietako bat da Xabier Lete (Oiartzun, 1944). Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Joxantonio Artze, Jose Angel Irigarai eta Lourdes Iriondorekin batera, Ez Dok Amairu taldea abian jarri zuen 1965. urtean. 1968an argitaratu zuen Letek lehen poemategia: *Egunetik egunera orduen gurpillean*. Hamabost urtetan poesiarik argitaratu gabe egon ondoren iazko neguan *Egunsentiaren esku izoztuak* poema liburua plazaratu zuen. Euskadi Saria eskuratu zuen aipatutako lanarengatik. Azken urteetako bizi-esperientzien gaineko gogoetak batu ditu oiartzuarrak azken liburuan.

Musikari dagokionez, 2001ekoa da Leteren azken lana: Berrehun urtez bertsotan (Elkar). Beste olerkari batzuen hitzak ere kantatu izan ditu Letek sarritan; Jacques Brel, Lizardi eta beste hainbat bertsolarirenak.

**JOXAN GOIKOETXEAREKIN**

Elgetan, Joxan Goikoetxearen akordeoi jolearen laguntza izango du. Besteak beste, Alboka taldearekin jardundakoa da Joxan Goikoetxea. Emanaldia ordubete ingurukoa izango da eta sarrerak 6 eurotaneskuratu ahal izango dira.



Xabier Lete Elgetan izango da hurrengo domekan, hilaren 29an. GOIENKARIA



Foxy Boxxi da diskoan parte hartu duen taldeetako bat. GOIENKARIA

**EUSKARA** > AED ELKARTEAREN 25. URTEURRENA

# AEDren disko aurkezpena gaur Arrasateko gaztetxean

## Urteurrenerako propio abesti bat egin dute Gosek eta Jokin Labaienek

**E.M.** > ARRASATE

Arrasateko AED elkarteak disko bat grabatu du herriko bederatzi talderen kolaborazioarekin. Diskoaren aurkezpena gaur, egubakoitza, egingo dute. Gaztetxean izango da aurkezpen jaia, 19:00etan. Azkaiter Pelox musikari bergararrak gidatuko du gaurko ekitaldia. Bakarlari moduan aritzeaz gain, Mahaster River taldean dabil Unai Azkarate, Azkaiter Pelox. Umore saioak ere izango dira gaurko ekitaldian eta pintxoak ere bai.

**BEDERATZI KANTU**

AEDren 25. urteurrena zela eta, euskararen inguruan edo eta euskaraz kantu bat sortu eta disko batean grabatzeko proposamena egin zieten Arrasateko musika taldeei. Azkenean zortzi talde animatu ziren: The Convicts, Ain_1, Foxy Boxxi, Haitzama, The 5 Twisters, Muskaria, Ozen eta Los Galerna. Lleida aldean dabilen Gose izan ezik, gainerako taldeak izango dira gaztetxean gaur.

Bederatzi kantu agertzen dira denera, aipatutako zortzi taldeen kantu bana eta AEDren urteurrenerako propio Gose taldeak, Jokin Labaien bertsolariaren hitzekin, sortu zuen *Ez gorde museotan* izenburuko bestia. Diskoa salgai dago, 5 euroko prezio sinbolikoan, Arrasateko hainbat lekutan.

**IRRATIA** > TXAPA IRRATIAREN 25. URTEURRENA

# Bergarako Txapa Irratiaren urteurren jaia gaztetxean

**E.M.** > BERGARA

Bergarako Txapa Irratiak 25. urteurreneko jaia ospatuko du bihar, zapatua. Eguerdian *txapapoteoa* izango da eta 14:30ean herri bazkaria gaztetxean. Antolatzaileek 50-100 lagun batzea espero dute. Bazkarirako txartelak 5 eurotan eskura daitezke Arranon, Etxagin eta Pol-Polen.

Bazkarira gerturatzen direnei programazio berriaren berri emango diete Txapako arduradunek bazkal aurretik. gaur egun hamar irratsaio propio ditu Txapak eta, Euskal Herriko beste irrati batzuetako saioekin osatzen da programazioa .

**SAIO BEREZIAK, WEBGUNEAN**

Esan bezala, 1984an hasi zen Txapa emititzen. Martitzenean, hain zuzen, Txapa Irratiaren hasieran jardundako Jesus Kalboetxeagak eta Joxe Lazkanok jardun zuten saio berezi baten. Aipatutako saioa eta urteurrena ospatzeko egindako beste saio bereziak Txapa Irratiaren webgunean entzuteko aukera dago: *http://www.blogak.com/txapa*

> JARDUN ELKARTEA

### Amodiozko gutunak: lanak jasotzeko epea urtarrilaren 7ra arte dago zabalik

Bergarako Jardun euskara elkarteak Amodiozko Gutunen Lehiaketaren 18. ekitaldia deitu du. 1995ean edo lehenago jaiotakoek parte har dezakete eta lan guztiek jatorrizkoak, sekula argitaratu gabeak eta euskaraz izan beharko dira. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN-A4 orrian eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 7ra arte izango da zabalik eta lau sari banatuko dituzte otsailaren 13ko ekitaldian: lehenengoa, 500 euro; bigarrena, 250, euro; Bergarar onenarendako 150 euro; eta irakurle gazteek emandako saria (26 urtetik beherako parte-hartzaileentzat), 150 euro.

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

MUSIKA-POESIA
XABIER LETE
EGUNSENTIAREN ESKU IZOZTUAK

Eguna: Azaroak 29.
Lekua: Espaloia Kafe antzokia.
Ordua: 19:30ean.



Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Baserria salgai. Guztiz berriztatua. 180 metro koadro, 2.000 metro koadroko lursailean. Prezio interesgarria. 648 56 41 38.

**Aramaio.** Herri erdi-erdian 91 metro koadroko etxebizitza. 32 metro koadroko ganbararekin. Bizitzeko moduan dago baina berriztu beharra dauka. Aukera ona. Premiazkoa da. 110.000 euro. 615 73 85 77.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. Eguzkitsua. Bi komun, hiru logela, jantzigela, sukaldea eta egongela handia. Trastelekua. Guztiz berritua. Aukera ezin hobea. Deitu 658 72 09 87 telefonora.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean, Justo Garate plazan. Sukalde eta bi komun jantziak, hiru logela, egongela, balkoia, despentsa eta garaje itxia. Jantzita utziko genuke. Ia berria eta oso egoera onean. Deitu 650 79 28 63 edo 626 11 55 14 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajearekin. aukera ona. 688 67 10 31

**Marieta (Araba).** Etxe bakarra saltzen da. 200 metro koadro eta nahiko berria: 7 urte. 5 logela, 3 komun, 2 autorentzako garajea eta 40 m²ko egongela, beheko suarekin. 900 metro koadroko lorategia, eginda. 628 45 09 62.

**Oñati.** Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta ganbara. Garajea aukeran. Deitu 620 02 51 95 telefonora.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 40 metro koadroko apartamentu kapritxosoa ematen da errentan herri erdialdean. Aproposa pertsona batentzat zein bikotearentzat. 650 euro hilean. 639 17 49 52.

**Arrasate.** Erdialdean guztiz berriztutako 60 metro koadroko etxebizitza. Bi logela. Deitu 635 71 79 57 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelarekin. Oso ondo kokatuta dago eta berokuntza zentrala dauka. Deitu 659 44 86 79 telefonora.

**Arrasate.** Gela bateko apartamentua ematen da errentan. Deitu arratsaldez. Deitu 619 34 88 52 telefono zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 679 09 33 34 telefonora.

**Arrasate.** Arrasateko hiru gazte langilek etxebizitza errentan hartuko lukete. 665 75 40 36.

**Arrasate.** Bikotea urtarrilaren 1etik aurrera bi gela edo gehiagoko etxebizitza alokatzeko prest. Deitu 665 72 79 38 edo 635 70 96 43 zenbakietara.

**Bergara.** Errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. Deitu 697 88 35 62 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke, bi edo hiru logelarekin. 636 80 87 68.

**Bergarako** neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke. Deitu 649 40 72 49 telefono zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola** Sagasti auzoan, pertsona bat behar da etxea osatzeko. Beheko solairua eta terrazaduna da. Deitu 618 12 08 01 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Gela bila nabil. Mutil arduratsua naiz eta lan finkoa daukat. Miguel Barrios. Deitu 943 79 74 13 edo 647 28 82 41 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Erdigunean logela ematen da errentan. Deitu 619 78 63 41 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Gelak errentan Makatzenan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Telebista, DVDa, kafe-makina... erosotasun guztiekin. Bista polit eta giro ezin hobea. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Alexandragatik galdetu. Deitu 690 61 08 26 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 270 euro. Deitu 618 00 08 28 zenbakira.

**Bergara.** Gela ematen da errentan Irizar pasealekuan. Bikote batentzat edo pertsona bakarrarentzat. Deitu 943 03 62 00 edo 696 03 80 07 zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia saldu edo errentan ematen da Uarkapen. Autoa eta bi motorrendako sartzeko besteko lekua. Deitu 615 73 98 30 telefonora.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 677 05 39 06.

**Oñati.** Lokal txikia, etxabea (baxua) edo garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Esperientziadun emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Legezko paperekin eta etxean bertan bizitzeko. 636 30 09 16.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakume arduratsua gertu adinekoak zaindu, etxeko garbitasun lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia adinekoekin. Mari. 943 53 33 92.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 636 25 56 68 edo 943 25 02 94.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 619 78 63 41.

**Arrasate.** Etxeak garbitu edo umeak zainduko nituzke. Mari. 649 30 13 60.

**Bergara-Arrasate.** Emakumea gertu edozein lan egiteko, 09:00etatik 14:00etara. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. Deitu 669 98 46 47 telefono zenbakira.

**Bergara.** Emakume gaztea gertu garbiketa lanak egiteko. Orduka lan egingo nuke. Deitu 671 33 75 54 telefonora.

**Bergara.** Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 650 17 74 87.

**Bergara.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko prest. Aste bukaeretan, jaiegunetan eta gauetan lan egingo nuke. 630 88 54 46.

**Bergara.** Neska euskaldun arduratsua orduka etxeko garbiketak egiteko gertu. Deitu 680 99 68 94 zenbakira.

**Bergara.** Neska gertu 08:00etatik 10:00etara bitartean etxeko lanak egiteko. Deitu 20:00etatik aurrera 943 76 28 12 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Manuel. Deitu 943 75 22 30 edo 636 17 27 65 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere arituko nintzateke. 676 28 87 84.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36.

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein tokitan lan egiteko, baita baserriko lanak egiteko ere. 639 88 64 13.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. 650 70 98 76.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona edadetuak zainduko nituzke, egun osoz. Deitu 697 88 35 62 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Gertu nago tabernari edo zerbitzari jarduteko, garbiketa lanak egiteko eta pertsona edadetuak zaintzeko. Deitu 671 71 90 03 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Deitu 645 72 92 87 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimena daukat. Jhony. Deitu 943 75 22 30 edo 636 17 27 65 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 610 95 79 79 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Deitu 638 10 29 63 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu 680 30 24 64 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska arduratsu esperientziaduna gertu garbiketa, dendari, azafata edo bestelako lanetarako.Deitu 639 86 96 76 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 660 37 20 47.

**Debagoiena.** Neska gaztea zerbitzari lanak egiteko, garbiketa lanak orokorrean egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 671 71 90 03 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, ume edo nagusiak zaintzen zein zerbitzari lanetan aritzeko. 660 56 65 58.

**Debagoiena.** Paperak eguneratuta dauzkan mutil gaztea gertu zerbitzari, lorezain edo garbiketa lanak egiteko gertu. Deitu 647 19 36 95 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. Deitu 943 75 22 30 edo 636 17 27 65 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Arratsaldez eta baita aste bukaeretan ere. Deitu 697 93 73 32 telefono zenbakira.

**Debagoiena** Garbiketarako lanak egin eta pertsona edadetuak zainduko nituzke. Deitu 649 83 08 82 edo 943 76 44 27 telefono zenbakietara.

**Debagoiena** Pertsona edadetuen eta umeen zaintza lanak egiteko gertu nago. Esperientziaduna naiz gaian eta baita oso arduratsua ere. Etxean zein kanpoan egingo nuke lan. Luis Marina. Deitu 606 85 67 08 telefono zenbakira.

### 403. BESTELAKOAK

**Zugatik egiten dut.** Denborarik ez badaukazu posta, banketxe eta abarretara joateko, nik egingo dut zugatik. Errekaduak ere bai. Deitu 605 74 52 19 telefono zenbakira.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Batxilergoko** gaztelera eta literaturako eskolak jasoko nituzke Oñatin. Deitu 688 63 82 28 telefonora.

**Baxu elektrikoko eskola** partikularrak hartuko nituzke. Bergara, Arrasate edo Eibarren. Ordubete edo pare bat ordu astean. Deitu 652 71 74 96 telefono zenbakira eta Nerearengatik galdetu.

**Bergara.** Batxilergoko bigarren mailako eskolak jasoko nituzke. Deitu 686 51 07 86 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** EHUko Psikopedagogia ikaslea naiz eta Ikerketa Diseinua ikasgairako eskola partikularrak jaso gura nituzke. Deitu 686 20 31 35 telefono zenbakira.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniari industriala naiz. LH, DBH edo batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke: matematika, marrazketa teknikoa, fisika, ingelesa eta abar. Deitu 667 32 35 00 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen gazte batek DBH eta batxilergoko eskolak emango lituzke. Mikel. Deitu 634 84 41 96 telefono zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Deitu 637 52 89 83 telefono zenbakira.

**Bergara.** Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergo eta ingeleseko eskolak emango nituzke. Deitu 675 00 59 48 telefonora.

**Bergara.** Umeendako ingeles eskolak ematen ditut. Aitor. Deitu 671 76 22 28 edo 943 76 01 99 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska euskalduna LHko nahiz DBHko eskola partikularrak emateko gertu. Natur Zientzien batxilergoa eta EGA tituluak ditut eta Erizaintzako ikasketak egiten ari naiz. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara nahiz Oñatira joateko arazorik ez. 690 66 19 80 edo 943 03 78 31.

**Diseinu Industrialeko** ikaslea naiz eta DBHko ikasle bati eskola partikularrak emateko prest nago. Arrasaten bizi naiz eta berdin zait nire etxera etortzea edo ni ikaslearen etxera joatea. 645 73 53 95.

**Mintza praktika.** Ingeleseko elkarrizketa saioak eskaintzen ditut Bergaran. 654 94 87 26.

**Musika eskolak.** Gitarra elektriko zein akustiko eta harmonia eskolak ematen ditut. Maila eta estilo guztiak. Jon. Deitu 679 22 86 07 telefonora.

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko eta batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika...). 678 27 27 57.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Honda Varadero** XL 1000v motorra salgai. 2006koa. Egoera oso onean. 23.000 km. Estra askorekin: hiru maleta, eskuberogailua eta Givi defentsak. Beti garajean. 605 71 24 73.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ardiak** salgai. Hamar, hogei... kopuru desberdinak aukeran. 620 13 83 86.

**Pit bulla**. American Pit Bull terrier txakurkumeak salgai. ADBA pedigriarekin oso prezio onean, 400 euro. Aita AEBetatik ekarria. Chinaman/Eli. 628 84 00 22.

### 703. EMAN

**Katakume** eme bat ematen da opari. Deitu 685 79 07 61 telefono zenbakira.

### 704. BESTELAKOAK

**Katua.** Urriaren 10ean katu ilegorria galdu genuen Bergarako Labegaraietan, Santa Katalina auzoan. Aiki izena du. Mesedez, norbaitek ikusi edo aurkitu badu dei dezala 943 76 33 78 zenbakira.

**Setter gordon** zuri-beltza galdu zen asteartean, azaroaren 17an, Makatzenan. Galdu zenean katea zeraman arrastaka. Mesedez, norbaitek ikusi edo aurkitu badu dei dezala 699 18 13 34 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Gasolio-galdara.** Osagarri guztiekin. Roca modeloa. 20.000 kcal. 12 berogailurentzat. Baserrirako egokia. Prezio negoziagarria. Deitu 943 79 34 74 edo 616 23 81 74 telefono zenbakietara.

**Hiztegia.** 'Lur hiztegi entziklopedikoa' salgai. 350 euro. Ondo zainduta, ia-ia erabili barik. Deitu 625 83 84 13 telefonora.

**Ibiltzeko zinta** elektrikoa salgai. Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. Deitu 652 76 25 41 telefonora.

**Liburuak salgai.** Liburu sortak salgai, denetarikoak. Oso-oso merke. Deitu 665 73 59 83 telefonora.

**Monozikloa** saltzen dut. Monty etxekoa. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. Deitu 605 73 07 77 telefono zenbakira.

**Nokia 5800** mugikorra salgai. Movistarkoa. Berria. 150 euro. Deitu 661 68 11 24 zenbakira.

**Nokia 6124** telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 30 euro. Deitu 617 13 17 51 telefono zenbakira.

**PlayStation 2** saltzen dut: 50 joko, memoria-txartela eta urrutiko-kontrolarekin. 150 euro. 659 68 06 06.

**Samsung J700** mugikorra salgai. Oso egoera onean dago. 30 euro. Deitu 615 49 09 36 telefono zenbakira.

**Sofa-ohea.** Kanpoko neurriak 1,97x91x92 eta oheak 1,40x1,90. Mugimendu bakarrean irekitzekoa. Urdina eta oso gutxi erabilia. 500 euro. Deitu 616 09 46 34 telefono zenbakira.

### 802. EROSI

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Zuriñe. 627 22 45 79.

**Lursaila** erosiko nuke Bergara inguruan. Sarrera onekin ahal bada. 669 17 09 51.

### 806. GALDU

**Eraztuna Oñatin.** Urriaren 31n eraztuna galdu nuen Oñatiko Ugarkalde eta Euskadi etorbidea artean. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez 943 78 06 34 edo 656 74 53 90 telefono zenbakietara.

**Poltsikoko telefonoa** galdu dut, Bergaran edo Elorrion, azaroaren 12an. Gorria eta beltza da eta Nokia etxekoa. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez 639 64 23 36 telefono zenbakira.

**Umearen jertsea** galdu genuen azaroaren 1ean, Arientzan. Marraduna da, urdina eta marroia. Urtebete inguruko neurrikoa. Deitu 943 53 34 59 telefono zenbakira.

### 807. AURKITU

**Bizikletarako kaskoa** aurkitu nuen Oñatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. 658 75 64 65.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.
- Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.

**DEBA**
- Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran


Kutxa Inbertsio Irtenbideak
6
6+ Gordailu berria
6a maite duzuenok, ongi etorri.
Hemen duzu 6+ Gordailu berria, zenbait enpresa liderren baloreekin heineratua, zure inbertsioa bermatu eta errentagarritasun handia eskuratzea ahalbidetzen dizuna.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


Datorren 26an, ostegunez
Beste estilo bat
dator Gipuzkoara
Moda
Moda bizitzeko beste estilo bat. Azken joerak, bertoko eta nazioarteko firma handiak, markarik esklusiboenak eta gaur-gaurko osagarriak: oinetakoak, bitxiak, lurrinak, kosmetika…
Etxea
Beste estilo bat, etxea hornitzeko azkenekoekin: oherako eta mahairako arropa, alfonbrak, errezelak… eta etxeko tresneria elektriko guztia.
Astialdia
Astialdiaz gozatzeko beste estilo bat. Kiroletarako guztia, informatika, telefonia, irudi eta soinurako azken produktuak… eta espazio bereziak liburuetan, musikan, zineman…
Supermerkatua
Beste estilo bat eguneroko erosketak egiteko. Ugaritasun guztiarekin eta pentsa dezakezun kalitaterik onenarekin. Produktu freskoak, xarkuteria, ardoak, freskagarriak… El Corte Inglés markako produktuen garantia eta aparteko prezioekin.
Eibar Ego gain, 7
El Corte Inglés
ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10:00 – 22:00. EROSTEKO KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. KAFETEGIA…
ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA. POZIK GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA.
GUREKIN HITZ EGITEKO: 901 122 122
www.elcorteingles.es INTERNETEKO DENDA HANDIA

# Pedro Iturbe Antzuolako alkatea 'Magazinea'-n

## Menbebaleko Saharako egoera ezagutu eta asteroko zozketa ere egingo dute

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
*Goiena magazinea*-ko *Alkateak zuzenean* atalean, Pedro Iturbe Antzuolako alkatea izango da hurrengo asteko gonbidatua. Azaroaren 26an, eguena, joango da Iturbe GOITBko estudiora eta kazetarien eta herritarren galderak erantzungo ditu. Galderak egiteko bideak dira: telefonoz 943 25 05 03 zenbakira deituta, *Skype* bidez edo *Facebook* bidez.

Astelehenean, Mendebaleko Saharako egoera zein den azalduko dute Arrasateko Nubi eta Aretxabaletako Iesbaa elkarteetako kideek. Martitzenean, Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako Berdintasun Planaz jardungo dute eta asteko zozketa eguaztenean izango da.

**GOITB, 'Goiena magazinea'**
> Astelehenetik egubakoitzera, 19:45


Pedro Iturbe, Antzuolako alkatea. GOIENKARIA

# Pirritx eta Porrotx ikustera

**O.E.** > ARRASATE
Pirritx eta Porrotx pailazoek hilaren 28an Eskoriatzan estreinatuko duten ikuskizunerako sarrerak zozketatuko dituzte datorren astean Arrasate Irratiko *Igo autobusera* saioan. Eguaztenean, gainera, Porrotx elkarrizketatuko dute esatariek. Sarreren zozketarako, deitu telefonoz 943 25 05 05 zenbakira edo idatzi mezu bat *irratia@goiena.com* helbidera.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**
> Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara


JOSETXO ARANTZABAL

# Bertsolari txapelketako Bergarako saioa

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketari jarraipena egiten dio GOITBk eta txapelketako hainbat saio grabatu eta emititzen ditu gainerako tokiko telebistekin batera. Datorren eguenean, azaroak 26, esaterako, Bergaran egin zuten saioko irudiak botako ditu. Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Jon Martin, Etxahun Lekue eta Fredi Paia aritu ziren bertsotan.

**GOITB, 'Puntuz puntu'**
> Domeka, 14:15
> Eguena, 22:15

## telebegi

**Edu Mendibil**
'emendibil@goiena.com'

### Munduan zehar

Telebistan saio batek arrakasta duenean, haren *klonak* agertuko dira nonahi. *Callejeros* (Cuatro) saio fresko eta interesgarriak irekitako bidea jarraitu dute *Callejeros viajeros*, *Españoles en el mundo* (TVE-1) edo *Mondo difficile* (ETB2) saioek.

Horietako batzuk ikusita, ematen du atzerrira alde egitea pagotxa dela. Langabezia tasa jaisteko *Joker* Zapateroren estrategia izango ote? Izan ere, emigrazioaren ikuspegi idealista ematea leporatu izan diote *Españoles en el mundo* saioari. Asteazkenean Balin grabatutako saioa ikusita, *kritikoei* arrazoia eman behar. Bestetik, ezin ukatu saio ikuserrazak direla, eta erreportariek gehienetan lan ederra egiten dutela. Erreportarien emozio-inteligentzia nabarmendu du *Españoles...* saioko zuzendariak.

Gaurko erreportarien aurretik, duela hiruzpalau urte, Jon Plazaola aktore urretxuarrak lan bikaina egin zuen antzeko saio baten, ETB1eko *Euskaraz Europan* saio sortan. Bakoitzari berea.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

### Zapatua
**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Domeka
**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## astea GOITBn

### Egubakoitza, 20
**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Udazken loreak.
**23:15** Kale kantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

### Zapatua, 21
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Barrebusa.
**11:30** Kantari.
**14:00** On Ein.
**14:30** Udazken loreak.
**15:00** Barrebusa.
**16:00** Marrazki bizidunak.
**18:30** Gipuzkoa Kultura.
**19:00** Kale kantoi.
**19:30** Itsasoari begira.
**20:30** 28 Klip.
**21:00** Ilunpean.
**21:45** On ein.
**22:15** Ikusten.
**22:45** Ikusmira.
**23:15** Wazemank.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

### Domeka, 22
**08:00** Barrebusa.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Itsasoari begira.
**12:30** Wazemank.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Ur eta Lur.
**14:15** Puntuz Puntu.
**14:45** Kale kantoi.
**15:15** Gipuzkoa Kultura.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Barrebusa.
**19:15** Kantari.
**21:15** Wazemank.
**22:00** Erreportajea.
**22:45** GipuzkoaKultura.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

### Astelehena, 23
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Sakonduz.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 24
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Wazemank.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Wazemank.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 25
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Udazken loreak.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Sakonduz.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoa Kultura.
**23:00** Kalekantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 26
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Kalekantoi.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Sakonduz.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Puntuz Puntu.
**22:45** Erreportajea.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## herritarrak galdezka

### AGORROSINGO KIROLDEGIA

**Agorrosingo kiroldegiaren erabiltzaile batek honakoa ziurtatu gura izan du: "Egia da urteko abonamendua %50 garestitu behar dutela?".**

Agorrosingo kiroldegian hileko eta urteko abonamendua daude. Eta bai, Bergaran erroldaturik ez dagoenarendako %50 garestitu da hileko edo urteko kuota. Eta ez hori bakarrik, Debagoieneko kirol abonamendurik ez duenak bikoitza ordaindu beharko du.

**Bestalde, Agorrosingo kiroldegira noizean behin joateko ohitura duen beste erabiltzaile batek baja eman eta gero berriz alta eman zen egun berean sparra sartzen utzi ez ziotela jakinarazi digu. Hala, honakoa galdetu du: "Zein da kasu horietarako araudia?".**

Kiroldegiko langileei "oso arraroa" egiten zaie herritarrak kontatzen duena gertatu izana. Diotenez, erabiltzailearen datuak izanez gero eta egunean bertan datu guztiak betetzen badira, erabiltzaileak sarrera baimenduta du unean bertan. Agorrosingo kirol zerbitzuak jakinarazi duenez: "Guk inori sarrera debekatzeko beste gairen bat gehiago gertatu behar da".




Debagoieneko kirol txartelak hainbat abantaila eskaintzen ditu XABIER URTZELAI

### ZARZUELARAKO SARRERAK

**Bihar izango da *La corte de Faraón* zarzuelaren estreinaldia. Sarrera lortu guran azken orduan dabilen irakurle batek honakoa galdetu digu: "Bada-go sarrerarik? Non eskura ditzaket?".**

Bihar estreinatuko dute *La corte de Faraón* zarzuela Arrasateko Amaia antzokian. Guztira lau emanaldi izango dira, hilaren 21ean, 22an, 28an eta 29an. Aurtengo zarzuelarako oraindik geratzen dira sarrerak. Zapatuko emanaldirako 40 sarrera inguru geratzen ziren eguenean eta domekarako, berriz, 70 bat. Horietako sarrera bat lortzeko biderik errazena eta eraginkorrena Internet da, honako helbide honetan: *www.generaltickets.com/kutxa*. Bertan, *Ekitaldia* jartzen duen lekuan *La corte de Faraón* idatzi eta sarrerak eskuratu ahalko dira. Bada, atzeko eserlekuak bakarrik daude libre, baina oraindik eserlekua aukera daiteke.

**Galdera egiteko:**

Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin.

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

### 'ASTELEHENEKO GOIENKARIA'-REN HARPIDETZA

**Asteon irakurle bat etorri zaigu *Asteleheneko Goienkaria*-ren gaineko informazioa eskatzeko. Honakoa galdetu digu: "Zenbat ordaindu behar da *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun egiteko?".**

2009ra arte *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun egiteko 40 euro ordaindu behar ziren urtean. Kopuru hori, noski, urteko 12 hilabeteei dagokiena da eta urteak aurrera egin ahala gutxiago ordaindu behar da. Orain bertan, esaterako, harpidetu gura duenak hamar euro bakarrik ordaindu beharko du, eta urte berriarekin urteko kuota ordaindu beharko du.

Datorren urteari begira urteko kuotaren igoera aurreikusten da. Hori bai, oraindik ez da zehaztu igoera zenbatekoa izango den.

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN

**Zapatua, 21**

Biharko, fronte txiki baten bisita espero dugu. Goizean ateri eutsiko dio, baina arratsaldean euria egin dezake. Tenperatura atsegina.

**Domeka, 22**

Goizean lainotuta eta arratsaldean arin egin dezake euria. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da; tenperaturak behera egingo du pixka bat.

### EUSKAL HERRIAN

Hodeiak, batez ere mendebalean. Gainontzeko lekuetan urdinguneak eta ostarteak tartekatuko dira. Hego-mendebaleko haizea, kostaldean zakar tarteka. Tenperatura, 20 graduren bueltan.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Astelehena, 16 — 8° C

**MAXIMOA** Astelehena, 16 — 22° C

**ASTEKO EURIA** ($l/m^2$) — 2,6 L

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria $l/m^2$ |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 11** | 15 | 11 | - |
| **Eguena, 12** | 19 | 12 | - |
| **Egubakoitza, 13** | 20 | 12 | 0,9 |
| **Zapatua, 14** | 20 | 12 | 0,4 |
| **Domeka, 15** | 20 | 15 | 0,2 |
| **Astelehena, 16** | 22 | 8 | - |
| **Martitzena, 17** | 13 | 9 | 1,1 |

## bono fotoa




ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak
eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

Garmendia Ardoek emandako

**Ardo botila packa***

zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008.
Larchago kriantza 2006.
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

**ERANTZUNA** ..................................................

IZEN-DEITURAK ..................................................

HERRIA ............................ TEL.: ..........................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Berpizkunde garaiko jauregi honetan kokatuta dagoen Kultur Etxeak hogei urte bete ditu aurten. Eskualdeko ze herritan dago eta zein da jauregiaren izena?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Bergarako **Maider Guridi**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena: Aitzulo, Araotz auzoa.**



## guardiako farmaziak

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 20 | Erkuden | Zarugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Zapatua, 21 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 22 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 23 | Fernandez | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 24 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 25 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 26 | Morales | Araba 14 | 943 79 18 65 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 20 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Zapatua, 21 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 22 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 23 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 24 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 25 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 26 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 20 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Zapatua, 21 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 22 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 23 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 24 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 25 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 26 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 20 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Zapatua, 21 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 22 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 23 | Dolores Agirre | Gorosarri Plaza 1 | 943 71 48 28 |
| Martitzena, 24 | Dolores Agirre | Gorosarri Plaza 1 | 943 71 48 28 |
| Eguaztena, 25 | Dolores Agirre | Gorosarri Plaza 1 | 943 71 48 28 |
| Eguena, 26 | Dolores Agirre | Gorosarri Plaza 1 | 943 71 48 28 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

OROIGARRIA

## Lutxi Garcia Aguirre

Arrasaten hil zen 2009ko azaroaren 14an, 86 urte zituela.

*Gurekin egongo zara beti, amama Lutxi.*



Nagore, Edurne, Gorka, Oihana, Ainhoa, Jone, Mikel, Irati, Iñigo, Leire, Oihan eta Iraia.
Arrasaten, 2009ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA

## Lutxi Garcia Aguirre

Mari Carmen Aranburu lankidearen ama

Arrasaten hil zen 2009ko azaroaren 14an, 86 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.

Arizmendi ikastola



Leintz bailaran, 2009ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA

## Gregoria Bengoa Argarate

Benigno Lasaren alarguna

Eskoriatzan hil zen 2009ko azaroaren 16an, 98 urte zituela.

*Zure ondoan bildu garenori ez zaigu ahaztuko bizipen hori. Eskerrik asko ta agur amona Gregori.*



Zure bilobak eta birlobak.
Eskoriatzan, 2009ko azaroaren 20an.

OROIGARRIA

## Carlos Gomez González de San Pedro

Miguel Altuna institutuko ikaslea

Argia itzali zaigu baina badaukagu argituko gaituen izar bat.

MAI MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA



Miguel Altuna institutuko irakasle, ikasle eta langileak.
Bergaran, 2009ko azaroaren 20an.

ESKER ONA

## Josefa Estala Arana

Bergaran hil zen 2009ko azaroaren 17an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko azaroaren 20an.

ESKER ONA

## Carlos Gomez González de San Pedro

2009ko azaroaren 14an hil zen, 33 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko azaroaren 20an.

ESKER ONA

## Miguel Angel Ena Garitaonandia

Bergaran hil zen 2009ko azaroaren 7an, 62 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko azaroaren 20an.

ESKELA

## Maria Pilar Ibarrondo Zabala

Bergaran hil zen 2009ko azaroaren 19an, 66 urte zituela.

**Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, azaroak 20, 19:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.**



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.





**Juan Luis Zubizarretak** eta **Ana Mari Obesok** azaroaren 10ean 25 urte bete zituzten ezkonduta. Zapatuan familiakoekin ospatuko dute bazkari on baten bueltan. Ondo pasatu eguna, etxekoen eta, bereziki, Mirenen eta Javiren partetik. Patxo handi bana.



Oñatiko **Aitor** eta Legazpiko **Aitziber** azaroaren 21ean ezkonduko dira Aztiriko ermitan, eta ondoren, Zumarragako Etxeberri jatetxean ospatuko dute hain egun berezia. Koadrilakoen partetik, zorionak, bikote, eta ondo-ondo ibili Italian barrena.



**Satur Guridi** eta **Juanita Alustitza** 1959ko azaroaren 21ean ezkondu ziren Urretxun, San Martin De Tours parrokian. Urrezko ezteien ospakizuna zapatuan egingo dute. Semealaben, biloben eta familia guztiaren partetik, zorionak.





Angiozarko **Jose Domingo Belastegi** eta **Begoña Arantzabal** ezkondu zirela 50 urte bete ziren azaroaren 18an. Urrezko ezteiak bete dituzten honetan, zorionak eta musu handi bana etxeko guztien partetik.





Aramaioko Azkoagako **Felisa Zubizarreta** eta SanMartin de Amescoako **Gaspar Perez** 1959ko azaroaren 21ean ezkondu ziren Marinen. Domekan meza izango dute eta Arteaga jatetxean ospakizuna. Zorionak, seme-alaba, biloba eta familiako guztien partetik.

URTEURRENA

## Jose Urteaga Yarza

Lehen urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 21ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Irune Guridi Aranburu

Lehen urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 21ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jose Mari Larrea Kortabarria

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 22an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean

# Azaroak 20-27

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Antzerkia




OÑATI
**> 'Souvenir, historiako kantaririk txarrena' Maskaradaren azken lana gaur Oñatin**
Florence Foster Jenkins historiako kantaririk txarrena da, hainbaten ustez. Haren ibilbidea islatzen du Maskaradaren komedia musikalak. Gaurkoa estreinaldia izango da, euskaraz. Santa Ana antzokian, 22:30ean. 10 euro.

## Musika



ARRASATE
**> AEDren 25. urteurreneko disko aurkezpena gaur gaztetxean**
AEDren 25. urteurreneko diskoan, Gose, Ain-1, Ozen, The 5 Twister, The Convicts, Foxxy Boxxy, Muskaria eta Los Galerna taldeek hartu dute parte. Azkaiter Pelox izango da gaurko festan. Umore saioak, pintxoa eta bestelakoak, 19:00etan.

## Musika




ELGETA
**> 'Euskal ipuin bat' zapatu gauean Espaloia Kafe Antzokian, doan**
Lurbira Talde Lirikoak *Euskal ipuin bat* ikuskizuna eskainiko du zapatuan Espaloian , 22:30ean. Kantatutako eszenak eta elkarrizketak tartekatzen dituzte. Jatorrizko gidoia, Aita Donostiaren musikaz lagunduta. Sarrera, doan.

# Musika

ARRASATE
**> Goikobalu abesbatzaren emanaldia gaur**
Goikobaluren 20. urteurreneko ospakizunen barruan.
Gaur, egubakoitza, San Juan parrokian, 20:00etan.

ARRASATE
**> Arrasate Musikalen Santa Zezilia ospakizunak gaur**
Instrumentu ikasleen emanaldia Kulturaten, 18:30ean; ondoren, 19:30ean, Bandaren kalejira Mikel Markiegiren zuzendaritzapean.
Gaur, egubakoitza.

ARRASATE
**> Bi kontzertu 3 aretoan**
Reverendo Parker gaur, 22:30ean; zapatuan, Kanadako The Saint Alvia Cartel eta The Dirty Brothers & Jul taldeak.
Arrasateko 3 aretoan, gaur (5 euro) eta bihar (8 euro), 22:30ean.

OÑATI
**> Ganbararen kontzertua bihar Santa Ana aretoan**
Aitor Biainek zuzendutako taldearen emanaldia.
Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ELGETA
**> Jonny Gerriwelt, Ostiada Oi! eta Cold Blood gaztetxean**
Jonny Gerriwelt eta Cold Blood Ondarroako punk rock taldeak dira. Ostiada Oi! elgetarrek ere joko dute bihar.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 21:00etan.

BERGARA
**> Elvis Caino zapatuan Pol-Pol tabernan**
Festa iragarri dute biharko. Elvis Caino disko jartzaileak alaituko du festa.
Bihar, zapatua, 23:00etan.

BERGARA
**> Udal Musika Banda domekan Udal Pilotalekuan**
Santa Zeziliako kontzertua. Tchaikowsky, Schwartz, Luna eta Carlos Santanaren piezak joko dituzte. Ibon Larrañaga izango da gitarrista bakarlaria.
Etzi, domeka, 12:30ean.

OÑATI
**> Udal Musika Bandaren kontzertua domekan**
Santa Zezilia eguneko kontzertua.
Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

# Antzerkia

ELGETA
**> 'Euskal ipuin bat' zapatuan Elgetan**
Opera eta zarzuelen egokitzapenetan eskarmentua duen Lurbira Talde Lirikoarekin.
Bihar, zapatua, Espaloian, 22:30ean.

ARRASATE
**> Kike Viguriren emanaldia Iamai kafetegian**
Umorezko bakarrizketa.
Gaur, egubakoitza, gauerdian Iamai kafetegian, Kontzezino kalean.

# Erakusketak

ARETXABALETA
**> Xabier Iturraranen margo erakusketa**
Hainbat koadro ikusgai jarri ditu Xabier Iturraranek Arkupeko aretoan.
Azaroaren 30era arte egongo da erakusketa zabalik. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, goizez bakarrik.

ARRASATE
**> Naturaren argazkilariak**
*Naturaren argazkilariak* lehiaketan jasotako lanen aukeraketa jarri dute ikusgai.
Kulturaten, gaurtik abenduaren 6ra. Martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

OÑATI
**> Teresa Diazen margo erakusketa kultura etxean**
Teresa Diaz oñatiarrak hainbat koadro ikusgai jarri ditu kultura etxean.
Azaroaren 27ra arte. Erakusketa egunero zabalik, 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA
**> Jone Telleriaren lamina pinturak Hamaika tabernan**
Jone Telleria bergararrak 20 bat lan jarri ditu ikusgai, paisaiak nagusiki.
Espoloiko Hamaika tabernan, abenduaren 13ra arte.

ARRASATE
**> 'Goikobalu abesbatzaren ibilbidea argazkitan'**
Goikobalu abesbatzaren eta Goikobalu Txikiren urteurrenen harira antolatutako erakusketa.
Harresi aretoan. Erakusketa ikusi ahal izateko azken eguna gaur, egubakoitza, 18:0etatik 20:00etara.

BERGARA
**> On Serafinek ateratako argazkien erakusketa**
Serafin Esnaola apaizak Bergarako egonaldian (1964-1992) ateratako 100 argazkiez gainera, hark erabilitako zinema eta diapositiba proiektoreak, zinema eta argazki kamerak eta editatzeko tresnak

PROPOSAMENA



ARRASATE
## > 'La corte de Faraón' zarzuela Amaian

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *La corte de Faraón* zarzuela eskainiko du zapatuan eta domekan Amaia antzokian, 19:30ean. Guillermo Perrin eta Miguel de los Palacios arduratu ziren idazteaz eta musika Vicente Lleok konposatu zuen. 1910ean estreinatu zen; Francoren garaian zentsuratuta egon zen, konnotazio sexualak dituelako. Lan dibertigaria dela aurreratu dute Izaskun Murgia elkartekoek. Agertokian 50 lagun inguru izango dira eta horiez gain Arrasate Musikaleko Orkestrako kideak; ehun bat lagun, denera.
Zapatuan eta domekan Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak: 17 euro.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM
**Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta.** 12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa
**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

ANIMAZIO, IKUSKIZUN ETA ERAKUSTALDIAK...

**Azaroak 14:**
**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia ahaztezina
Azaroak 21: 14:00 eta 16:00
Azaroak 22: 13:00 eta 16:00
**1, 2, 3 ... Matemagia!:**
Matematikarekin ere jolas egin daiteke!
Azaroak 21: 13:15
Azaroak 22: 14:00
**Zuzeneko esperimentuak:**
Azaroak 21 eta 22: 18:15

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

egongo dira ikusgai. On Serafin zenak egindako hainbat film ikusteko aukera ere izango du bisitariak.

Azaroaren 29ra arte Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

# Ikastaroak

ARETXABALETA

**> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik**

Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Ekainera arte.

Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo *jaikielkartea@ayahoo.es* helbidean.

ARETXABALETA

**> Hainbat ikastaro Arkupen**

Pintura, bainika, eskulan eta zeramika ikastaroak izango dira azaroan.

Argibideak Arkupen, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Sendabelarren ikastaroa Ekin elkartearen eskutik**

Azaroaren 25etik aurrera. Ekin Emakumeek elkarkidetza bultzatzeko antolatuta.

Izenematea 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 zenbakietan.

ARRASATE

**> Dementziak dituzten adinekoen zaintza ikastaroa**

Abenduaren 14tik 18ra, 15:30etik 18:30era.

Argibide gehiago 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

# Hitzaldiak

OÑATI

**> Sergi Ricart mendizalearen erakusketa martitzenean**

Besteak beste, Andeetan eta Himalaian hainbat espedizio egin izan ditu Lleidako mendizaleak, Aloña Mendik antolatutako hitzaldia.

Martitzenean, hilaren 24an, kultur etxean, 19:30ean.

# Lehiaketak

ARRASATE

**> Jokin Zaitegi beka, Herta Müller itzultzeko**

Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak, Kutxaren laguntzarekin, Jokin Zaitegi arrasatear idazlea gogoratzeko eta hark literatura unibertsala euskaratzen egindako ahaleginari jarraitzeko, Jokin Zaitegi Sariketa antolatu dute. Aurtengoa 23. ekitaldia da. Aurrekoetan bezala, azken Literaturako Nobel saridunaren lana itzultzeko zuzenduta dago beka. Hain zuzen ere, Herta Müller idazle errumaniar-alemanaren *Atemschaukel* (*Arnasaren kulunka*) eleberria itzularaztea da xedea

Interesatuek AED elkartean, 943 77 12 28 telefono zenbakian jaso ditzakete argibide gehiago.

# Zinema



## Celda 211 ***

**Zuzendaria:** Daniel Monzon.
**Aktoreak:** Lluis Tosar, Alberto Ammann, Antonio Resines. Espainia, 2009. 110 minutu.

Posible da ikusle kopuru ugari bati zuzendutako film onak egitea eta horren adibide da Daniel Monzonen *Celda 211*. Zuzendaria ez da bide errazetik joan; Jorge Guerricaechevarriarekin batera, oso gidoi konplexua burutu du. Pertsonaia ugari daude; istorio nagusian ekintza eta egoera aldaketa pila bat azaltzen dira; pertsonaiak oso anbiguoak dira: egoeren arabera onak ematen dutenak txarrak izan daitezke eta onak diruditenek ekintza *makiavelikoak* egin ditzakete. Istorioan tonu desberdin asko daude, argumentuan biraketa asko, eta dena indar handiarekin filmatua.

Kartzelan lan egiten hasi behar duen mutil bat izango da istorioaren protagonista. Ikusleek harekin bat egitea nahi dute gidoilariek. Eta hori lortzeko, nahiko oinarrizko *flash-back* batzuen bitartez, gaztearen eguneroko bikotebizitza erakusten zaigu. Horrekin ulertuko dugu gu bezalako pertsona bat dela, pertsona arrunta egoera larri baten sartuta. Hori dela eta, bere azalean sartzen gara eta bere ikuspuntua gure ikuspuntu bihurtzen da. Baina horrek ere aldaketak ditu: ezagutzera ematen zaizkigu pertsonaiak ezagutzen ez dituen hainbat datu. Horrela pertsonaiari gertatzen zaionarekin identifikatzen gara eta, aldi berean, ezagutzen ez dituen arriskuekin tentsioa mantentzen dugu.

Zuzendariak ez du nahi ikusleak lasaitzea; ezuste eta biraketa ugari izaten dira (zenbait kasutan zalantzazko trikimailuak erabilita), baina kasu gehienetan dena modu egokian egina dago: irudi indartsuak, erritmoa, Luis Tosarren eta Alberto Ammannen arteko kimika harrigarria... Daniel Monzonek badaki, kartzela *thriller* honen bidez, gizakiaren eta gure gizartearen geruza desberdinak ateratzen, eta oso modu entretenigarrian gizakion izaera kezkagarriari buruz hitz egiten digu.

**Antonio Zabala**

### ARETXABALETA

**ZARAIA**

**Enemigos públicos**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Kika superbruja**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**Si la cosa funciona**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Más allá de los sueños**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**La caja de Pandora**
Eguena: 20:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**007. Quantum of Solace**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Un chihuahua en Beverly Hills**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Tres monos**
Eguena: 20:00.

**GAZTETXEA**

**El sargento de Hierro**
Domeka: 18:00.

### ELGETA

**ESPALOIA**

**Una palabra tuya**
Eguaztena: 21:30.

### EIBAR

**COLISEO ANTZOKIA**

**Luna nueva**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Cuento de Navidad**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**COLISEO 1**

**2012**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Luna nueva**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**COLISEO 2**

**Yo, también**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.

**2012**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Luna nueva**
17:30, 20:30 (zapatuan eta domekan).

**El imaginario del Doctor Parnassus**
17:30, 22:30.

**2012**
16:30, 19:25, 22:20 (zapatuan eta domekan).

**Siempre a tu lado, Hachiko**
19:45.

**Los condenados**
17.:30, 20:00, 22:30.

**The Box**
22:30.

**La chica que soñaba con una cerilla...**
20:00.

**Julie y Julia**
17:30, 20:00, 22:30.

**Cuento de Navidad**
17:30, 20:00..

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**Celda 211**
17:30, 20:00, 22:30.

**Pluk eta bere garabia**
17:30 (zapatuan eta domekan).

**Triage**
17:30, 22:30.

**Sin nombre**
20:00.

**50 hombres muertos**
20:00, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Partir**
18:00, 20:15, 22:30.

**El secreto de sus ojos**
17:30, 20:00, 22:30.

**Agora**
17:30, 20:00, 22:30.

**Amelia**
18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**YELMO CINEPLEX**

**Cuento de Navidad**
(3-D emanaldiak)
15:45 (zapatuan eta domekan), 17:45,19:45, 21:45, 23:45.
Egubakoitzetik domekara.

**Cuento de Navidad**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:30.

**Luna nueva**
15:30 eta 17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 19:30, 20:30, 22:00, 23:00, 00:30.

**Tenderness**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**The Box**
20:10, 22:15, 00:20.

**Celda 211**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.

**Amelia**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**Siempre a tu lado, Hachiko**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00.

**2012**
15:30 (domekan), 17:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:30, 00:30.

**Triage**
22:00, 00:00.

**This is it**
17:00 (zapatuan eta domekan).

**G-Force: licencia para espiar**
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:50, 19:50.

**Agora**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 20:00, 22:25, 00:50.

**La chica que soñaba con una cerilla...**
19:15, 21:45, 00:15.

**Malditos bastardos**
21:40, 00:25.

**Vicky el vikingo**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10.

**El secreto de sus ojos**
22:30, 00:45.

Azaroaren 20tik 26ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Celda 211**
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

**Amelia**
16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**G-Force: licencia para espiar**
16:05, 18:20.

**Cuento de Navidad**
16:00, 18:15, 20:15, 22:20.

**Julie y Julia**
17:00, 19:30.

**La chica que soñaba con una cerilla...**
22:25.

**2012**
15:45, 16:15, 18:45, 19:15, 21:45, 22:15, 00:45.

**The Box**
15:50, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Siempre a tu lado, Hachiko**
16:10, 18:05, 20:05, 22:05, 00:30.

**Luna nueva**
15:45, 16:30, 18:05, 19:15, 20:25, 22:00, 22:45, 01:05.

**Agora**
16:30, 19:00, 22:05, 00:30.

**El destino final**
20:20, 22:10, 00:30.

Azaroaren 20tik 26ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.



**Si la cosa funciona**
Zuzendaria: Woody Allen. AEB, 2009. 92 minutu.
Woody Allen New Yorkera itzuli da bere azken lana filmatzeko. Boris Yellnikoffek, erosotasuna utzita, bizimodu bohemioa egiten du New Yorken. Halako batean, neska gazte bat topatuko du etxeko atarian, eta gaua pasatzera gonbidatuko du etxera. Hortik aurrera, hainbat maitasun eta familia gorabehera izango ditu. AEBetan telebistako izar den Larry David da filmeko protagonista nagusia, Allenen *alter egoa*.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El secreto de sus ojos**
Argentina 2009. Zuzendaria: Juan Jose Campanella.
Buenos Aireseko epaitegi bateko idazkaria da Benjamin Exposito. Erretiratzera doa, eta duela 30 urte gertatutako zerbaiti buruzko eleberri bat idazteari ekingo dio. 70eko urteak ekarriko ditu gogora: orduan izandako hilketa bat eta, aldi berean, gauzatu gabeko maitasun istorio bat.

**This is it**
AEB, 2009. Zuzendaria: Kenny Ortega.
Michael Jackson hil aurretik, agertokietara itzultzeko egiten ari zen entseguen irudiekin osatutako dokumentala da.

**Millenium 2: La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina**
Suedia, 2009. Zuzendaria: Daniel Alfredson
Poliziak gehien bilatzen dituen pertsonen zerrendako lehena da Lisbeth Salander. *Millenium* aldizkariko bi kolaboratzailek sexu merkataritzari buruzko eskandalu bat argitaratu behar dute eta, orduan, hilda azalduko dira. Heriotza eragin dien armak Lisbethen hatz aztarnak ditu... Liburu trilogia arrakastatsuaren bigarren zatia pantaila handira iritsi da dagoeneko.

## nire aukera



**Zuriñe Larrinaga**
Aretxabaletako Zainduz gimnasiokoa

# Mendira eta Lekeitiora

Zuriñe Larrinagak Aretxabaletako Zainduz gimnasioko harreran dihardu lanean azken 14 hilabeteotan. Kiroldegia zaharra bota aurretik han jardun zuen lanean. Ilargi plazan dagoen Udaleko Zainduz gimnasioak 927 bazkide ditu gaur.

Mendia da Zuriñeren zaletasunetako bat; hain zuzen, zapatuan mendi irteera egiteko asmoa du: "Kurtzebarri, Elorretako haitz eta Aranguren aldera joango gara; hain zuzen, horiek dira Aretxabaletako hiru handiak". Udazkena gustuko du "mendiek eta zuhaitzek hartzen duten urre kolore, gorrixka horiengatik, baina sasoi bakoitzak du bere xarma". Bi alaba dauzkate: Amaiur eta Zaraitzu.

**Perretxikotan ibiltzen zara?**
Bai, gustatzen zait. Onddotan ibiltzen naiz gehien, baina onddo-nahaskia egin ahal izateko otzaratxoa jasotzearekin konformatzen naiz. Pilarikako zubian Irati aldean ibili ginen eta orduan askotxo batu genuen, jende gehiegi zebilen arren.

**Astero joaten zarete mendira?**
Saiatzen gara. Normalean senarrarekin joaten naiz eta batzuetan alabak ere etortzen dira. Zapatuan, mendi buelta egin eta gero, familiako bazkaria daukagu Gatzagan eta arratsalde partean bueltatxo bat egingo dugu lagunekin.

**Domekarako planik bai?**
Lekeitiora joango gara egunpasa. Santi Brouarden heriotzaren 25. urteurrena betetzen da eta omenaldira joango gara. Bizkai aldera sarritan jotzen dugu, udan batez ere. Ederra da hango kostaldea. Bermeon, gainera, familia daukat.

**Zure ezkutuko zaletasuna?**
Sukaldean jardutea gustuko dut eta ahal dudan bakoitzean errezeta liburuak erosten ditut. Durangoko azokan ere *jausiko* da baten bat... Irakurri dudan azken eleberria Gioconda Belliren *El infinito en la palma de la mano* izan da.

**Edu Mendibil**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-11-20

# Pilotan jokatzeko zapatilak

**ASTORE** Arrasateko enpresak pilotan jokatzeko zapatilak egin ditu, pilotarien aholkuak kontuan hartuta

**AURKEZPENA** Martitzenean aurkeztu zuten zapatila Import Arrasatek duen pabiloi berrian, Kataiden

**SALGAI DAUDE** Pilotan jokatzeko zapatilak dagoeneko saltokietan daude salgai, 44 eta 60 eurotan

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Martitzenean aurkeztu zituen Astorek Pilotari Pro zapatilak, eta zapatila horiek erabiliko dituztenak izan ziren aurkezpenean: Aspeko eta Asegarceko pilotariak, hain zuzen. Astoreko gerente Esteban Uribesalgok aurkezpenean azaldu moduan, zortzi hilabete igaro dituzte zapatila garatzen, eta bide horretan pilotariek zeresan handia izan dute, zapatilak probatzen ibili direlako, emaitzarekin gustura geratu diren arte.

Pilotari Pro zapatilaren ezaugarri nagusiak dira egonkortasuna, arintasuna, kolpea indargetzeko daukan gaitasuna eta izerdia ondo transpiratzea. Gainera, zapatilak bi barne-zola izango ditu: "Bigarrena soberan duenak kendu baino ez du", adierazi zuen Uribesalgok.



ARRASATEN Eulate, Martinez de Irujo, Begino, Goñi III.a, Bengoetxea IV.a, Berasaluze VIII.a eta Mendizabal II.a, Import Arrasateko pabiloi berrian. XABIER URTZELAI

#### DENAK POZIK UZTEA, ZAILA

Bi barne-zola eramatearen arrazoia da guztion oinak ez direla berdinak: "Horregatik da zaila denon oinetara moldatzen den zapatila egitea, baina Astorek gure gustuko zapatilak egin ditu, eta, oraindik asko erabili ez baditut ere, oso itxura polita dute", adierazi zigun Oinatz Bengoetxea Asegarceko pilotariak.



Pilotari Pro zapatila. X.U.

Uribesalgok azpimarratu zuen Pilotari Pro pilotalekuan jarduteko espresuki egin den lehenengo zapatila dela: "Astore ehungintzatik datorren enpresa da, eta oinetakoen munduan murgiltzeko lehenengo pausoa da hau".

#### IRUJO, PROTAGONISTA

Domekako partiduan zaila izango da Juan Martinez de Irujo Pilotari Pro zapatilekin ikustea, zapatila berrietara hanka ohitu egin behar delako eta hori entrenamenduetan egiten delako hobeto. Domekako partidurako Irujok ondo zainduko ditu detaile guztiak: "Kontrario gogorra dut aurrean, hori badakit, eta Titin menderatzeko partidu perfektua egin beharko dut".

## ahobero

### "Abortuaren legearen alde bozkatzen duten politikariak ezin ditu onartu jaunartze sakratuak"

**Juan Antonio Martinez** > Gotzain Batzarreko idazkaria

Abortuaren legearen gainean Eliza Katolikoaren hainbat ordezkariren ahotik galantak entzuten ari gara, eta gero, botatzen diñuztenak samurtzeko telebistan publizitate kanpainak egiten dituzte. Hortik ez dute etorkizunik.

## iturri onetik

### Debagoieneko Kirol Sarien bigarren edizioa prestatzen hasi dira

DKS sariak Debagoieneko kirolariak eta ibarreko kirolaren alde lanean dabiltzanak saritzeko eta errekonozitzeko helburuarekin jaio ziren, eta hainbat udalen babesarekin dagoeneko hasi dira bigarren edizioa prestatzen.

Dakigunez, aurtengo ekitaldia Oñatin egingo dute, eta, iaz bezala, oraingoan ere herritarren botoak kontuan izango dituzte.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Suizidioa

Eliza Katolikoan bataiatua nago eta bi komunioak (txikia eta handia) egina. Baina nerabezaroan aurrera joan ahala fedean atzera etorri nintzen eta, oro har, oso bizimodu laikoa daramat. Zorionez, hamarkada luzetan bake dezente eman digu gurean ia bakarra den Elizak bere esparrutik kanpoko hiritarroi.

Baina bakea apurtu zen Espainia aldean duela urte batzuk eta eraso betean dihardute geroztik hango apezpikuek, Rouco harritsuaren agindupean. Eta hurbilekoak –opus, kiko eta enparauak– gotortzen diren neurri berean urruntzen ari gara beste guztiak. Elizkizunak eta apaiztegiak hutsik, haien eragina manifestaziotara mugatuta, negozioa hilzorian eta Munilla jarriko omen dute Donostian gotzain. Hori ez bada buruaz beste egitea...

## ai, ene!



### Aberatsendako komuneko papera

Inork komunera joan eta paperik aurkitu ezean izan du billeteekin ipurdia garbitzeko tentaziorik? Horrelakoekin ez bada...

www.nopuedocreer.com

